# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2016-01-22
EGUBAKOITZA
669. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
*GOIENA.EUS*
TOKIKOM


**Inoizko denboraldi hasiera onena Yeray Varela atletak** | 28

**Herritarrekiko zerbitzuak, Arrasateko Udalarendako lehentasun** | 8

Axtrokiko ontziak bueltatzeko eskatu du Eskoriatzako Udalak | 25



Abiaraztear da ekintzailetasun soziala bultzatzeko programa | 12



'Egiaren Iturria' eskultura jasoko dute emakumeek Erresistente Egunean | 2



## KANTARI
# Bazterrak alaitzera!

Hamar saioren zuzenekoak grabatuko dituzte zapatuan eta domekan | 33

Amaia Txintxurreta aurkezlea Eskoriatzako hainbat umerekin, entseguan.

IMANOL SORIANO

# %80tik gorako bereizte-tasa ipar hartuta egingo dute herri galdeketa

Etzi, domeka, egingo dute, baina aldez aurretik dagoeneko 792 herritarrek botatu dute | 20




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- **Vanesa Gimbert, Athleticeko jokalaria**
- **Donostia 2016, Debagoienetik gertu**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## SINADURAK



**Diruaren hotsa...** | 6
ALEX LABAIEN

10 | **Insignis, klorofila gabeko berdea**
ITSASO ERRETOLATZA





**Artaldea** | 14
JON OLIVARES

23 | **Aretxabaletako Krokodiloa**
YERA SANCHEZ





**Barrutik** | 40
IDOIA ETXEBERRIA







DEBAGOIENA **2** | IRITZIA **6** | HERRIAK **7** | KIROLA **28** | KULTURA **31** | ZURE IRAGARKIAK **34** | ZORION AGURRAK **35** | IRRATI-TELEBISTA **36** | ESKELAK **37** | NON-ZER **38**

# Emakumeak omenduko dituzte apirilean Elgetan, Intxortako Erresistenteen Egunean

- Apirilaren 24an da ekitaldia, iazkoaren antzerakoa izango dena; errekreazioa ere egun berean da
- Intxorta 1937 Kultur Elkartea hasi da omendu gura dituzten emakumeei elkarrizketak egiten

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Kolpista faxistei aurre egin zieten Euskal Herriko gudari eta miliziano gizonezkoei iaz egindako omenaldiaren ondoren, emakumeek jasoko dute aurten aitortza Elgetan, Intxortako Erresistenteen Egunean. Hain justu, kolpe militar frankistarekiko erresistente izan ziren emakumeak eta ondorengo diktadurarekiko ere erresistente izan zirenak edo errepresioa jasan zuten emakumeak omendu gura dituzte, Euskal Herri osokoak.

Zentzu honetan, gerraren eta diktaduraren ondoren, lehen aldia izango da emakumeak omentzen direna.

### Hainbat arlotako emakumeak

"Milizianoak, internazionalistak, Emakume Abertzale Batzakoak, irakasleak, errepresaliatuak, zauritutakoak, bortxatutakoak, hildakoak, erizainak, erbesteratutakoak… askotariko arloetako emakumeak izango dira. Bestelako memoria taldeekin harremanetan jarri ginen, emakume hauek identifikatzeko. Batzuek ja egin dituzte proposamen batzuk eta horretan dihardugu. Egin ditugu ia 20 elkarrizketa. Horrek ez du esan gura guztiak etorriko direnik; batzuek ez dutelako nahi, beste batzuek osasun aldetik ezin dutelako… kontuan hartu behar da oso zaharrak direla eta gutxi geratzen direla; hildakoen kasuan, miliziano batzuen kasuan, adibidez, euren senideak etorriko dira", esplikatu du Julia Mongek, Intxorta 1937 Kultura Elkarteko ordezkariak, Erresistenteen Eguna antolatzen diharduten elkarteetako bateko ordezkariak.



Gudariak eta milizianoak iazko Erresistenteen Eguneko omenaldian. | GOIENA

### Errekreazioa, eskultura...

Apirilaren 24an izango da aurtengo Erresistenteen Eguna. Eta iazkoaren egitura bera izango du: goizean, Intxortako borrokaldien errekreazioa egingo dute Intxortan bertan, eta ondoren etorriko da omenaldi ekitaldia, Elgetako plazan, eguerdian.

Kasu horretan, gizonezkoei moduan, emakumezkoei ere Iñigo Arregi eskultoragile arrasatearrak egindako *Egiaren Iturria* eskultura emango diete, egindakoaren eta jasandakoaren aitortza modura.

Bestalde, omenaldiaz gainera, erakusketa jarriko dute, iaz omendutako gudarien eta milizianoen argazkiekin. Asmoa da datorren urtean gauza bera egitea emakumeekin, aurten Mauro Saravia argazkilari txiletarra ere badabil-eta haiei argazkiak ateratzen Eta lanketa borobiltzeko, gura dute 2017rako guztiekin argazki-liburua argitaratu.

### (Des)memoriaren banda

Bestalde, memoria historikoari dagokionez, aurtengo Erresistenteen Egunaren aurretik memoria historikoa aldarrikatzea helburu duen beste ekimen bat ere eingo dute Elgetan; otsailaren 27an izango da, (zapatua) eta *Drogas* abeslari ezagunak kontzertua eskainiko du (Des)memoriaren bandarekin, Elgetako Kafe Antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko.

**JULIA MONGE**
INTXORTA 1937

## "Badirudi gerran eta ondoren emakumerik egon ere ez zela egin"



U.M.

Julia Mongek azpimarratu du emakumeen kasuan memoria historikorik eza are nabarmenagoa dela.

**Zergatik?**

Memoria historikoaren inguruan isiltasun handia dago; emakumeen kasuan, are gehiago, ze, askotan, kanpoan geratzen dira eta. Milizianoak eta gudariak zerrendatuta daude, batailoien arabera… emakumeak ez. Badirudi gerran eta ondoren ez zirela egon ere egin. Garbi izan behar dugu emakume borrokalariak eta internazionalistak egon zirela, erretaguardian ere ibili zirela, eta, jakina, errepresioa ere jasan zutela.

**Emakumeak eurak ez dira jabetzen askotan, ezta?**

Ez, horretara ohituta daude/gaude. Senarrek, aitek edo aitaitek egindakoak kontatzen dituzte eta esaten dute eurek ez zutela ezer egin. Eta gero galdetzen hasita konturatzen dira.



# Hasi dira 2016ko Debagoieneko Merkataritza Gida banatzen

Paperezkoa jasotzeaz gain, 'Goiena.eus' webgunean ere kontsulta daiteke

**IRATI ELORTONDO** | ARRASATE

Martxan da Debagoieneko Merkataritza Gidaren banaketa. Ia 19.000 ale banatuko dituzte 17 banatzailek. Arrasateko 9.500 banatuko dira, Bergarako 6.500 eta Oñatiko 3.300.

**Hiru gida ezberdin**

Astelehenean hasi zen banaketa, eta urtarrilaren 29rako guztiak banatuta egongo dira. Hiru gida ezberdin banatuko dituzte, Arrasatekoa, Bergarakoa eta Oñatikoa. Arrasatekoan, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Leintz Gatzagako eta Aramaioko negozioak agertuko dira; Bergarakoan, Antzuolako eta Elgetako negozioak; eta Oñatikoan, bertakoak.

**'On line' zerbitzua**

Paperezkoaz gain, *Goiena.eus* webguneko agendan gida osoa ikusteko aukera dago. Bertan, Debagoieneko negozio askoren gaineko informazio praktikoa dago eskuragarri. Horrez gain, mugikorretik ere telefono guztiak eskuratzeko aukera egongo da, *Goiena.eus*-era zuzenean sartuta edo Goiena aplikazioan sartuta. Goiena aplikazioaren abantailarik handiena bertatik zuzenean deitzeko aukera da. Aplikazioko telefono bat sakatuta, deia berehala egiteko aukera izango dute erabiltzaileek.



Banatzaileak gida etxez etxe eramaten. | GOIENA

**15 urte lehenengo gidatik**

Duela 15 urte kaleratu zen lehen aldiz. Goienako zuzendari komertzial Mireia Larrañagak ordutik dihardu lanean, debagoiendarrek gidarik eguneratuena izan dezaten: "Banaka-banaka deitzen diegu merkatariei, gidarik osatuena eta eguneratuena kaleratzeko." Horrez gain, Larrañagak eskerrak eman nahi dizkie merkatariei: "Debagoieneko merkataritza gidan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Izan ere, haiengandik izango ez balitz, ezingo genuke gidarik osatuena eta eguneratuena kaleratu."

**10 eurotan salgai**

Bailara osoan banatzen den arren, Goienako egoitzan gida eskuratzeko aukera egongo da eta 10 eurotan erosi ahal izango dute herritarrek. Beraz, nahi duena bertatik pasa daiteke, interesa izanez gero.

# Funcasbiod, "ehiza jasangarria eta bioaniztasuna bultzatzea" helburu

**ENEKO AZKARATE** | DEBAGOIENA

"Ehizak gizarteari egiten dion ekarpena" ezagutzera eman eta ehiztariek jendearen artean duten iritzia aldatzea helburu duen Funcasbiod fundazioa aurkeztu zuten herenegun, eguaztenean, Bilbon.

Horretarako, "ezagutza, formazioa eta informazioa" partekatu nahi dituzte, eta, era berean, "ingurumenarekin konpromentitutako ehiza arduratsua" bultzatu. Eusko Jaurlaritzarekin, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin, federazioekin, ehiza esparruekin, bioaniztasunarekin lotutako erakundeekin eta bestelako erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean jardun nahi du fundazioak.

Migel Lazpiur bergararra izendatu dute bertako presidente. Eta aurkezpenean izan ziren Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea eta Jose Angel Zaldua fundazioko presidenteordea. Une honetan 18 lagun ari dira lanean modu "altruistan" eta 100.000 euroko aurrekontua dauka 2016rako.

**50.000k praktikatu**

Oroz sailburuordeak esan zuen "ehiza oso jarduera jasangarria" dela EAEn, baina hori hala izan dadin lanean jarraitu behar dela. Lazpiurrek, berriz, nabarmendu zuen ehizak aisialdi jarduera moduan "jarraitzaile asko" dituela: 50.000 euskaldunek praktikatzen dute, eta, horietatik, 40.000 lizentziapean aritzen dira. Era berean, zehaztu zuen 18.000 lagun daudela gaur egun ehiza elkarteetan federatuta.




Migel Lazpiur, erdian, fundazioaren aurkezpenean. | GOIENA


DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"GUZTION ESKOLA, GUZTION ARTEAN"




URTARRILAREN 25etik OTSAILAREN 5era

605 77 39 92 goieskola@gmail.com

goieskola debagoieneko euskal eskola publikoa

baikara

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH

| | |
|---|---|
| Aramaio San Martin Eskola<br>Elgeta Herri Eskola<br>Antzuola Herri Eskola | Informazio zuzena eskolan bertan |
| Bergara San Martin Agirre Eskola | Urtarrilaren 27an, 18:00etan Haur Hezkuntzako eraikinean: Bilera<br>Urtarrilaren 30ean, 11:45ean Haur Hezkuntzako eraikinean: Ate irekiak |
| Ipintza Institutua | Urtarrilaren 26an, 18:30ean |
| Eskoriatza-Gatzaga Luis Ezeiza Eskola | Urtarrilaren 26an, 18:00etan |
| Aretxabaleta Kurtzebarri Eskola | Urtarrilaren 21ean, 17:30ean euskaraz 18:30ean gaztelaniaz |
| Kurtzebarri Institutua | Urtarrilaren 21ean, 17:30ean euskaraz 18:30ean gaztelaniaz |
| Arrasate Arrasate Herri Eskola | Urtarrilaren 25ean, 18:00etan Musakolan<br>Urtarrilaren 26an, 18:00etan Bedoñaben<br>Urtarrilaren 28an, 18:00etan Erguinen |
| Arrasate Institutua | Urtarrilaren 26an, 18:00etan Arrasaten<br>Urtarrilaren 25ean, 18:00etan Aramaion |
| Oñati Errekalde Eskola | Urtarrilaren 23an Ate irekiak 17:00etatik aurrera |
| Zuazola-Larraña Institutua | Urtarrilaren 26an, 18:00etan |
| HHI-EPA Arrasate<br>HHI-EPA Bergara | Matrikula zabalik |

# Ez dute bideragarri ikusten Gipuzkoako hondakinak Epeleko isurtegira ekartzea

## Gaur egun Azpeitian dagoen Lapatxeko zabortegira eramaten da Gipuzkoako errefus guztia

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Azken egunotan, berriz ere, hizpide da zer gertatuko den Gipuzkoako errefusarekin. Izan ere, gaur egun Azpeitian dagoen Lapatxeko zabortegira eramaten da, baina haren kudeaketaz arduratzen den Urola Erdiko Mankomunitateak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari (GHK) jakinarazi dio azpiegituraren balizko handitzearen baldintzen inguruan alde bien arteko akordiorik ezean, otsailaren 3an Gipuzkoatik datorren errefusa hartzeari utziko diola eta Urola Erdiko herrietakoa bakarrik hartuko duela.



Kamioia Epelen, hondakinekin lanean. | JOKIN BEREZIARTUA

**Bakarra da**

Gaur egun, lurraldean irekita jarraitzen duen zabortegi bakarra da Lapatxekoa, eta, GHKren iritziz, Gipuzkoako errefusa eramateko lekurik egokiena izaten jarraitzen duen arren, beste aukera batzuk ere ari da aztertzen; eta testuinguru horretan eta alternatiba moduan, Epeleko plantaren izena ere haizatu da azken egunotan.

Bada, Debagoieneko Mankomunitateko presidente Unai Elkorok adierazi du ezetz, Gipuzkoako errefusa ez dutela Epelera ekarriko: "GHKtik gaia aztertzeko eskatu ziguten, baina ez dugu jorratu Mankomunitateko gobernu juntan; alderdi barruan bilera egin genuen eta ez genuen bideragarri ikusi". Epeleko eremua industria hondakinak eta arriskutsuak ez direnak jasotzeko dela ekarri du gogora, eta ez etxeko hondakinak jasotzeko.



Goieskolako irakasleak Ipintzako jardunaldietan. | GOIESKOLA

# Proiektuak oinarri dituen metodologia Goieskolan

## Hezkuntza sistema horri dagozkion esperientziak konpartitzeko jardunaldiak egin dituzte

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Proiektuen bidezko metodologia hezkuntza berrikuntzarako tresna garrantzitsua da. Metodologia honetan ikaslea da bere ikaste prozesuaren protagonista. Ikasleek errenka desberdinei aurre egiten, arazoak ebazten eta elkarrekin lan egiten ikasten dute, bere autonomia garatuz".

Horixe da Goieskolako, Debagoieneko Euskal Eskola Publikoko, bigarren hezkuntzan aplikatzen hasiko diren metodologiaren ezaugarri nagusia. "Antzuolako eskola izan zen sistema hori erabiltzen aitzindaria. Ikusi da ikasleen gaitasunak garatzen laguntzen duela, eta garapen horri garrantzi handia ematen zaio; era berean, sistema horrekin ikasleei errazago egiten zaie edukia barneratzea. Goieskolako zentroetan urteak daramatzate metodologia berarekin lanean. Baina Bigarren Hezkuntzan ez da hainbeste garatu maila horretako edukiek lotura handiagoa dutelako batxilergoarekin, selektibitatearekin... eta, ondorioz, edukia zehatzagoa da eta mugatuta dago", esplikatu du Lurdes Ugaldek, Goieskolako koordinatzaileak.

**100 bat irakasle**

Proiektuen bidezko metodologia hori ezagutzeko eta horren inguruan hausnartzeko, jardunaldiak egin dituzte Goieskolakoek; azken saioa Bergarako Ipintza Institutuan egin dute. 100 bat irakaslek hartu du parte; izan ere, helburua da Goieskolaren eskualdeko 14 zentroen artean –helduen heziketa zentroetan ere bai– esperientziak trukatzea eta proiektuen metodologia bultzatzea.

Apirilean egingo duten azkeneko saioan, berriz, sortutako proiektuak eta nork bere zentroan landutako esperientzia berriak partekatzeko aukera izango dute




# Berria Bekarako proiektuak aurkez daitezke apirilera arte

U.M. | DEBAGOIENA

Berria Hedabideen Fundazioak, Berria Taldearen eta Laboral Kutxaren laguntzarekin, Berria Bekaren hirugarren edizioaren deialdia egin du, euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko.

Beka hori baliatuta, enpresa, hedabide edo bestelako proiektu berriak sortzea lortu nahi dute. Euskarazko hedabideen eremuan, komunikaziorako egitasmoa izan beharko du, teknologia berrietan oinarritua: komunikazio proiektu edo enpresa ere izan daiteke.

**12.000 euro**

Proiektuak apirilaren 1erako aurkeztu beharko dira. eta proiektu irabazleak 12.000 euroko laguntza jasoko du proiektua bera martxan jartzeko.

Era berean, Berria Taldeak dituen baliabideak erabili ahal izango ditu, eta, proiektuaren helburua enpresa bat sortzea bada, kasu horretan, egileak horretarako Laboral Kutxaren Gaztenpresa Fundazioaren laguntza izango du, horrela nahi izanez gero.

### Eroskiko subordinatuak trukatzeko azkeneko egunak dira

Urtarrilaren 27an bukatuko da Eroskiren mendeko finantza-ekarpenak trukatzeko epea. Onartu nahi dutenek 12 urterako bonua jasoko dute, ekarpenen balioaren %55 beste. Interesa EuriborRA + 3 izango da. %15 eskudirutan itzuliko die Eroskik, baina gainerako %30a galdu egingo dute.

### ISO ziurtagiriek izandako aldaketak lantzeko jardunaldirako izen-ematea

ISO 9001:2015 eta ISO 14001:2015 arau berriek dakartzaten aldaketen eta betebeharren berri emateko jardunaldia antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak. Otsailaren 1ean izango da eta ordubete iraungo du, 10:00etatik 11:00etara. Izen-ematea: *enpresa@debagoiena.eus edo* 943 79 30 90. Bereziki, enpresei zuzenduta dago.

### Ika Mizka saioa MUren Huhezi Fakultatean eguaztenean

Gazteak solasean jartzen ditu Ika Mizkak, euskararen erabileraren garrantziaz jabetzeaz gain, elkarri azaltzeko eta elkarrekin aztertzeko hizkuntzen inguruan bakoitzak dituen korapiloak, ondorioz euskaraz erosoago eta gehiagotan jardun daitezen. 3. saioa egingo dute MUn. 10:30etik 12:30era.




www.ikastola.eus

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa
943 76 90 71
www.aranzadiikastola.eus

arizmendi ikastola
943 77 20 25
www.arizmendi.eus

TXANTXIKU IKASTOLA
943 78 12 04
www.txantxikuikastola.eus

## ZABALIK

**ALEX LABAIEN**
goiena.eus/
komunitatea



# Diruaren hotsa…

*Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa…*

Hala dio aspaldiko kantuak, txin-txin egiten duela diruak. Askotan entzun dut, baina zalantza piztu zait. Hiztegian begiratu, eta han ere berdin. Ez dakit, bada, ados nagoen. Ez, ez nago batere ados. Eguneratu egin beharko lituzkete hiztegiak. Gaur egun, diruak ez du txin-txin egiten; dirudunek egiten dute txin-txin, xanpainarekin, eta gainerakoon kontura. Diruak danba egiten du, tiro!

Gure irakasle ohi Iñaki Mendigurenek 2009an *Argia*-n idatzitako artikulu bati esker *(http://www.argia.eus/argia-astekaria/2176/shock-doktrina)* ezagutu nituen Naomi Klein kanadiar idazlea eta haren *Shock doktrina* liburua. Krisiaren lehen urteak ziren, eta orduan zail zen antzematen zenbateraino kolpatuko gintuen. Iñakik, baina –Kleinek liburuan esaten dituenak aintzat hartuta– ohartarazten gintuen: "… komeni da azti ibiltzea, giro berezi honetaz baliatuz, berriro ere *Chicago Boys*-en errezeta ozpinak irentsi beharrik izan ez dezagun…". Eskerrak ohartarazita geunden, bestela…

Liburua mardul samarra da, eta bost urte eman ditu gure etxeko salako apalategian; hantxe, kieto! Badakizue, liburu guztiak ez dira erosten leitzeko: funtzio dekoratiboa ere oso kontuan hartzekoa da… Azkenean, baina, heldu nion, eta merezi izan zuen, bai horixe.

Hura leitzen niharduela hasi nintzen garbi ikusten diruaren hotsari zegokion onomatopeia jada ez zela gure kantu herrikoian datorrena; ez guretako, behintzat. Gaurko munduan, kanoikada, leherketa eta tiroen hotsa du diruak –baita sufrimendu eta minarena ere–, eta, bitxia bada ere, diruak beste inork ezin ditu hotsok isilarazi.

Zapatuko egunkarian irakurri nuen Iranek eta Estatu Batuek (bake?) akordioa sinatu dutela: auzi nuklearra itxitzat joko dute, eta presoak trukatuko… Ondo, pozgarria. Dena den, ez da harrigarria atzo goizera arte "gaizkiaren ordezkari gorena" zena egun batetik bestera "lagun" bihurtu izana?

Gauzak argiago ikusi ditut martitzeneko *Berria*-n euskal politikari baten adierazpenak irakurri ditudanean: "Euskal enpresentzat aukerak irekiko dira Iranen…".

## GUTUNAK

# Leuzemia linfoblastikoa

**Josu Garitaonandia**
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Sam Milham mediku epidemiologoaren arabera, borondate politikoa falta da 2 eta 4 urteko umeetan leuzemia kasuak murrizteko. Washingtongo Osasun Ministerioan lan egiten du, eta dio umeetan izaten diren leuzemia linfoblastiko kasuak %75 jaits daitezkeela eta %60 umeen beste leuzemia motak.

Etxeetan argindarra sartzearekin zerikusia daukala dio. AEBetan, 1920an, 3 urteko ume zurietan, leuzemia kasuak 100.000 umetatik 2 zen; eta 1960an, 100.000tik 8 baino gehiago ziren. Arraza beltzeko umeek beste bilakaera bat izan zutela dio, pobreagoak izanik beranduago hasi baitziren elektrizitatea etxeetan sartzen. 1950ean edota Palestinako Gazako eremuan 1970ean hasi ziren argindarra sartzen; hark dio leuzemia kasuak urte haietatik aurrera hazten hasi zirela han.

Goi tentsioko linea gutxiago egon beharko lirateke, eta energia berriztagarriak erabili, etxe bakoitzak behar duen energia bertan sortuz. Gelditukо lirateke goi tentsioko lineak pertsonak bizi diren tokietatik urrun, Europako herrialde batzuetan egin den moduan.

Hobe zuhaitzak gure inguruan argindar lineak baino.

# Debagoieneko Zero Zabor Taldeak Aretxabaletako eta Gipuzkoako herritarrei

**Enrike Letona**
(Debagoiena Zero Zabor)
Debagoiena

Igandekoa hirugarren galdeketa izango da Debagoienean eta zorionak eman nahi dizkiogu Aretxabaletako herriari.

Alde batetik, indarrean dagoen hondakinak jasotzeko sistemarekin %83 gaika biltzea lortu dute. Oso emaitza txukuna eta eredugarria da eta Aretxabaletako herritarrei zintzoki zorionak eman behar dizkiegu. Beste aldetik, alderdi politikoei eskerrak eman beharrean gaude lortu dutelako adostea %80tik gora jarraitu behar dutela birziklatzen, galdeketan edozein sistema aukeratuta ere. Honek adierazten du jasotzeko sistema bera baino gehiago, helburua dela garrantzitsuena, eta horretan jarri nahi dugu indarra.

Orain dela denbora gutxi arte, atez ateko izeneko sistemak bakarrik lortzen zituen emaitza duinak eta guk sistema horren alde egin izan dugu buru-belarri. Gaur egun, Arrasaten zein Elgetan frogatu da txipdun edukiontziekin %80 gaika bil daitekeela. Beraz, emaitza onenak lortu dituena eta pertsonalizatuagoena atez atekoa bada ere, bion emaitzak nahiko gertu daude eta onargarriak dira.

Edozein modutan, anbizioarekin jokatu nahi dugu, eta %82 hori ere gainditu daitekeela erakutsi. Beraz, hobetzeko kanpainak, emaitzak jaisten direla sumatzerakoan baino gehiago, etengabe egiten jarraitu behar dugu. Ezin gara erlaxatu eta ezin diogu mugarik jarri, helburu utopikoa %100 lortzea da. Inguruko herritar, kooperatibista edo enpresariak has gaitezen burua estutzen oraindik birziklatzeko gai ez garenak ere birziklagarriak izan daitezen etorkizunean. Esan dezagun egun batean: "Nork esan zuen hori ezin zela birziklatu?".

Gure eskualdean, %80 birziklatzeko gai bagara, gauza bera egin daiteke Gipuzkoa osoan eta oso epe laburrean. Eta Gipuzkoa osoan %80tik gora birziklatzea lortuz gero, zertarako nahi dugu erraustegia? Zertarako gastatu behar dugu hainbeste diru, ez dugunean izango zer erre…

Debagoiena eredugarria da Europan eta mundu osoan, jarrai dezagun bide honetatik!

# Borondatea vs derrigortasuna

**Luis Gomez (Irabazi) eta Xabier Igartua (EH Bildu)**
Aretxabaleta

Paper asko gastatu da hondakinen gaiari buruz egon den ika-mikan. Gehiegi, agian. Gertatutakoa lasai aztertzea etorkizuneko ariketa interesgarria litzateke.

Dena dela, sute horrek gauza positiboak ere ekarri dituela aldarrikatu nahiko genuke. Gipuzkoan ikaragarri igo dugu hondakinen sailkatze tasa. Zer esanik ez Debagoienean! Berez, pozik egoteko motiboak baditugu, eta horregatik herritar guztiak zoriondu nahiko genituzke erakutsi duten konpromisoagatik.

Arlo politikoan ere aurrerapauso erraldoiak egon direla esan daiteke. Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen %80ko sailkatze tasa lortu daitekeenik. Gehiago esango genuke, inork ez du dudan jartzen hori lortzeko erabiltzen den bilketa sistema derrigorrezkoa izan behar denik. Pentsa, kontsulta derrigorrezko eta borondatezko bi sistemaren arteko aukeraketa planteatzetik, bi derrigorrezko sistemaren arteko kontsulta planteatzera pasatu da. Borondatezko sistema aldarrikatzetik –%40 lortzen duena– derrigorrezko bat defendatzera pasatu dira batzuk –%80ko emaitza lortzen duena–. Hor dago gakoa, eta lortu dugun aldaketa.

Lortu duguna lortuta, denon artean bukaera eman behar diogu piztu zen suteari: norberak autokritika eginez, eta besteengana zintzotasunez zuzenduz. Aretxabaletan lortu dugu! Ados jarri gara %80ko tasa bermatzeko. Aretxabaletako Irabazik eta EH Bilduk ontzat hartzen ditugu planteatutako bi sistemak, nahiz eta bakoitzak indarguneak eta ahulguneak eduki. Biek helburuei eustea lortuko dute, seguru gaude!

Eta Aretxabaletako eredua esportatzea nahiko genuke. Gaur egun ez dago aitzakiarik %80tik beherako emaitzetan mantentzeko. Gipuzkoa osoan eta epe motzean sistema eraginkorrak jartzeko eskakizuna egiten dugu; Gatzagatik Hondarribira eta Ataundik Mutrikura.

Hori gertatuko balitz, Gipuzkoan errauskailuaren mamua betiko desagertuko litzateke.

Eta helburua bakarra: ea lortzen dugun gutxiago sortu eta kontsumitzea.

Baietz lortu!

# Eskerrik asko, Bergara!

**Edurne Alberdi Zubierrementeria**
(Bergarako presoen eta iheslarien kolektiboa)
Bergara

Bergarako presoen eta iheslarien kolektiboarekin urtean zehar hainbat modutan gurekin bat egin duzuenok asko izan zarete aurten ere.

Mila esker jaso dugun laguntzagatik, eta ez dugu dudarik urte berri honetan ere elkarrekin izango garela.

Eskerrik asko!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
**Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

# HERRIAK

# Kintoak, ohitura jarraitzera

▸ 2007a ezkero, emakumeek ere parte hartzen dute egun osoko ekintzetan

▸ Santa Ageda egunean herrian eskean ibiltzen dira eta bezperan, baserriz baserri

**JOSU BILBAO** | ESKORIATZA

Santa Ageda egunean, otsailaren 5ean, eta bezperan kintoen ospakizunak belaunaldiz belaunaldi mantendu dira Eskoriatzan. Kintoak izaten dira Santa Ageda eguneko elementu nagusia, eta tradizioak oraindik sendo jarraitzen du, aldaketa batzuekin.

Garai batean, urte hartan soldadutzara joan behar zuten mutil gazteak, kintoak, izaten ziren Santa Ageda eguneko protagonista nagusiak. Aurretik zeukaten urte gogorraren aitzakian-edo eskean ibiltzen ziren baserriz baserri eta herrian zehar. Soldadutzara derrigorrean joateko legea bertan behera gelditu zen, baina Eskoriatzan kintoen ohitura mantendu egin da. Horregatik, Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, urte horretan hemezortzi urte betetzen dituzten gazteak eskean eta kantuan ibiltzen dira herriko auzo guztietan.

Eguna heldu aurretik, martitzenetan eta eguenetan dantzak eta kantuak entseatzen dabiltza, kultura etxean, Eskoriatzako 1998. urteko kintoak. Izan ere, otsailaren 4an baserriz baserri ibili beharko dute egun guztian zehar kantuan, trikitiaren eta panderoaren laguntzarekin. Taldetxoetan banatuta Eskoriatzako auzo guztietatik pasatzea lortzen dute, eta ibilbidearen zati handiena oinez egin behar izaten dute.

Aurten 26 gazte irtengo dira eskean. "Urtarrilaren lehenengo astean hasi ginen entseguekin. Astero egiten ditugu, ordubete, gutxi gorabehera, eta nahiko ondo doaz. Ni dantza taldean ere ibili nintzen; beraz, lehenagotik dantza hauek ezagutzen nituen. Hala ere, aurreskua eta banakoa entseatzen ibili gara. Gero, beste batzuk, aurreskua egitean, plazara aukeratutako norbait ateratzeko ere entseatzen dabiltza. Kantuak ere entseatu behar izan ditugu. Hiru kopla eta agurra abesten ditugu", azpimarratu du Sara Agiriano eskoriatzarrak.

**Bi janzkera**

Santa Ageda bezperan, mutilak mahoizko galtzekin, gerriko eta txapela beltzekin, jertse ilunarekin eta lepotik koloreetako zapiarekin eta neskak ere baserritar arropekin jantzita baserriz baserri eskean ibiltzen dira. Santa Ageda egunean, berriz, herrian ibiltzen dira eskean, eta galtza eta alkandora zuriak, zinta gorridun alpargata zuriak, gerriko eta txapela gorriak eta lepotik koloretako zapia janzten dituzte. Gainera, kinto zaharrenak eta gazteenak txapela eta gerriko beltzak eramaten dituzte. "Zaharrena aurten Ioritz Diaz de Gereñu izango da eta gazteena, Irati Gaztelu. Eurak joango dira beltzez, eta dantza egiteko orduan eurak izango dira plazara herritarrak aterako dituztenak fandangoa eta arin-arina dantzatzera", dio Agirianok.

Egun osoan herrian eskean ibili ondoren herriko plazan aurreskua dantzatzen dute, otsailaren 5ean. Santa Ageda ospatu eta hurrengo domekan ere dantzatzeko ohitura izaten dute kintoek. Aurten, otsailaren 7an, domekan, egingo dute, baina 14an jada ez dute dantzatuko, Inauteriak tartean daudelako.

"Ostiralean eta domekan egingo dugu dantza, eta zuriz jantzita ibiliko gara Santa Ageda egunetik domekara. Bezperan baserrietan ibiliko gara diru eskean eta kantuan, eta Santa Ageda egunean herrian. Bi taldetan banatuko gara, ia seguru, eta lehenengo egunean talde bakoitza auzo jakin batzuetara joango da: Bolibarrera, Apotzagara eta beste auzoetara. Bigarren egunean, ez dut uste denok batera ibiliko garenik, eta taldeetan-edo banatuko gara herrian kantuan ibiltzeko", dio kintoak.

**Ohiturak aldatzen**

Santa Ageda egunaren inguruko tradizioak mantenduta, emakumeak ere festaren parte direla erakutsi dute eskoriatzarrek. Izan ere, tradizioz gizonezkoek bakarrik parte hartzen zuten festa izan dena guztien festa bilakatu da azken urteetan. 2006. urtera arte, emakumeak aurreskuan gonbidatu modura bakarrik ateratzen ziren, eta 2007tik aurrera, berriz, emakumeek egun osoan zehar hartzen dute parte.



Santa Agedako mutilen argazki zaharra, udaletxe aurrealdean. Soinuarekin dagoena Quintanilla da. | ESKORIATZA IRUDITAN



Iazko kintoek elurpean ospatu zuten Santa Ageda eguna. | IMANOL SORIANO



2012ko Santa Ageda egunean neska banakoa dantzatzen. | GOIENA

### Kinttaden Eguna urtarrilaren 30ean

Festa ospatuko den bosgarren urtea izango da. Izan ere, Santa Ageda egunaren inguruan kintoak batzeko sortutako festak indarra hartu du eskoriatzarren artean. Goizean ekiten diote festari Eskoriatzako kinttada ezberdinek eta herriko tabernak jai giroarekin betetzen dituzte.

Festa bizkor errotu da Eskoriatzan, eta, egun honetarako janzkera beharrik ez dagoen arren, kinttada gehienek taldea identifikatzen duen zapi edo kamiseta bat eramaten dute.

# Zerbitzuak, laguntzak eta gizarte programak mantentzeko apustua

- 35.443.060 eurokoa da aurrekontua, iaz baino 497.460 euro gehiago
- Udal Gobernuak (EAJ eta PSE-EE) babestu ditu; oposizioa kontra agertu da
- Gastu finkoak "zorrotz" kontrolatuko dira inbertsio handiak finantzatzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

2015eko abenduaren 29ko osoko bilkuran onartu zen 2016ko aurrekontu orokorra. Udalak 35.443.060 euro euro izango ditu aurten Arrasate kudeatzeko, Iturbide egoitza erakunde autonomora (3.433.770 euro) bideratutako dirua ere aintzat hartuta. Iaz baino %1,42 handiagoa da –2015erako 34.945.600 euro aurreikusi ziren– aurtengo aurrekontua. Udal Gobernua osatzen duten alderdiek, EAJk eta PSE-EEk, proposatutako eta babestutako aurrekontuak dira; EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik kontra bozkatu zuten.

**Jarduteko modu berriak**

Agintaldi berriko lehen aurrekontuak izanik, Udal Gobernuak azaldu duenez, "linea berriak" ireki dituzte agintaldi osora begirako proiektu estrategikoei erantzuteko. Gobernu aldaketak eraginda, 2016ko aurrekontu ekitaldian "garrantzi handia" dute udal jardueraren plangintza eta antolamendu lanek, eta, horrela, besteak beste, inbertsioak finantzatzeko maniobra marjina handitzea lortuko litzateke: "Tamaina jakin bateko inbertsioei aurre egiteko ezintasunak eragin du atzerapen nabarmena guztiz beharrezkoak diren azpiegitura eta ekipamendu batzuk abian jartzeko. Horien exekuzioa ezin da gehiago atzeratu", uste du Udal Gobernuak. Hori lortzeko, "ezinbestekoa" izango da gastu finkoak "zorrotz" kontrolatzea. Lehentasunezko lerroen artean daude enplegua sortzeko apustua eta kolektibo ahulenei oinarrizko udal zerbitzuak bermatzeko konpromisoa. Enplegura 798.142 euro bideratu dira, aurrekontuaren %2,48, eta horren barruan kokatzen dira, besteak beste, enpleguaren sustapena, langabeak kontratatzeko laguntzak edota titulatu berrien praktikaldietarako bekak.

Horrekin batera, zerga presioa izoztearen alde egingo du Udal Gobernuak eta egin beharreko inbertsioak finantzatzeko erronka moduan jarri dute kanpoko finantzaketa mailak hobetzea –beste erakundeen diru laguntzak, azken finean–, eta asmoa da zorpetzera jotzea.

**Kulturola, "estrategikoa"**

Kulturaren alde "apustu estrategikoa" egingo da agintaldi honetan, Kulturola izenarekin: "Tamaina handieneko proiektua izango da Aprendices eraikina birgaitzea, Arrasate Musikalen behin betiko egoitza izateko. Gainera, Erlojuaren Eraikina berrituko dugu eta elkarren ondoan dauden bi eraikin horien artean eremu erabakigarria sortu nahi dugu kultura mailan. Eskualdeko erreferente izan daiteke". Erlojuaren Eraikinean, askotariko kultura taldeez gain, Udal Euskaltegia ere kokatu gura dute: "Badu zentzua euskaltegia bertan egoteak, bilatzen duguna euskaraz ikasi nahi duen pertsonaren integrazioa baldin bada". Proiektu horiei ekiteko 150.000 euro bideratu dira aurten.

**Hainbat inbertsio garrantzitsu**

Honako hauek dira beste inbertsio batzuk: San Josepe berrurbanizatzeko fase berri bat, auzorako sarrera eta gas zein elektrizitate azpiegiturak hobetzeko (600.000 euro); Takolo-Goiru proiektuaren *G* fasea, San Andresen aparkaleku berriak sortuz eta Herri Eskolarentzat autobus geltoki berria egokituz (300.000 euro); Etxaluze-Musakola bidegorriari jarraipena ematea (640.000 euro); umeendako jolas parkeak estaltzea eta hobetzea (520.000 euro) –Gorostizakoa egingo da aurten, 220.000 euroko aurrekontuarekin–. Aparkaleku berriak egingo dira Jose Luis Iñarra kalean (75.000 euro) eta Makatzenan (70.000), eta azken auzo horretan irisgarritasuna hobetzeko igogailua jarriko da (50.000 euro).

Bestalde, oinezkoentzat espazioak errekuperatu nahi dira, adibidez, Zarugaldeko eraikin



JOKIN BEREZIARTUA

**KULTURA GUNEA** Aprendices eta Erlojuaren eraikina berritu nahi dira; Arrasate Musikal eta hainbat talde batuko dituzte. Proiektuari ekiteko 150.000 euro bideratu dira aurten.



J.B.

**TAKOLO-GOIRU** San Andresen aparkaleku berriak sortuko dira eta Herri Eskolan autobus geltokia aurreikusten da. *G* faserako 300.000 euro bideratuko dira.



J.B.

**HAUR PARKEAK** Gorostizakoa estaliko da aurten (220.000 euro) eta beste jolas parke batzuetarako beste 300.000 euro bideratu dira.

## GASTUAREN BANAKETA BATZORDEKA

| BATZORDEAK | EUROAK | % |
|---|---|---|
| Gobernu Organoak | 2.662.420 | 8,30 |
| Kultura eta Euskara | 3.623.360 | 11,30 |
| Finantza-zorra | 741.960 | 2,31 |
| Ongizatea | 2.101.390 | 6,55 |
| Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasuna | 5.252.770 | 16,37 |
| Pertsonala eta enplegua | 2.886.750 | 9 |
| Merkataritza, Turismoa, Teknologia eta Ekonomia sustapena | 285.100 | 0,89 |
| Zerbitzuak | 10.099.190 | 31,48 |
| Kirola, Gazteria, Berdintasuna eta Hezkuntza | 3.661.420 | 11,41 |
| Ogasuna | 764.370 | 2,38 |
| **GUZTIRA** | **32.078.730** | **100** |

**MARIA UBARRETXENA** | ALKATEA

## "Pertsonak eta gizarte kohesioa dira lehentasuna"

"Ilusio handiarekin" dihardu lanean Gobernuak, eta, Maria Ubarretxena alkatearen arabera, "oso garbi" dituzte Arrasaterako proiektuak.

**Zeintzuk dira lehentasunak?**

Gure lehentasuna pertsonak dira; batez ere, gizarte kohesioa mantentzea. Zerbitzuak, laguntzak eta gizarte programak mantendu egiten dira eta horiek handitzeko konpromisoa hartzen dugu behar izanez gero. Herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak mantentzeko aurrekontuaren %30,97 erabili dugu. Agintaldiari hasiera ematen dioten aurrekontuak dira, linea berriak sortu ditugu agintaldiko proiektu estrategikoei erantzuteko.

**Oposizioak salatu du denboraz justu ibili direla. Hala izan da?**

Bai. Azaro bukaeran aurkeztu genien zirriborroa, eta, beraz, talde bakoitzak hilabete izan du proposamena aztertzeko, santamasak eta Gabonak tartean. Onartzen dugu akatsa; lehen aurrekontuak prestatzearen zailtasuna hor dago, baina ezin da aitzakia bat izan. Hurrengo urteetan, udako opor aurretik hasiko gara prestatzen, konturatu gara–eta irailean hasita ez duela denborarik ematen.

**Nola baloratzen duzu oposizioak kontra bozkatu izana?**

Jarrera irekia erakutsita, talde guztiekin batzartu ginen adostasuna bilatzeko. Emendakin guztiak landu genituen, siglez harago; tamalez, ikusi dugu siglek herriak baino pisu handiagoa izan dutela. Oposizioaren aldetik jarrera malguagoa espero genuen.



J.B.

**"Oposizioaren aldetik jarrera malguagoa espero genuen"**

**Zelako herentzia jaso duzue aurreko Udal Gobernutik?**

Herentzia bi prismatatik azter daiteke. Batetik, egoera finantzarioa ona da, Udalaren zorra oso baxua delako, %5,4koa. Baina uste dugu horren arrazoi nagusienetakoa dela zortzi urtetan ez dela inbertsio garrantzitsurik egin. Aurreko agintaldian hainbat proiektu planteatu ziren, baina ez dira gauzatu. Horrek, logikoki, erabili ez den diru kopurua handitu du. Alde horretatik, ikusten dugu planteatzen ditugun proiektuak aurrera ateratzeko aukerak baditugula. Baina, aldi berean, pertsonal gastuek, udal zerbitzuek eta Mankomunitateko gastuek aurrekontuaren %70etik gora suposatzen dute. Horrek oso marjina txikia uzten digu gure proiektuak gauzatzeko.

**Nondik dator muga hori?**

Krisi garaian diru sarrera gutxiago izan ditu Udalak, baina pertsonal gastuak hazten joan dira. Gainera, zerbitzuak ez dira sekula baloratu. Ba al dakigu herritarrek nola baloratzen dituzten? Zer hobetu behar den? Lanketa sakon hori egin gabe Udaleko egiturek hazten jarraitu dute. Horregatik, lehen urte honetan, oinarri batzuk ezarriko dira joera hori aztertzeko eta zuzentzeko. Eraginkorragoak izan gura dugu administrazioaren egituran.

**Ezer gaineratu gura duzu?**

Ilusio handiarekin ari gara lanean eta oso garbi dugu Arrasaterako ditugun proiektuak zeintzuk diren. Orain lana falta da horiek gauzatzeko, herritarrek esateko dutena bistaz galdu gabe.

bat lurjabetu eta eraitsiz (60.000 euro), interes bereziko basoguneak erosiz (50.000 euro) eta Udala-Besaide ibilbidea berreskuratuz.

Emakume Txoko berria ere egingo da agintaldi honetan, Uarkapen, eta edoskitze gela bat izatea aurreikusten da (100.000 euro). Kirol arloan, klub guztiekin estrategia plana gauzatzeko partida bideratu da (30.000 euro) eta baita, gerora, Musakolako kiroldegiaren berrikuntza bat aztertzeko ere.

Merkataritza eta turismoak batzar propioa izango du (323.248 euro): "Benetan sustatu nahi dugula Arrasate herri erakargarria bihurtzea, gure herria balioan jartzea ezinbestekoa da".

## OHARRA

**Aurrekontuen harira, udal talde guztien ikuspuntua jaso nahi izan du GOIENAk, baita Udal Gobernuko kide den PSE-EE alderdiarena ere. Alderdi sozialistako bozeramaile Oscar Garciak, baina, ez du erantzuterik izan azken orduko agenda arazoak argudiatuta.**

## OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA



**Eneko Barberena** | EH Bilduko bozeramailea

### "Arrasate parte hartzaile eta justuago baten alde egin dugu"

"Aurrekontuen eztabaidan, EH Bilduk Arrasate parte hartzaile, justuago eta arlo sozialean aberatsago baten alde egin zuen. Gobernuak oso tarte txikia utzi zigun lanerako, apenas landu zuten batzordeetan. Hala ere, 50 lagunek baino gehiagok erabaki genuen asanbladan gure botoa eta ildoa. Ez genuen osoko emendakinik aurkeztu oinarrian EH Bilduren 2015eko aurrekontua dagoelako; bai, ordea, 16 zuzenketa partzial. EH Bilduri esker, onartu dizkigute guk mahai gainean jarritako zuzenketa batzuk: memoria landuko da Udalean, behar sozialen mapa osatuko da eta auzoetako jaietan edo kultur ekimenetan ez da jaitsierarik egongo. Azkenean, batzarrak ezetza eman zuen eztabaidaren ostean. Izan ere, nahiz eta gure zuzenketa batzuk onartu, azoka zein Arrasatek Hezi proiektuen bilakaera kezkagarriak edo justizia sozialaren aldeko ekimen faltaren aurrean ezin dugu EAJren eta PSE-EEren proposamena babestu. Esaterako, etxebizitza arloan den hutsunean. Hurrengo urtean, lanketa hobea egiten bada, hor egongo da EH Bildu akordioetara zabalik".



**Eva Abuin** | Baleikeko bozeramailea

### "Hiritarren parte hartzea nahi dugu eztabaidaren erdian"

"Aurrekontua izan da politikoki haustura eragin duena guk Ongizate Batzordea uzteko. Aurrekontuak onartu behar izan genituen Ongizaterako aurrekontua onartzeko, eta, ondorioz, guk kudeatzeko. Gobernu Taldearen aurrekontuak estetika hutsa dira, marketin politikoan oinarritutakoak. Ez ditu arrasatearren beharrak asetzen eta ez ditu arazoak konpontzen. Gabonetako argiak, izotz-pista, apaingarriak... hor joan dira milaka eta milaka euro. Bitartean, langabeendako diru laguntzetan ez da ezer igo, kanpainan behin eta berriz aldarrikatu ondoren. Borondate hori paperontzian geratu da. Hala ere, nahiago dugu gure ikuspuntua adierazi. Ez gara heldu politikaren ardatz zaharretan murgiltzeko. Aurrekontuak egiteko beste era bat aldarrikatu nahi dugu, hiritarren parte hartzea eztabaidaren erdian jarrita. Politika herritarrei hurbiltzeko aukera ezin hobea galdu da, Udala arrotz ikus ez dadin, eta partaidetzara ateak ireki daitezen".



**Juan Luis Merino** | Irabaziko bozeramailea

### "Aukera ona galdu da benetako arazoei aurre egin ahal izateko"

"Irabazik herritarren benetako arazoak lehenesten ditu: langabezia –1.500 langabe baino gehiago daude–, lan prekarietatea, etxebizitza eskubidea, aukera berdintasuna, pobrezia... Aurrekontuek arazo horiei irtenbide bat eman beharko liokete, baina konpartitzen ez dugun eredu baten aldekoak dira. Populismoan, irudian eta inprobisazioan oinarritutako garapen eredua defendatzen dute. Aurrekontuen aurka egin dugu EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Gobernuaren ereduarekin ez gatozelako bat eta uste dugulako aurrekontuokin aukera ona galdu dela arrasatearren benetako arazoei aurre egiteko, hots, langabeziari, etxebizitza baten aukerarik ezari eta pobreziari aurre egiteko. Gainera, ingurumenaren eredu askoz jasangarriago baten alde egin behar dela uste dugu".

## DIRU SARRERAK ETA IRTEERAK

**SARRERAK 100 EURO BAKOITZEKO**

- ▶ **48,14** udal zergetatik.
- ▶ **46,81** diru laguntza arruntetatik (Foru Funtsa).
- ▶ **2,73** zorpetzearen edo mailegu berrien bidez, "teorian". Udalak ez du espero mailegurik sinatzea.
- ▶ **0,76** inbertsioak finantzatzeko kapital diru laguntzetatik.
- ▶ **0,72** ondare saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamendutik.
- ▶ **0,56** ondare sarreretatik.
- ▶ **0,28** langileen aurrerakinak itzultzetik eta beste kontzeptu batzuetatik.

**IRTEERAK 100 EURO BAKOITZEKO**

- ▶ **32,63** pertsonal gastuak.
- ▶ **31,23** udal zerbitzuak.
- ▶ **15,53** inbertsioen zuzeneko exekuzioa.
- ▶ **15,16** transferentziak edo diru laguntzak.
- ▶ **2,31** banketxeekin hartutako konpromisoak.
- ▶ **2,31** beste erakunde batzuen inbertsioak diruz laguntzeko edo elkarrekin finantzatzeko.
- ▶ **0,83** finantza aktiboak erosteko.



Martitzenean egin zuten bilera erronka berriei aurre egiteko. | GURE ESKU DAGO

# Eskualde mailako herri galdeketarako jende berria behar du Gure Esku Dagok

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Urte berriarekin erronka berriak ditu Gure Esku Dagok erabakitzeko eskubidea gauzatu ahal izateko bidean. Ekainean herri galdeketa egin gura dute eskualde mailan eta martitzenerako deialdia egin zuten jende berria erakartzeko: "Oso pozik gaude, jende berri askotxo eta askotarikoa etorri delako. Arrasateko Gure Esku Dago taldea handitu dugu eta gertu gaude herri galdeketa prestatzeko. Ilusioz begiratzen diogu etorkizunari", adierazi dute.

**Martitzenero Kulturaten**

Herri galdeketa antolatzeko hiru lantalde nagusi aurreikusten dituzte, orain arteko dinamikari eutsiz: harreman taldea, ekintza taldea eta komunikazio taldea. Lantalde horiek indarra hartzen dutenean emango dituzte ezagutzera ekainera bitartean esku artean dituzten ekitaldiak.

Jende berriari ateak "erabat zabalik" dituztela gogorarazi dute eta horregatik dei egin dute astero egiten dituzten bileretarako; martitzenero elkartzen dira, 18:30ean, Kulturaten –sarrerako pantailan ikusi ahalko da egun bakoitzean zein gelatan aurkitzen diren. Lantaldea ezagutzeko gonbidapena egin diote herritarrei: "Erronka polita izango da herri galdeketa prestatzea eta jende berri asko ezagutzeko aukera ematen du. Asko ikasten da", diote.



JOKIN BEREZIARTUA

# Zarugaldeko bidea konpontzen

**Herri barruko errepideen egoera hobetzeko asmoz, aurten ere asfaltatze planari ekin dio Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeak. Eguaztenean hasi ziren kanpaina berriarekin behar handienetakoa duen gune batetik, Zarugalde kaletik.**

## Mintzalagunen bidez euskaraz egitera animatzen zaitugu, izena emateko epea ireki dugu-eta berriro

Mintzapraktikaren helburu nagusia euskaraz hitz egiteko aukera izatea da, baina lagun berriak egitea eta akatsak lasai eta lotsa gabe egitea ere badu helburu. Izena emateko, deitu 943 77 12 28 edo 695 78 68 52 telefono zenbakira edo AEDren bulegora jo (Pablo Uranga 4, behea) . Beste hainbat abantaila ere izango dituzu!

K OMUNITATEA GOIENA | ZAHAR-BERRI EGITASMOA | ARRASATE

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

# Auzo-konpost ikastaroa antolatu du Udalak urtarrilaren 26rako

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Etxeetan sortzen den materia organikoa konpost egitea sustatzen jarraituko du Udalak; Ingurumen Saileko arduradunek diotenez, konposta egiten hondakinen sorrera prebenitu eta murriztea lortuko da.

Gaur egun konposta egiteko sei gune daude herrian: Nafarroa etorbidean, Laubide plazan, Uribe auzoan, Musakolan, Monterronen eta Gorostizan. Ekimenean parte hartzeko ezinbestekoa izango da inguruko auzoetan bizitzea eta derrigorrezkoa da ikastaroa egitea, non irakatsiko den konposta nola egin eta bere prozesua. Ikastaro hori hilaren 26an izango da, Kulturateko Loramendi gelan. 18:00etan euskaraz egingo da eta 19:00etan gaztelaniaz. Izen-emate orria Udalaren webgunean dago dagoeneko, eta, bestela, 943 25 20 09 telefonora deitu edo *agenda21@arrasate.eus* helbidera idatzi daiteke.

Bestalde, aukera dago, lorategia edo ortua izanez gero, konposta etxean bertan egiteko.

**Arrasaten, 650 familia**

650 familia inguruk egiten dute konposta gaur egun. Auzo-konposta egiteko aukera 203 familiak aprobetxatzen dute, eta, bestetik, 450 etxetan –baserrian, ortuan zein lorategian– ere egiten da konposta.



Laubide plazako konpost-gunea. | GOIENA



IMANOL SORIANO

# Landatu dute pago gorria pasealekuan

Zuhaitz Egunaren bueltan, arrasatearrek boto bidez aukeratutako pago gorria landatu zuten Arrasate pasealeku berrituan. Herritarrekin batera EAJko eta EH Bilduko ordezkariak aritu ziren landaketan laguntzen.

## NIRE USTEZ



**ITSASO ERRETOLATZA**

# Insignis, klorofila gabeko berdea

Bailara industriaz josia dugu. Tamalez, fabrika, tximinia eta tramankuluek ez diete gure herriei itxura ederra ematen. Ezin izango dira hiribildu zainduak edo turismorako ustiatutako hiriak bezala politak. Jaten ematen digutela onartuko dugu, urteetan gure kalterako bota izan duten zikinkeria barne. Egun, egoera eraldatuz doa poliki-poliki, erraldoiek hor diraute, baina errekan arrainak ikusten ditugu koloretako ur arrearen lekuan, eta airean zeruko keak desagertuz doaz, nahiz eta ke ikusezina, gure automobiletako tutuena hala nola, ez dugu ikusi gura.

Mendiz inguratuak gaudela, zorionez, oxigenatzeko aukera hartzen dugu gora eta gorago igoaz. Eta harridurarako, goitik xaflazko etxe galantak urrundu ahala, irudia zatartzen duen beste enpresa bat agerian jartzen da nonahi: Insignis pinuen ustiapenaren hedadura. Latifundioa bailitzan hedatzen da gure bistatik zerumugarekin batera galtzen den arte. Berde arrea gailentzen da berde argiaren gainetik, klorofila gabeko kolore tristea, begirada iluntzen dizun horietakoa. Udazkenean edo udaberrian aldatzen ez den margo bera.

Pena ematen du, mendien gailurretatik hurbilegi hazten dira enbor zut tenteak, gaina ez ikusteraino. Itzal egiten dio pinudi ilunak guztiona den paisaiari. Baina zaila irudikatzen dut erremedioa, ez baldin bada arazo moduan tratatzen behinik behin: dakarten harra, adibidez.

Eta harrigarria bada ere, zuhaitz ferian ez daude salgai… non eros daitezke bada?

Poliki-poliki aldatzen hasiak diren baserritarren animoa aupatu gura nuke. Luzarora hausnartzen berrikasten ari garen seinale. Bejondeiela!




Guk bezala, egin apustu, egin kiñu Euskal Eskola Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola
goieskola www.goieskola.hezkuntza.net
baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa



Ibon Irastorza eta Sergio Serrano, Besaide elkartearen egoitzaren atarian, makila aldaketa irudikatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

# Erreleboa Besaideko mendi irteeren antolaketan

## Ibon Irastorzaren lekukoa hartu du Sergio Serranok; 2016rako ere hainbat txango interesgarri dituzte

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Besaideko mendi irteerak herriko mendizaleei begira antolatzen hamarkada pasa egin ostean Sergio Serranori (Oñati, 1979) utzi dio lekukoa Ibon Irastorzak (Deba, 1950). "Betidanik" izan du mendirako zaletasuna, eta, Debatik Arrasatera etorri zenean, Besaiderekin hasi zen irteeretan parte hartzen. Antolaketarako ardurak beranduxeago hartu zituen: "Gipuzkoako birarekin hasi ginenean Imanol Exposito *Poti* zegoen arduradun. Esan zidan laguntza behar zuela ibilbideak ikusi eta prestatzeko; mendia izugarri gustatzen zait, eta horrela hasi nintzen", gogoratzen du. Ibilbideak prestatzeak badu lana: "Internet oinarri hartuta, urrian hurrengo urterako irteera guztiak lotzen genituen. Gero, ibilbidea ikustera joaten ginen irteera aurretik. Bitxikeria moduan, parte hartzaile batzuek esan izan ziguten irteerek ez zutela pizgarririk, dagoeneko Besaiderekin ez zegoela mendian galtzerik. [Barre]". Arrazoi pertsonalengatik utziko du eta horregatik hartu dio lekukoa Serranok.

**Arrasaterekin 'zorra' kitatzen**

Duela bost urte inguru hasi zen Serrano Besaiderekin irteten, eta, Irastortzaren erreleboa hartzeko boluntariorik ez zegoenez, bere burua aurkeztu zuen: "Bi aukera zeuden, bertan behera utzi edo lekukoa hartu. Ni Pol-Polekoekin eta Aloña Mendikoekin ere joaten naiz, eta, beraz, aukera nuen eurekin joateko, baina orain arrasatearra ere banaiz, eta pena ematen zidan bertan aukera hori ez izateak. Arrasatek asko eman dit bizitzan zehar, eta heldu da hori bueltatzeko ordua".

2016rako egitaraua lau multzotan banatu dute: Donejakue bidea Euskal Herriko kostaldetik, Artzaintzaren Ibilbidea, Soriako Cañon del Rio Lobos eta Uraren Ibilbidea (Oñatin, Araotzen). Talde finkoa izan arren, edonori daude zabalik; beteranoak dira asko, baina gazteak ere badaude.

## Udal Bibliotekak zehaztu ditu hurrengo literatura solasaldiak

Garazi Arrula Ruiz izango da euskarazko solasaldien gidaria eta Ruben Angel Arias gaztelaniazkoena. Liburu ezagunen gainean solasean aritzeko saio guztiak hileko azken eguaztenetan izango dira, Kulturaten, 18:15ean. Euskarazko liburuen aukeraketa eginda dago ekainera bitartean eta gaztelerazkoena, berriz, martxora arte. Landuk diren liburuen artean, hona batzuk: *Frankenstein*, *Inon ez, inoiz ez*, *Hain gutun luzea*, *Memorias de España 1937*, *Amuleto* eta *Los Afectos*.

## 'Mundutik Arrasatera' ekimeneko ipuin kontaketa hilaren 26an

Udalak, Gizarte Zerbitzuek eta Ekin elkarteak elkarlanean abiatutako *Mundutik Arrasatera ipuin kontaketak* egitasmoaren barruan, bigarren saioa egingo dute urtarrilaren 26an Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (18:00). Venezuelako ipuinak kontatuko dituzte Marisol Abreuk eta Vanesa Gonzalezek, gazteleraz zein euskaraz. Ipuin kontaketa 5 urtetik gorako umeei eta familiei dago zuzenduta. Elkarren arteko ezagutza lantzea da ekimenaren helburu nagusia.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK (6.JARDUNALDIA)**

| | |
|---|---|
| Lasagabaster - Rayo Makabro | 12-1 |
| Betrayer - Dribling | 0-6 |
| Abokajarro - Sonografos | 4-7 |
| Monte Taberna - Elorra JMA | 1-4 |
| Aldatz- Olympiakojos FC | 7-1 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Aldatz | 16 | 6 |
| 2 | Dribling | 15 | 6 |
| 3 | Monte Taberna | 12 | 6 |
| 4 | Lasagabaster | 10 | 6 |
| 5 | Sonografos | 10 | 6 |
| 6 | Abokajarro | 9 | 6 |
| 7 | Elorra JMA | 7 | 6 |
| 8 | Betrayer | 6 | 6 |
| 9 | Olympiakojos FC | 3 | 6 |
| 10 | Rayo Makabro | 0 | 6 |

**PARTIDUAK (7. JARDUNALDIA)**

URTARRILAK 23, ZAPATUA

**10:30** Olympiakojos F.C.-Lasagabaster / **Aldatz**

**11:30** Aldatz - Monte Taberna / **Lasagabaster**

**12:30** Elorra JMA - Abokajarro / **Monte Taberna**

URTARRILAK 24, DOMEKA

**12:00** Rayo Makabro - Betrayer / **Sonografos**

### Atzeratutako partidu bat

Sonografos eta Dribling taldeen arteko lehia atzeratzea eskatu du Sonografos-ek. Era berean, antolakuntzak gogora ekarri du jokalari berriak apuntatzeko epea jardunaldi honetan amaitzen dela.



# Ekintzaileletasun soziala bultzatu nahi duen programa laster abian

'Berrekin. Berregin'-en bigarren edizioa debagoiendarrei egongo da irekita

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Garapen ekonomikoa eta justizia soziala bateragarri egiten dituzten proiektuak sortzea da ekintzailetasun sozialaren funtsa. Hori, ondorioz, otsail amaiera eta maiatz amaiera artean Udalak eta MUko Lanki ikertegiak antolatuta, Olatukoop eta Bagararen partaidetzarekin eta Aldundiak babestuta, Bergaran egingo den *Berrekin. Berregin* programaren helburua ere.

"Hemen baditugu kooperatibak ekonomia sozialaren esparruan historikoki aitzindari izan direnak; baina inguruan, Europan eta munduan baditugu esperientzia berriak, marko berri batean kokatzen direnak, gaur egun bizi ditugun krisi ekologiko eta sozialen baitan, eta ari dira sortzen kooperatibagintza eta ekonomia soziala ulertzeko proiektu berriak, molde berriak, eta hori martxan jartzeko asmoz gabiltza hemen", zioen Lankiko kide Aritz Kanpandegik programaren aurkezpenean.



Udaleko, Lankiko eta iazko edizioko kideak, eguazteneko aurkezpenean. | J.I.

Goi-mailako ikasketak dituztenentzat eta langabezian daudenentzat edo lan jardun partzialean ari direnentzat da programa. Debagoiendarrei dago irekita aurtengo edizioa –iazkoa soilik bergarararrentzako zen–, eta saio presentzialak Errekalde jauregian izango dira, astelehenetik egubakoitzera, goizez.

Formazio saioetan gizarte aldaketak eta tokiko garapena bezalako gaiak jorratuko dituzte, eta ekintzailetasun sozialerako erremintak ezagutu ere bai. Horrez gain, baina, Hazitegia deituriko atala du proiektuak, programaren ardatza dena: enpresa ideien sorrera eta garapena landuko dute bertan.

Izan ere, praktikara bideratutako programa da *Berrekin. Berregin*. Honela, iazko ediziotik irtendako hiru proiektu martxan daude, adibidez, gaur egun: herriak haurrentzako egitea helburu duen eta arkitektura eta hezkuntza uztartzen dituen bat; arazo sozialak dituzten pertsonei laguntzak eta erremintak eskaini nahi dizkion beste bat; eta Bergaran eta inguruan dagoen natura eta kultura ondarea herriari zabaldu nahi dion hirugarrena.

Dagoeneko lantxo batzuk atera zaizkiela adierazi zuen ekimenaren aurkezpenean hirugarren proiektu horretako kideetako batek, Aitor Narbaizak. Oso formazio baliagarria jasotzen dela eta iazko parte-hartzaileek animatu egin dute jendea izena ematera. 25 lagunentzako dago lekua, doakoa da eta amaieran Huheziren titulua jasoko dute ikasleek.

**Aurkezpena eguaztenean**

Programa aurkezteko, aurkezpen saio irekiak egingo dituzte Debagoieneko herri nagusietan datorren astetik aurrera. Bergarakoa izango da lehena, hilaren 27an, 18:30ean, Errekalden. Programarako izena *berrekinberregin.com* helbidean eman behar da; otsailaren 15ean amaituko da epea.

## Lanbide Heziketa Dualari buruzko saioa hilaren 28an Miguel Altuna Institutuan

J.I. | BERGARA

Goi-mailako zikloetan ikasketak eta lana uztartuz, ikasleek ikasitakoa era progresiboan praktikara eramaten dutela da Lanbide Heziketa Duala deritzonaren ezaugarri nagusia.

Miguel Altunan ildo horretan dihardute azken urteetan, Euskal Herriko industriak behar dituen espezializazio handiko eta puntako langile kualifikatuak formatzeko modu "paregabea" delakoan. Ikastetxetik azaldu dute ekainean laugarren promozioa titulatuko dela eta ikasle gehienek lanean jarraituko dutela.

Gaiaren gainean enpresak eta ikasle berriak informatzeko, jardunaldia egingo dute eguen goizean. LH Dualean ibilitakoek –eta dihardutenek– eta Ulma Forja, Ekide eta Goizper enpresetako ordezkariek emango dituzte azalpenak.

## Kafe baten bueltan solasaldia egingo dugu bihar Anjel Oiarbiderekin

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | BERGARA

Gure Esku Dagon lanean dihardugu. Baina aurrera egin ahal izateko, bergarararrek esateko daukazuena entzun nahiko genuke. Eta biharko –zapatu– egin dugu hitzordua: 11:00etan, udaletxeko pleno aretoan. Bertan, gure ibilbidearen berri izan, herri desberdinetako pausoak ezagutu eta Bergaran guztion artean egingo dugunaz hitz egiteko aukera izango dugu –herri galdeketen gaia ere berbetarakoen artean egongo da–, kafe baten laguntzarekin. Eta hori guztia, gonbidatu berezi bat lagun dugula: Anjel Oiarbide.

## Familia hazkuntzari eta hezkuntzari buruzko 'on-line' ikastaroan apuntatzeko azken eguna gaur

Bergarako Udaleko Prebentziorako Zerbitzuak antolatutako –izena bertan eman daiteke– eta Etxadiko profesionalek –EHUren laguntzarekin– emango duten ikastaroak bi egitarau izango ditu: 0-2 urte arteko umeen gurasoentzat bat eta 2-6 urte artekoenentzat bestea. Gai batzuk denek landuko dituzte, beste batzuk ez; gaien artean daude: garapen psikologikoa, elikadura, loa, hozkadak, esfinterren kontrola, kasketak, zeloak, beldurrak... 90 ordu izango dira, otsailaren 2tik maiatzaren 3ra. Doan da.

## Merkatari, ostalari eta bulego lanetan dabiltzanentzat euskara ikastaroak

J.I. | BERGARA

Udal Euskaltegiaren lehen ikastaroa bost ordukoa izango da, euskal hiztunei zuzenduta eta doan. Landuko diren gaiak izango dira: euskaraz idazten laguntzeko Interneten dauden baliabideak eta erabiltzeko oinarrizko azalpenak –hiztegiak nola kontsultatu, zuzentzaile ortografikoa eta itzultzaile automatikoa nola erabili, idatzi ereduak non aurkitu...–; gehien erabiltzen diren idatzietan –eskaerak, fakturak, aurrekontuak, ordainagiriak, oharrak, gutunak...– sarri errepikatzen diren esaldi ereduak.

Bestetik, taldea osatuz gero, 60 orduko beste ikastaro berezi bat ere egingo da. Hilaren 29a baino lehen eman behar da izena, Euskaltegian edo Irizar jauregian.

## Erretzeari uzteko ikastaroa egingo dute, otsailaren 18an hasita

Erretzeari uzteko osasun zentroan egingo den ikastaroak bost saio izango ditu; astean saio bat izango da –lehen laurak jarraian–. Osasunarentzako kaltegarri den ohitura hori utzi nahi duen edonork eman dezake izena, bere medikuari edo erizainari esanda. Ikastaroa doan da, eta otsailaren 18an hasiko da.

## OHARRAK

**IPINTZA INSTITUTUA**
Matrikulazio epea zabalik dagoela-eta 2016-2017an DBH egin behar duten ikasleen gurasoekin bilera hilaren 26an, 18:30ean.

**BASERRIETAKO PLASTIKOA**
Hurrengo bilketa, martitzenean.

**OXIRONDO AZOKA**
Gaur, 18:00etan, aurpegi margoketa eta txokolate-jana; eguaztenean, Alai Taldearen Santa Agedako abestien entsegua.

**ARATUSTEETAKO KARTELA**
Aukeratzeko bozketa, *www. bergara.eus*-en, astelehena arte.

**ODOL EMATEA**
Hilaren 27an, osasun zentroan, 18:00etatik 20:00etara.

**MAKROBIOTIKA HITZALDIA**
Jexux Larretxeak emango du, hilaren 29an 19:00etan, Irizarren.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

MIZPILDI

OKINDEGIA
943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918


Aranzadi
ikastolan
denok
gara
gu
ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa
Aurre-matrikulazioa urtarrilaren 25etik otsailaren 5era.
Banakako bisita gidaturako hitzordua hartzeko: 943 76 90 71.
Ikastetxearen aurkezpena urtarrilaren 25ean, 18:30ean.
Konfiantzaren pedagogiaren inguruko hitzaldia otsailaren 1ean, 18:30ean.
HIZLARIA: RAFAEL CRISTOBAL
Ate irekiak urtarrilaren 31n, 11:30etik aurrera.
Informazio gehiago
www.aranzadiikastola.eus
edo 943 76 90 71 telefonoan.
gu, kooperatiba
gure eredua, Euskal Herrikoa
gu, herritik herriarentzat
gure pedagogia
ikastolenelkartea

# Alkatearen urteko 67.757 euroko soldata gordina osoko bilkuran eztabaida iturri

Oposizioaren ustez, "proportzioz kanpokoa" da; Gobernuaren iritziz, "orekatua"

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Asteleheneko ezohiko osoko bilkuran onartu zen Elena Lete alkatearen soldata, Gobernuko alderdien botoarekin. 4.791,93 euroko hamalau paga izango ditu urtean. %100 liberatuta jardungo du Letek alkate.

EH Bilduk eta Irabazik kontrako botoa eman zuten bozketan. Oposizioko alderdien ustez, "proportzioz kanpokoa" da Bergara moduko herri bateko alkateak "urtean 70.000 euroko soldata [soldata gordinari antzinatasuna gehituta irteten dena]" edukitzea.

Irabaziko Aiert Lizarraldek aurkakotasuna arrazoitu zuen esanez "Estatu mailako hiribururetako alkateen soldatara" gerturatzen dela Bergarakoarena. EH Bilduko Agurne Barrusok, berriz, hainbat datu eman zituen osoko bilkuran. Azaldu zuen Bergarako alkate baten inoizko soldata handiena dela, eta bigarrenarekiko urteko "10.000 euroko aldea" dagoela. Orain arteko soldata altuena Victoriano Gallastegirena zen: 59.797 euro urtean.

Baina alkatearen soldata bakarrik ez, EAJko hautetsi liberatuen gastua ere kritikatu zuen oposizioak. Agurne Barrusok azaldu zuen EAJko bi liberatu eta erdiek 128.000 euro jasoko dituztela soldatetan, eta konparazioa egin zuen Bilduren aurreko agintaldiko kopuruekin [2015ekoekin]: aurrekontuan 123.000 euroko aurreikuspena onartu zen [agintaldiko kopuru handiena], baina liberatuengatiko [hiru jardun osoan eta laugarren bat %20ra] Udalaren gastua 90.500 euroan geratu zela zioen [balizkoa, urte amaierara arte gobernatzen jarraitu izan balute], liberatu baten soldata alderdiei dagozkien asignaziotik ordaintzen zutelako.

**'Udal irizpidea betetzen du'**

EAJk oposizioaren kritikei erantzunez esan zuen alkateari ezarritako soldatak orain arte Bergarako Udalean erabilitako irizpidea betetzen duela. Alkateak berak adierazi zuen hori dela Jaurlaritzan zuen kargutik zekarren soldata, eta, soldata horrez gain, "esperientzia bat" eta "konpromisoa" ere badakartzala, eta hori ere kontuan hartzekoa dela. Jasoko duen kopurua "guztiz orekatua" dagoela zioen Elena Letek.

## Gaur hasi eta astelehenera bitartean ospatuko dituzte Uberan San Paulo jaiak

**J.I.** | BERGARA

Txupina bota eta Mari Justari eta Pedro Joxeri ongietorria eginez hasiko dira jaiak, 20:30ean. Poteoa egingo dute ondoren, eta 21:00etan bertso afaria, Iker Zubeldia eta Julio Sotorekin. Gero, dantzaldia.

Bihar, umeentzako jolasak egongo dira 12:00etan, eta patata tortilla eta tarta lehiaketak ere bai. Salda banatu eta auzo bazkaria ere egingo dute.

Domekan, diana izango da 10:00etan Bergarako txistulariekin; 10:30ean meza eta 11:30ean Alai Taldea eta Moises Azpiazukoen dantza saioa egongo dira. Azkenik, astelehenean, 11:00etan meza; eta 12:00etan salda eta txistorra banatuko dituzte –bezperan ere bai–.

## Eguaztenera arte eman daiteke izena torradak eta pellak egiten ikasteko otsailaren 2ko ikastarorako

Aratusteetako egitarauaren barruan antolatu du Bergarako Udalak torradak eta pellak egiten ikasteko ikastaroa. 18:00etatik 20:00etara izango da otsailaren 2ko saioa, San Antonioko Gure Ametsa elkartean, eta Gorka Lobatok emango du. Kultura Zerbitzuan eman behar da izena –urtarrilaren 27an amaitzen da epea–, eta hamabost pertsonak –gehienezko kopurua– baino gehiagok izena ematen badute, zozketa egingo dute –bergararrek izango dute lehentasuna–. Ikastaroa doanekoa izango da.

TXALOAK ETA TXISTUAK

## Txakur kakak espaloian batean eta bestean

Irakurle batek kexa agertu du, Boluko biribilgunetik behera San Pedroraino txakur kakak "eskibatzen" joan behar duela–eta, espaloian "alde guztietan" daudelako, dioenez. "Lotsagarria da", dio, eta txakurra dutenak ohartarazi ditzaten ere eskatzen du.



Txakur kakak.

EIDER UZIN



IBON GABILONDO

## Ramon eta Larra onenak

Ramon eta Larra izan ziren onenak Artatse elkartean 30 bikoteren artean jokatutako Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketan. Panti eta Sali, Gotxi eta Mikel eta Aristi eta Santorkuatro sailkatu ziren ondoren. Lau bikoteak doaz Gipuzkoako kanporaketara.




NIRE USTEZ

**JON OLIVARES**



## Artaldea

Urtarrila, merkealdien sasoi betean sartuta. Gabonak pasa berri ditugu, kontsumismoaren puntu gorena; hilabeteak abundantziazko egun horiek itxaroten. Alde guztietatik mezuak: erosi, kontsumitu, gastatu, oparitu... etengabeko bonbardaketa bat, burugabe kontsumitzen eta gastatzen. Benetan behar ditugun gauzetan?

Kontsumismoaren garaian bizi gara. Urtean zehar nahikoa kontsumitzen dugu; aukeran, gehiegi, esango nuke. Eta Gabonetan batez besteko hori zeruetara igotzen da. Horretara bultzatzen gaituzte eta guk amen-amen egiten diegu mezu guztiei. Baina horrekin nahikoa ez, eta ekonomikoki gogorra omen den hilabetean, urtarrilean, merkealdiak jartzen dituzte. Gabonetan zehar gutxi erosi dugunontzat aukera berri bat, edota, Gabonetan gutxi erosi ez arren, kontsumitzen jarraitzeko aitzakia bat. Behar ez ditugun arropak, teknologia berriak, jostailuak...

Beti ere beraien interesetara gerturatzen gaituzte, gure inozentzia beraien onurarako erabiltzen dute. Orokorrean ohartzen ez garen arren, gure eskuetan baitago beraien boterea, eta hori kudeatzen badakite.

Ardia omen da animaliarik mozoloena, batek zerbait egin eta besteak atzetik joaten direlako. Baina, azken finean, ez ote gara artzain boteredunen artalde xume eta mozolo bat...


Mariaren Lagundia Ikastola • Bergara
MARIAREN LAGUNDIA
2016
Matrikulazioa
Urtarrilaren 25etik
Otsailaren 5era arte
Ate irekiak
Urtarrilaren 30ean, 10:00 - 13:30
Ibilbide gidatuak: 10:30 eta 12:00
Espaloia 1
mlagundia.net
ikastola@mlagundia.net
943 76 25 40/41

# Stoltz-Frères organoaren tutuak babesean hartzeko inprimakiak prest

## Dohaintza sistema berezia jarri du martxan Organoaren Lagunen Elkarteak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Epe motzean konpondu beharrean da Bergarako Stoltz-Frères organoa. 460.000 euroko aurrekontua du zaharberritze osoak, eta premia handieneko lanek 100.000koa. Organoaren Lagunen Elkarteak 14.000 euro batu ditu orain arte konponketarako, eta kopuru hori handitu nahian dohaintzarako sistema jarri dute martxan.

Guztira 2.343 tutu ditu organoak, eta dohaintza sistemaren berezitasuna da tutu baten edo hainbaten aitabitxi edo amabitxi izateko aukera izango duela hala nahi duenak. Neurri desberdinetako tutuak daude, eta neurriaren araberakoa da tutua babesteko egin beharreko diru ekarpena. Ekarpena eginda, norbere izena eskertze plakan agertzeko aukera egongo da, eta baita diploma sinbolikoa jasotzekoa ere. Organoa laguntzeko antolatutako kontzertuetan banatuko dituzte dohaintzarako inprimakiak.




Tutuen marrazkiak, izenak eta neurriak. | ORGANOAREN LAGUNEN ELKARTEA

### Kontzertua domekan

Hain justu, kontzertuei dagokienez, domekan izango da ikasturte berriko egitarauko hirugarrena: Mariatxen Urkia sopranoa eta Jose Luis Frantzesena organo-jolea ariko dira Santa Marina parrokian, 19:00etan. Sarrera bost euro izango da, eta bertatik jasotako dirua ere San Pedro parrokiako organoa konpontzeko izango da, orain arte bezala.

San Pedroko organoa mundu osoan jatorrizko egoeratik gertuen dagoen Stoltz-Frères etxeko organorik handiena da, eta oso ezaguna han eta hemen, azken urteetan egindako zenbait grabaketa tarteko. Organoa konpontzera bideratutako dohaintzek zerga arintzea izango dute errenta aitorpenean. Partikularren ekarpenez gain, elkartean gustura jasoko lituzkete erakunde, enpresa eta abarrekoenak ere, ekarpen handiago zein txikiago.



Urtarrilaren 24ra arte ikus daitezke taila eskolakoen lanak. | OIHANA ELORTZA

# Taila eskolakoen erakusketaren ondotik, Buztinzalekoek hartuko dute erreleboa

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Herriko elkarteak dira protagonista urtarril honetan Aroztegi aretoan. Bearten erakusketa izan zen lehenbizi, eta orain Bergarako taila eskolakoen lanak daude ikusgai pasa den astea ezkero. Etzi izango da lan horiek bisitatzeko azken eguna.

Erlojuak, eguzkiloreak, argizaiolak, Gernika koadroak, delfinak, kutxak eta Bergarako txoko ezberdinak ikus daitezke, besteak beste, erakusketa horretan. 92 urte dituen Asensio Esnaola dute maisu eta hark gidatuta egiten dituzte lanak Zabalotegiko eskolan.

Horretaz gain, Pedro Grande tailagilea gonbidatu dute aurten erakusketara. Egurrarekin miniaturak egiten ditu soraluzetar horrek: "Pertsonak, animaliak, gizarteari egindako kritikak, heriotzaren zentzua eta bizitza islatzen dituzte lan hauek", adierazi du.

### Hurrengo, zeramika

Datorren egubakoitzean berriz, hilak 29, Buztinzale zeramika elkartekoen buztinezko artelanak izango dira ikusgai Aroztegi aretoan. Otsailaren 7ra arte -domeka- izango da erakusketa ikusteko aukera.

## Itziar Murgizuren pintura erakusketa Nahikari tabernan

Urtarrila amaitu bitartean dago ikusgai Nahikarin Itziar Murgizu bergararraren erakusketa: marrazkiek, akuarelek eta akrilikoek osatzen dute erakusketa. Nahikarin legez, beste hainbat tabernatan daude erakusketak, ohi bezala.

## Helduentzako ipuin kontaketa martitzenean Udal Liburutegian

Celso F. Sanmartin galiziarra izango da kontalaria, eta *Cantar como un pajaro, escuchar como el lobo* izango du izenburua kontakizunak. 19:30ean hasiko da saioa. Hilaren 29an, berriz, umeentzako saioa egingo dute Dorleta Kortazarrekin, 18:00etan.

## Donostiara 'La Traviata' ikustera joateko autobusa

J.I. | BERGARA

Bergarako Udalak doako autobusa jarri du oraingoan ere Kursaalera Verdiren *La Traviata* ikustera joateko. Otsailaren 21ean izango da ikuskizuna, 19:00etan –sarrerak salgai daude *www.sarrerak.kursaal.org* helbidean–. 30 urtetik beherakoek eta langabeek hiru euroan izango dute sarrera, kasu hauetan Udal Kultura Zerbitzuan. Han eman behar da autobuserako izena ere; otsailaren 16ra arte eman daiteke. *La Traviata*-ren dekorazioaren eta eszenografiaren ardura Valen Moñux eta Alex Odriozola bergararrek dute.

## Aratusteetako ekintzetarako sarrerak

J.I. | BERGARA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Amalur* ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 6an Udal Pilotalekuan, 15:30ean eta 18:00etan. Sarrerak erosi ahalko dira *www.bergara.eus* helbidean, hilaren 25ean 18:00etan hasi eta otsailaren 4ko 19:00ak arte; eta baita Zabalotegin ere, epe berean, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara. Pertsonako sei sarrera erosi ahalko dira gehienez.

Aratuste zapatuko mozorro bazkarirako sarrerak, berriz, otsailaren 3ra arte daude salgai, Pol-Pol, Arrano eta Ariznoa tabernetan.

## Calahorrako musika bandak joko du domekan

M.T. | BERGARA

Calahorrako (Errioxa) musika bandak kontzertua eskainiko du domekan, urtarrilak 24, Udal Pilotalekuan. *Pontones, Libertadores, La isla de la luz* eta *La mosca* piezak interpretatuko dituzte Eduardo Peña Hernandezen zuzendaritzapean.

150 urte baino gehiago dira banda hori sortu zela, eta adin guztietako hirurogei musikarik osatzen dute. Hain zuzen, iaz ospatu zuten urteurren borobila, eta Bergarako bandak Calahorran jo zuen ospakizunen harira. Orain, berriz, errioxarrak dira Bergarara datozenak.

## Txorimalo lehiaketaren ordez, erakusketa

M.T. | BERGARA

Erramu-zapatuan Ibargarai kalean egin ohi den txorimalo lehiaketa txorimalo erakusketa izango da aurten.

Ekimenaren hogeita bigarren edizioa izango da. Martxoaren 17an, 11:30etik 13:00era izango dira txorimaloak ikusgai. Erakusketan parte hartzen duten taldeen artean, adinaren araberako zozketa desberdinak egingo dira eta 12 urtetik beherakoekin merendola bat ere bai, apirilaren 15ean Oxirondoko azokan.

30 euroko saria izango du euskararen aldeko lelo irabazleak. Izena Jardunen eman daiteke.

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK
URTARRILAK 25 - OTSAILAK 5

BILERA INFORMATIBOA
Urtarrilaren 27an, asteazkenean, 18:00etan
Haur Hezkuntzako eraikinean (zaintza zerbitzua)

ATE IREKIAK
Haur Hezkuntzako eraikinean, urtarrilak 30ean, 11:45ean

San Martin Agirre herri eskola BERGARA

Tel.: 943 76 21 47
012265aa@hezkuntza.net
www.sanmartinlhi-bergara.hezkuntza.net
www.facebook.com/sanmartinagirre.herrieskola



# Nesken eskubaloi talde berria martxan da

Infantiletan hamahiru jokalari lanean dabiltza datorren denboraldiari begira

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA.

Bergaran bada nesken eskubaloi talde bat berriro ere. Hamahiru eta hamalau urte bitarteko neska talde batek bete du hutsunea, eta, oraindik lehiaketa ofizialean ez diharduten arren, hurrengo denboraldian pauso hori emateko asmoz dabiltza. Momentuz, hamahiru jokalari ditu taldeak.

Bigarren urteko infantilen taldea da, eta Xabier Iñurrieta da haien entrenatzailea. Hark azaldu duenez, Bergara Kirol Elkartekoak herriko ikastetxeetan jendea animatu nahian ibili ziren, infantil talderen bat sortu nahian. Azkenean, mutilen talderik ez zen sortu, baina neska dezente animatu ziren. Urriaren erdialdean hasi ziren entrenamenduekin, denboraldia jada hasita zegoela, eta horregatik ezingo dute liga honetan jokatu. "Entrenatu eta datorren urterako prestatzeko aprobetxatuko dugu", dio Iñurrietak.



Nesken talde berriko jokalariak. | J. MUNIATEGI

### Lehiatzeko prest

Taldea sortu zenetik, lagunarteko bi partidu jokatu dituzte Zumarragako taldearen aurka, bata etxean eta bestea kanpoan. Bi partiduak "gutxigatik" galdu zituzten. Kontuan izanik aurkariek esperientzia handiagoa zeukatela, Bergarako entrenatzaileak "ondo" ikusten du bere taldea. "Asmoa da taldeak urte batzuetan jarraipena izatea", adierazi du.

Martitzenero eta eguenero egiten dituzte entrenamenduak Labegaraietako kiroldegian, arratsaldeko bost eta erdietan hasita. Taldera batzeko interesa duen norbait badago, entrenamendu saio batetik pasatu daiteke.

ESANAK

**"Asmoa da taldeak urte batzuetan jarraipena izatea"**

XABIER IÑURRIETA | ENTRENATZAILEA

### Bi pilota partidu gaur Udal Pilotalekuan, eta nagusiena bihar

Gaur, 19:15ean, bi partidu izango dira: bigarren urteko alebinetan, Bergara-Ataun; ondoren, eskuz binakako gazte mailan, bergararrak Alde Zaharraren aurka. Zapatuan, 12:30ean, Perez-Iñarra Lagunaken aurka.

### Saskibaloi taldeak etxean jokatuko du; eskubaloia, atzeratuta

BKEko saskibaloiko talde nagusiak domekan jokatuko du -17:30- Alde Zaharraren aurka. Bergararrek oraindik ez dute garaipenik erdietsi. Eskubaloian, jokatzeko zen partidua atzeratu egin dute.

### Lokatzak urteko batzarra egingo du urtarrilaren 28an

Lokatza Ziklismo Eskolako bazkideek ohiko urteko batzarra egingo dute eguenean, hilak 28, Irizar jauregian. 18:30ean izango da –bigarren deialdia 19:00an–. Balantzeaz, zuzendaritza berritzeaz eta bestelakoez arituko dira.

## LABEGARAIETA

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Poteo Izarrak-Vodka Juniors | **10-5** |
| Komando Piperrak-Estrella Coja | **3-6** |
| Birgerias-SVC | **7-2** |
| Arrano Zabalik-Errefuxa | **6-6** |
| HIS-Sanpe United | **5-5** |
| River City-America | **6-3** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **1** | Estrella Coja | **18** | **6** |
| **2** | Errefuxa | **16** | **6** |
| **3** | River City | **13** | **6** |
| **4** | Komando Piperrak | **12** | **6** |
| **5** | America | **7** | **5** |
| **6** | Poteo Izarrak | **7** | **5** |
| **7** | Vodka Juniors | **6** | **6** |
| **8** | Birgerias | **6** | **6** |
| **9** | Sanpe United | **5** | **6** |
| **10** | HIS | **4** | **6** |
| **11** | Arrano Zabalik | **4** | **6** |
| **12** | SVC | **3** | **6** |

**PARTIDUAK**

Azaroak 27, Egubakoitza

**22:15** Poteo Izarrak-Sanpe U. / **K.Piperrak**

**23:15** K. Piperrak-River City / **Sanpe Un.**

Azaroak 22, Domeka

**17:00** HIS-SVC / **America**

**18:00** America-Errefuxa / **SVC**

**19:00** Estrella C.-Arrano Zaba. / **Errefuxa**

**20:00** Birgerias-Vodka Jun. / **Arrano Za.**

### BKEko presidente Pedro Ricok dimisioa aurkeztu du

Erredakzioa ixtear jasotako berriaren arabera, karguari behar beste denbora eskaini ezinagatik da erabakia. Egunotan aukeratuko dute berria.


## TEORIATIK PRAKTIKARA: HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA

San Martin Agirre herri eskola BERGARA

IAZKO IKASTURTEAN EAEKO HAINBAT IKASTETXETAKO IRAKASLEEK SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA BISITATU ZUTEN TXOKOEN ZIRKULAZIOAN OINARRITUTAKO METODOLOGIA GERTUTIK EZAGUTZEKO ASMOZ. DINAMIKA HORREK AURRERA SEGITZEN DU; AURTENGOAN, TXOKOEN ZIRKULAZIOAREKIN JARRAITZEAZ GAIN, HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA IZAN GENUEN MINTZAGAI URTARRILAREN 21EAN EGIN ZIGUTEN BISITAN.

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasgeletan sartu ziren atzo eskola bisitatu zuten irakasleak. Hizkuntzen Trataera Bateratua lantzen duten taldeen testuingurua eta zereginak bertatik bertara ezagutzea zuten helburu; horretarako, ikasgeletan egotearekin bat, tutoreekin zein zuzendaritzako kideekin bildu ziren.

Proposamen didaktiko orokorra da Hizkuntzen Trataera Bateratua, eta hizkuntzen irakaskuntza zein ikaskuntza modu koordinatuan antolatzen ditu. Hizkuntzen arteko eragina da bere oinarrietako bat; izan ere, batean landutako eta garatutako trebetasunak besteetara transferitzen dira: hala nola aurre-ezagutzak, kontzeptu linguistiko orokorrak, testu idatziak zein ahozkoak ulertu eta ekoizteko prozedura, komunikatzeko estrategiak, etab.

Hizkuntzen Trataera Bateratuak metodologia bateratua behar du. Hortaz, hizkuntza desberdinetako helburu, eduki eta ebaluazio irizpideen plangintza elkarrekin egite aldera, hiru hizkuntzatako irakasleen koordinazioa ezinbestekoa da. Azpimarratu nahiko genuke hiru hizkuntzen artean euskarari arreta berezia eskaintzen diogula beti.

**PROIEKTUAK: METODOLOGIAREN FUNTSA**

Diziplinarteko proiektuetan oinarritzen da gure hezkuntza proiektua. Guk geuk ikaskuntzen transferentzia indartzeko eredu didaktiko egokitzat jotzen ditugu proiektuok, ikasleen interesekoak diren gai kultural edota sozialak garatzea ahalbidetzen baitigute.

Komunikazio proiektuen eta, bereziki, Hizkuntzen Trataera Bateratuaren alde egiten dugun apustua handia da, hizkuntzek komunean duten erronka nagusietako bat ahozkoaren erabilera lantzea dela uste dugu eta. Hizkuntzalaritzako ikerketa guztiek aspaldi utzi zuten agerian hizkuntzak garatzeko erabili egin behar direla. Behar hori ulertuta, duela urte batzuk hasi ginen eskolako hizkuntza guztietan ahozkotasuna indartzen, bereziki euskaran, hura baita gure hezkuntzaren oinarria. Baina jakin badakigu gizarte eleanitzean murgilduta gaudela eta, hortaz, bertan eragin ahal izateko hizkuntza desberdinak menperatzeko bideak eskaini behar dizkiegula ikasleei. Testuinguru horretan, Hizkuntza Trataera Bateratua ezinbesteko baliabidea da.

Azken finean, hizkuntzaren irakaskuntzaren helburu nagusia honexek behar luke izan: ikasleak hizkuntza(k) erabiltzeko gaitasuna garatzea, ulermenean eta adierazpenean, ahoz zein idatziz. Ikasleak ezinbestean behar ditu trebezia praktikoa, baliagarria zein funtzionala, eskolako irakaspenak behar bezala eskuratzeko (hizkuntzaren arlokoak zein beste arloetakoak), eta eskolatik kanpoko komunikazio egoerei erantzuteko.

Ahozkoaren garrantziaz ohartaraztearekin bat, ahozko hizkuntza lantzeko beren-beregiko guneak egungo sistemara ekartzen laguntzen diegu ikasleei. Hala, hizkuntzen erabilera, bereziki euskararena, sustatzen dugu egoera formaletan (IPA saioetan, hizkuntzan, matematikan, musikan, etab.) zein ez formaletan (liburutegian, patio jolasetan, eskolaz kanpoko ekintzetan, familiekiko harremanetan, etab.).



**Erkidegoko hainbat ikastetxetatik etorritako irakasleek egindako balorazioan, eskolak egiten diharduen ibilbidea goraipatu zen.**

# Squashak indarra hartu du Oñatin

Hogei lagun elkartu dira eta apirilean bukatuko da antolatu duten euren arteko txapelketa


Squash-ean jokatzen duten lagunetako batzuk kiroldegiko kantxan. | MIREIA BIKUÑA

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Squashean jokatzen hasteko elkartu ziren bizpahiru lagun, eta, bati esan eta beste bati komentatu ostean, hogei laguneko taldea egin dute. Jokatzea zen hasierako helburua, baina, behin taldetxoa sortuta, txapelketa antolatu dute.

**Kiroldegian**

Urrian hasi ziren squashean jokatzen.. "Txikitan jokatzen nuen squashean, udako kirol kanpainaren barruan zegoen eta horixe aukeratzen nuen. Nirekin batera jokatzen zuten lagunei komentatu, eta ahoz ahoko publizitatearekin elkarren berri izan genuen, eta horrelaxe elkartu gara hogei lagunok", dio jokalarietako batek, Mikel Aginagaldek.

Urrian hasi ziren jokatzen eta orduan finkatu zuten aurtengo denboraldiko egutegia. "Gabonetan ez dugu jokatu aste pare baten, baina berriz ekin diogu. Egutegia hor dago. Txapelketa txiki bat antolatu dugu eta sortu dugun Whatsapp taldera bidaltzen ditugu partiduak nork noren kontra jokatu behar dituen. Gero, jokatu behar duten jokalariek eurek adosten dute zein egunetan eta ordutan jokatu partidua", dio Aginagaldek.

Hasiera batean, txikitako jolasa berreskuratu eta kirola egiteko aitzakiarekin elkartu eta hasi ziren jokatzen, baina lehia piztu da euren artean eta txapelketa antolatu dute, nahiz eta lagun artekoa izan. "Inori ez zaio galtzea gustatzen eta lehia dago gure artean, bai", aitortu du Aginagaldek. Txapelketaren arauak guztien artean adostu dituzte: hamabost tantora da joko bakoitza eta partidua irabazteko hiru joko irabazi behar dira. Zubikoa kiroldegiko kantxetan jokatzen dituzte partiduak. "Hasieran, beste edonor moduan hasi ginen, kantxaren alokairua ordaintzen. Baina kiroldegiko arduradunarekin hitz egin eta esan zigun berak lagunduko zigula txapelketa antolatzen, eta egun ez digute kobratzen kantxak erabiltzearren", dio Aginagaldek.

**Saria**

Urrian hasitako txapelketak martxora arte iraungo du. Hilabete horretan bukatuko da liga erregularra. Gero, beste torneo txiki bat egingo dute, eta apirilean edo maiatzean bukatuko da aurtengo txapelketa. Sari berezirik ez duen txapelketa. "Berezirik ez, baina gustukoa bai. Denok batera egingo dugun poteoa eta afaria ordainduko diogu irabazleari", dio, barrez, Aginagaldek. Gaur egun hogei lagun dira taldean eta ez dakite zenbat izatera irits daitezkeen. Momentuz, ez dute asmorik talde ofizialik egiteko eta Aloña Mendiko beste sail bat sortzeko.

## Nibologiari eta elur-jauziei buruzko ikastaroa antolatu du Aloña Mendik

O.E. | OÑATI

Nibologia eta elur-jauzietan nola jokatu behar den erakutsiko duen ikastaroa antolatu du Aloña Mendik otsailaren lehen astebururako. Nibologiaren eta elur-jauzien gaineko saio teoriko eta praktikoa izango da, eta bertan, elur-jauziak sortzen dituzten mekanismoak ezagutu, arrisku horien aurrean nola jokatu, elur-jauziek harrapatutako biktimak aurkitzeko pausoak ezagutu, ARVAren erabilera eta era horretako bestelako kontzeptu gehiago ikasteko aukera izango da

Ikastaroak hiru egun iraungo du. Otsailaren 5ean Aloña Mendiko egoitzan saio teorikoa emango da eta otsailaren 6an eta 7an, berriz, saio praktikoak egingo dituzte Gabarditon (Hecho bailaran). Ikastaroak 100 euroko kostua du eta prezio horren barruan sartzen da ikastaroa bera eta aterpetxeko pentsio erdiko egonaldia.


ARVArekin bilaketa bat egiten. | EUKENISOTO.EU

Ikastaroko plazak mugatuak dira eta urtarrilaren 27a da azken eguna izena emateko. Aloña Mendiko mendi sailarekin harremanetan jarrita eman behar da izena. Horretarako bideak dira: *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidera mezua bidalita edo asteazkenetan Aloña Mendiko bulegoetara joanda, 19:30etik 21:00etara.

## Bertso-paper lehiaketako sariak emango dituzte gaur

O.E. | OÑATI

Gaur, egubakoitza, emango dituzte gaztelekuak zazpigarren urtez antolatu duen bertso-paper lehiaketako sariak. Jon Martin bertsolaria izango da sari banaketan, 18:00etan. 22:30ean, Beira taldearekin joko du Martinek gaztelekuan bertan.

Aurten ere 10 eta 18 urte arteko gaztetxoendako antolatu dute bertso-paper lehiaketa eta 102 lagunen lanak jaso dituzte, 60 LHko ikasleenak eta 42 DBH eta Batxilergo mailakoenak.

Epaimahaia bertso eskolako lau lagunek osatu dute, eta, adierazi dutenez, "lan handia" izan dute "horrenbeste bertso sortaren artean onenak aukeratzen". Kategoria bakoitzean aurkeztu beharreko lanak ezberdinak izanik, sari kopurua ere ezberdina izango da: gaztetxoenen kategorian bost sari emango dira eta nagusienean, hiru. Saridun guztiek ikasmaterialetan gastatzeko txartelak eta bertsolaritzarekin lotutako sari sorpresa jasoko dituzte.

Sari banaketa 18:00etan hasiko da eta amaieran merienda egongo da han batzen diren guztiendako.

## Euskal Herriko gaztetxeen topaketarako dena gertu

O.E. | OÑATI

Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketa egingo da Oñatin otsailaren 19tik 21era, eta anfitrioiak, Antixena gaztetxeak, dagoeneko prest du egitaraua. Sare sozialen bitartez zabaldu duten moduan, mahai-inguruak, kontzertuak, manifestazioak, tailerrak, eztabaidak, bazkaria eta jaialdia antolatu dituzte, besteak beste. Antolatutako ekintza gehienak gaztetxean bertan izango dira eta kanpotik datozenek aukera izango dute asteburua bertan pasatzeko. Horretarako asmoa duenak, baina, berak eroan behar ditu lotarako beharrezkoak dituen gauzak.

**Hiru egun**

Otsailaren 19ko arratsalderako antolatu dituzte topaketako lehen ekitaldiak: mahai-ingurua, dokumental emanaldia eta kontzertua. Zapatuan egingo dutena da: gai ezberdinen inguruko eztabaidak, bazkaria, erresistentzia tailerrak, manifestazioa eta jaialdia. Domekan, berriz, errepasoa, dena jaso ostean. Kanpotik datozenendako izen-ematea zabalik dute.

## Yolanda Arrieta idazlea dator euskaltegira

O.E. | OÑATI

Yolanda Arrieta idazlea dator udal euskaltegira datorren astean. Hilaren 28an, eguena, etorriko da, 18:00etan.

Markina-Xemeingo idazleak 2015ean Euskadi literatura saria irabazi zuen, gazte literatura arloan, Oñatin aurkeztuko duen *Argiaren alaba* liburuarekin. Bizenta Mogel idazlearen bizitza kontatzen du Arrietak liburu honetan, eta literatura klasikora hurbiltzeko aukera eskainiko du. Hitzaldi irekia izango da.



Aiastui baserrira joateko bidegurutzean egin dute pasabidea | MIREIA BIKUÑA

# Olabarrietatik Murgiara joateko lurpeko pasabidea pozik hartu dute erabiltzaileek

Udana portuaren hasieran egin dute GI-2630 errepidea alderik alde lur azpitik zeharkatzen duen bidea; argi puntua jartzea falta da bakarrik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko Olabarrieta eta Murgia auzoak batzen dituen bidearen pasabidea gertu dute erabiltzaileek. Udana portuaren hasieran egin dituzte GI-2630 errepidea alderik alde zeharkatzen duen lurpeko pasabideko lanak, Aiastui baserrira joateko bidegurutzean. Oñatiko Egaralur eraikuntza enpresak egin ditu lanak.

Aurretik Madalena auzoan egin zuten moduan, oinezkoen segurtasuna bermatzeko, errepide azpitik egin dute pasabidea. Lanak bukatuta daude eta pasabidea erabilgarri; egiteko gelditzen dena da argi puntua jartzea.

Olabarrieta eta Murgia arteko buelta ematen zuten oinezkoak eta txirrindulariak errepide gainetik pasatzen ziren lehen auzo batetik bestera. Orain, aldiz, pasabideko lanak bukatuta, arrisku barik ibili daitezke. Eta hori igartzen dela adierazi dute ibilbide hori sarritan egiten duten herritarrek. "Lehen, errepidea zeharkatu behar genuen, eta orain, istripuak izateko arrisku gutxiago dago, bai", zioen bide hori maiz egiten duen herritar batek. Bidegorria egiteko lanak erabat bukatzen dituztenean "ibiltzeko oso bide erosoa, lasaia eta polita" izango dela gaineratu du.

DATUA

**800**

METRO

Ugarkalde eta Olabarrieta auzoak lotuko dituen bidegorriak 800 metro luze eta hiru metro zabal izango ditu.

### Bidegorria

Bestalde, Ugarkalde eta Olabarrieta lotuko dituen bidegorriko lanak bukatzear daude. Zornotzako Gabika enpresak dihardu lanak egiten. Lurra asfaltatu eta autoendako eremua eta bidegorria bananduko dituen hesia ipintzea falta da.

### San Lorentzon

Bidegorri sarea lotzeko, baina, oraindik falta da zatitxo bat, San Lorentzo auzoko zatia, hain zuzen ere. Bidegorri zati horrek kaletik datorren bidegorria Olabarrietara doanarekin lotuko du, sare nagusia osatuz. Bada, zati hori egiteko behar den dirua aurtengo aurrekontuetan jaso du udalak. Hala, 230.000 euro daude gordeta San Lorentzoko bidegorri zati hori egiteko. Lan horiek egiten noiz hasiko diren, baina, zehaztu gabe dago oraindik.

# Iñigo Astizekin izan dira berbetan

Iñigo Astiz kazetari eta idazlearen *Baita hondakinak ere* liburua irakurri dute udal liburutegiko euskarazko Tertulixan irakurketa taldeko kideek eta egilearekin berarekin partekatu ahal izan dituzte euren kezkak. Danele Sarriugartek dinamizatu zuen tertulia eguaztenean udal liburutegian bertan.



MAITE TXINTXURRETA

# FITUR azokan dira Arrikrutz eta turismo bulegoko ordezkariak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Eguaztenean hasi eta domeka arte Madrilen egiten ari diren nazioarteko FITUR turismo azokan dira Arrikrutz kobak eta Oñatiko turismoa kudeatzen dituen Oinatur kooperatibako ordezkariak, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziarekin batera. Turismo arloan tendentzia berriak ikustea eta Oñatiko eskaintza turistikoa bisitan etorri daitezkeen bezero potentzialei gerturatzeko joan dira aurten ere Oñatitik Madrilera. Azokan egongo diren enpresa ezberdinekin lotu dituzte bilerak Oñatiko ordezkariek, hemengo eskaintza beste herrialde batzuetan ere zabaltzeko.

### 31.146 bisitari

Bestalde, 31.146 bisitari igaro dira 2015. urtean Oñatiko turismo bulegotik eta Arrikrutzeko kobetatik, eta datuei begiratuta "urte oparoa" izan dela adierazi dute Oinaturko langileek. Horietatik 24.046 bisitarik bi guneetan programatutako zerbitzu eta bisita gidatuetan hartu dute parte. 2016ko lehen bisitak ere egin dituzte.

Arrikrutzi dagokionez, urtarrilean eta otsailean ere bisitatu daitezke kobak, baina aurretik egin behar da erreserba, bai aste barruko talde erreserbak baita aste bukaerako bisitak ere. Hango telefonoa da: 943 08 20 00.



Saguzarren gaineko bisita. | O.E.

## Urgain Errekalde eta Zuazola-Larrañako ikasleek mugikortasun martxa antolatu dute gaur goizerako

*Mugikortasuna eta osasuna* gaia jorratuko dute Urgainen, Agenda 21 proiektuaren barruan, eta gaur, egubakoitza, goizean. Guztira 216 lagunek hartuko dute parte eta bi ibilbide egingo dituzte, bizikletaz, patinetez, patinetan edo oinez. 11:15ean Foruen plazan elkartuko dira guztiak eta ekimenaren aldeko kartelak erakutsi, bertsoak bota eta argazkiak aterako dituzte.

## Herriko hiru ikastetxeetako gelak eta proiektu pedagogikoak ezagutzeko aukera dago asteburuan

Ate irekien jardunaldiak egingo dituzte hiru ikastetxeetan asteburu honetan. Gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolako gelak zabalduko dituzte, 17:00etatik 19:00etara; ipuin kontaketa ere egongo da. Bihar, zapatua, Urgaingoak zabalduko dituzte, 17:00etatik 1900etara; tailerrak eta txokolatea izango da guztiendako. Elkar Hezin domekan egingo dute, 11:00etan eta 11:30ean.

## La Otra abeslari madrildarraren doinuak entzungo dira gaur gaztetxean, eta bihar punk musika

La Otra bakarlari madrildarrak joko du gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean. 22:30ean hasiko da zuzeneko kontzertua, eta sarrera hiru euro da. Bihar, zapatua, berriz, punk gaua egingo dute toki berean. 21:00etan hasiko da ospakizuna eta joko duten taldeak dira: El Exterminio de la Raza del Mono, Las Tuercas eta Oldarkort.

## 'Argiaren hotsa' ikuskizunerako eta 'Txanogorritxo' antzezlanerako sarrerak salgai daude dagoeneko

Bi emanaldi daude iragarrita urtarrilaren 31rako eta bietarako sarrerak salgai daude. 17:00etan, Santa Anan, *Txanogorritxo* antzezlana egongo da, eta *bibe.me* helbidean daude sarrerak 3,50 eurotan. 19:00etan, berriz, parrokian, Ganbarako abesbatzek eta Andoni Salamerok prestatuko *Argiaren Hotsa* ikuskizuna egongo da. Sarrerak sarean eta Txokolateixian eros daitezke, 10 eurotan.

# Iritziak ezagututa, herritarrek dute berba

- Zeresana duten alde guztien ikuspuntua jaso du GOIENAk
- 5.693 aretxabaletarrek dute botoa emateko eskubidea galdeketan

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Bergarako eta Eskoriatzako galdeketen ostean Aretxabaletakoa dator: domekan, urtarrilaren 24an da, hain zuzen ere. Hondakinen bilketa sistemaren gaineko herri galdeketa udal ordezkari guztien artean adostuta egitea erabaki dute Aretxabaletan, eta, alderdi bakoitzak bere iritzia izan arren, giro lasaia izan da prozesu guztian. Herritarrei argibideak eman eta alderdien iritziak jasotzeko asmoarekin, tartea eskaini die GOIENAk guztiei; aurreko agintaldian alkatetzan egon zen eta, ondorioz, orain dagoen sistema ipintzeko ardura izan zuen EH Bilduri, alde batetik, eta gaur egun agintean dagoen alkateari, bestetik, galdera berak eginda. Eta hitza izan dute udalbatza osatzen duten Irabaziko eta PSE-EEko ordezkariek.



**UNAI ELKORO**
ALKATEA

**1.** "Dauzkagun aukeretan oinarrituta, gure iritziz, hondakin bilketa sistemarik egokiena bosgarren edukiontzi bidezko sistema da. Erosoagoa, garbiagoa eta merkeagoa da; hitz batean, efizienteagoa".

**2.** "Arrasateko eta Elgetako esperientziek agerian utzi dute posible dela gure helburu den %80tik gorako bereizte tasak lortzea bilketan. Hori kontuan izanik, ukaezina da egunero hondakinak atera ahal izateak dauzkan abantailak; ez hori bakarrik: zaborra jaistean ez dugu zabor mota bat bakarrik jaitsi beharko.

Garbitasun aldetik, kuboak ez ditugu haizearen menpe utziko; haizetea dagoen bakoitzean herriko kantoi guztiak kuboz beteak ikustea eta herritarrak alde batetik bestera kubo bila ikustea tamalgarria da.

Kostu aldetik ere nabarmen merkeagoa da; kontuan izan behar da bilketa kontratuan Aretxabaletan atez atekoa ezartzeak urteko ia 270.000 euroko igoera ekarri zuela, eta, Debagoien osoa kontuan hartzen badugu, hirukoiztu egin da, miloi bat pasatxotik hiru milioitik gora. Pentsa zenbat gauza egin daitezkeen kopuru horrekin!".

**3.** "Berriz ere bosgarren edukiontzi bidezko sistemak, eta onurak aurreko galderetan arrazoitutakoak. Erosotasuna, alde batetik. Etxe guztiak ez dira berdinak; gurean, errefusa hilean behin aterata nahiko izaten dugu, baina ontzi arinak, adibidez, ez. Organikoa ez da berdina sei kideko etxe batean egunero etxean bazkalduta edo bi kide izanda eta kanpoan bazkaltzen dutenak, baina biek kubo bera daukate. Trafiko aldetik ere nabarituko da: atez atekoa ezartzen hasi aurretik sei kamioi zeuden Mankomunitatean; orain, hiru aldiz gehiago dabiltza kalean bueltaka. Atera kontuak".

**4.** "Bilketa mailaren arabera neurri ezberdinak hartuko ditugu: %75etik beherakoa bada, ikuskapenak eta kontzientziazio kanpaina bereziak; eta %70etik behera jaitsiko balitz, hau da, gutxienekotzat adostu duguna, neurri zorrotzagoak: informazio banaketak, ikuskapen zorrotzagoak, edukiontzien ordutegi irekiera murrizketak... Horren beharrik ez izatea espero dugu.

Helburuak lortzeko ezinbestekoa da kontzientziazioa, etxean zaborrak ongi bereizteak gero tratamenduan nabarmen eragiten baitu. Baina kontzientziazioaz gain, adostasuna ere ezinbestekoa da eta Aretxabaletan pauso handia eman dugu bide horretan. Liskarra nagusi denean, edozein delarik bilketa sistema, emaitzak okerragoak direla nabarmena baita. Ea aurreko legealdian izandako zaborren iskanbilak gaindituttzat ematea lortzen dugun bai bilketan eta baita tratamenduan ere, Gipuzkoa mailan oraindik berdintsu gabiltza eta.

Azkenik, Aretxabaletako herritarrak igandean galdeketan parte hartzera animatu nahi nituzke, beraien iritzia emateko aukera aprobetxatuz".



**XABIER IGARTUA**
EH BILDU

**1.** "Sistemak baliabideak besterik ez da. Larregi zentratu gara sistemen arteko leian. Guri, politikariei, helburuak finkatzea dagokigu, eta ez teknikarien terrenoan sartzea. Helburu horiek (%80ko sailkatze tasa) betetzen dituzten sistema bi daude gaur egun. Horregatik, aukeran ematen diren bi sistemak egokiak dira jarritako helburuak bete-



## Azken urteotako bilketa sistema aplikatu dutenei eta aldaketa proposatzen dutenei galderak

**1.** Hondakin bilketa sistemarik egokiena zein izango litzateke?

**2.** Zertan arrazoitzen duzue zuek egindako hautaketa?

**3.** Herritarrendako onura handiena ekarriko duena, zein da?

**4.** Helburuak betetzen ez baditu, zer gertatuko da?

tzeko, biak derrigorrezko eta banakakoak baitira. Politikoki ez du zentzurik bataren edo bestearen alde egitea. Beste gauza bat izango litzateke zein den eraginkorrena galderari erantzutea: hor inork ez du dudan jartzen, eta datuek atez atekoa dela esaten dute. Dena dela, sistema bakoitzak bere alde onak ditu: derrigorrezko bosgarren edukiontziarekin bilketa errazagoa da, edukiontziak kapazitate handiagoa du eta egutegi malguagoa; atez atekoaren alde: birziklatze/sailkatze datu hobeak lortzen dituela, kontrol handiagoa duela eta garatzeko aukera handiagoak dituela".

**2.** "Aipatutakoa posiblea izateko bi baldintza bete beharko lirateke: lehena, alderdi politikoen artean akordio bat egotea oinarriak finkatzeko (helburuak, neurri zuzentzaileak…). Aretxabaletan lortu da. Bigarrenik, eta herritarrek aukeratu dezaten, sistema batek baino gehiagok bete behar dituzte zehaztutako helburuak (parekotasuna izan behar dute proposamen ezberdinek). Orain dela bi urte, ez zegoen ez alderdien arteko akordiorik ezta sistemen parekotasunik, eta atez atekoak bakarrik betetzen zuen helburuak lortzeko premisa. Gaur egun, aldiz, badaude esperientzia ezberdinak hori posible egiten dutenak. Beraz, orain bai, herritarrei dagokie aukeratzea".

**3.** "Bailara mailan %80 inguruko biltze tasan gaude, Gipuzkoako altuenak. Denon artean lortu dugu hondakinak baliabide bihurtzea eta ez zaborra. Horrek onura handiak dakartza bai ekonomiarekiko eta bai ingurumenarekiko. Aukeran dagoen edozein sistemarekin gure errefusa %20tik behera mantentzea lortzen da. Errefusa kantitate txiki horrentzako Debagoienean ez dugu errauskailurik behar. Eta hemen lortu ditugun onura horiek, zergatik ez Gipuzkoa osora zabaldu? Gipuzkoako beste udalerriek aukeran dute gaur egun Arrasateko edo Aretxabaletako eredua. Ez dago aitzakiarik. Hemen lortu ditugun onurak Gipuzkoa osora zabalduko genituzke, errauskailuaren proiektua deuseztatuz".

**4.** "Udalak banatutako triptikoan oso ondo azaltzen da. Neurri zuzentzaile zehatz batzuk adostuta daude eta %75etik behera neurri horiek martxan jarriko dira. Sistema kolokan jarriko litzateke datuak %70etik behera jaitsiz gero. Seguru gaude hori ez dela pasatuko. Denon konpromisoa zintzoa dela uste dugu, herritarrena ere bai. Gaur egun, %83an gaudela ikusita, gure helburua hori gainditzea da. Ahalik eta zabor gutxien sortzea. Gure hondakinak eta gure zaborra era arduratsu eta osasuntsuan kudeatu behar ditugu".

## Udalean ordezkaritza duten gainerako alderdien iritzia

**LUIS MARIANO GOMEZ**
IRABAZI

"Domekan, lehenengoz, herri galdeketa batean hartuko dugu parte: gaikako hondakin bilketa sistema aukeratuko dugu Aretxabaletarako. Irabazirendako garrantzitsua da, bi arrazoirengatik: batetik, hainbestetan aldarrikatutako legez, erabakiak herritarrek hartuko dituzte; eta bestetik, atzean utziko dugu orain urte batzuek %30eko portzentajearekin birziklatu beharra zegoen edo ez planteatzen zen eztabaida.

Udal ordezkarien jarrera ona da eta aho batez adostu eta onartu dira galdeketa arautzen duten baldintzak, eta, edozein izanda ere aukeratutako sistema, bermatuko da %80tik gora dagoen egungo birziklatze portzentajea ez jaistea. Hori hala da aretxabaletar guztien erantzukizunari esker; horretan bai gaude Europako gorenean.

Baina zalantzak ere baditugu: baliabide gehiagotan inbertitu behar da, lanpostuak arriskuan jarri, ingurumena, portzentaje horiek lortzeko konpromisoa hartu ez duten lekuetan erraustegia eraiki beharra dagoela pentsa dezaketelako. Herritarrak iritzia ematera gonbidatzen ditu Irabazik. Guztion artean Aretxabaletarako onena aukeratuko dugu".

**MIREN LOREA LANA**
PSE-EE

"Aretxabaletako PSE-EEko alderdiak babesa agertu dio galdeketari, baina argitu gura du sozialistengatik balitz honezkero kenduta legokeela atez atekoa.

Sozialistok beti egon gara negoziatzeko gertu, herritarrek argi eta garbi esaten zigutelako ez zutela gura atez ateko sistema. Zikinagoa da atez atekoa, deserosoa, ez da osasuntsua eta %20 garestiagoa; baina, gainera, aretxabaletarrak inposizioaren aurka mugitu ziren. Birziklatzea bai, baina beste sistema batekin –kostuak igo barik, erosoagoa, garbiagoa eta edukiontzi itxi bidezkoa– gura zuten 1.700 sinadura baino gehiago jaso ziren.

Galdeketan PSE-EEk atez atekoa kentzea defendatuko du, eta edukiontzi bidezko sistemaren alde apustu egin. Era berean, birziklatzearen beharrarekin kontzientziatzeko herritarrekin lan egitearen alde agertu gara, baina inposiziorik gabe. Seguru gaude kontzientziazioa batetik eta erosotasuna bestetik giltza izango direla gaikako bilketak izango duen igoeran. Galdeketan parte hartzera dei egiten diegu herritarrei eta edukiontzien sistemaren alde bozka dezatela".



HONDAKINEN BILKETA SISTEMARI BURUZKO HERRI GALDEKETA

## "Bosgarrenaren aldeko botoa" eskatu du EAJk

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako EAJk uste du atez ateko sistemaren "aurkako jarrera" erakutsi zutela herritar gehienek hori jarri zutenean herrian, eta kontsulta loteslea eskatu zutela orduan bosgarren edukiontziaren aldeko plataformaren bitartez. Kontsultaren eskaera 1.700 sinadurak babestu zutela gaineratu dute EAJkoek prentsa-ohar bidez, baina aurreko agintaldiko Udalak ez ziela "jaramonik egin", herritarren borondatea mespretxatuz.

Hala, hauteskunde programan zehaztutako moduan, kontsulta abian jarri dutela orain diote. Horregatik, aretxabaletarrak gonbidatu dituzte bozketan parte hartzera: "Botoaren bitartez egungo zabor-bilketa sistema zuzendu eta bosgarren edukiontzia jarri ahal izateko". Atez atekoa jarri zenetik "desordenaz eta kudeaketa arazo ugariz" konturatzeko denbora egon dela gaineratu dute, eta Aretxabaletak bosgarren edukiontziaren sistemarekin "%26,66 aurreztuko" lukeela.

## EH Bilduk bi aukerak ikusten ditu "begi onez"

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako EH Bilduk jakinarazi du "%80tik gorako birziklatze tasekin jarraitzea" dela bidea, hor dagoela euren "iparra". Berretsi dute sistemaren gainetik emaitzak direla garrantzitsuena: "Hondakinak zabor bihurtzea onartezina da, kutsatzea kaltetzea baita, besteen eskubideak urratzea", adierazi zuen Xabier Igartua zinegotziak martitzenean egindako prentsaurrekoan. Horregatik, bi sistemak, atez atekoa zein bosgarren edukiontzia, begi onez ikusten dituzte.

EH Bilduren arabera, gaur egun frogatu da, Arrasateko ereduarekin, besteak beste, sistema batek baino gehiagok lortu duela adostutako emaitzak ematea. Hori horrela, Udaleko talde guztiek %80tik gora selektiboki biltzea jarri dute helburu.

Era berean, orain arte atez ateko sistemarekin Aretxabaletan lortutako %80tik gorako emaitzak direla-eta "herritarrak zoriondu" gura izan ditu koalizioak.

# Domekako galdeketak erabakiko du sistema

Kurtzebarri eskolako gimnasioan jarriko dituzten hautetsontzietara bost mila lagunetik gora daude deituta

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Domekan, urtarrilaren 24an, daude deituta herritarrak hiri hondakinen bilketa sistema aukeratzeko. Aretxabaletan erroldatutako 18 urtetik gorakoek eman dezakete botoa; guztira, 5.693 lagunek. Hala ere, horietako hainbat, asko erretiratuak, dagoeneko pasatu dira udaletxetik aurrez botoa ematera; 792, hain zuzen ere.

Hautetsontziak, lau mahaitan banatuta, Kurtzebarri eskolako gimnasioan jarriko dituzte; hortaz, kantxa aldera ematen duen atetik sartu beharko da. Gainerako hauteskundeetan izan ohi den ordutegia egongo da bozkatzeko: 09:00etatik 20:00etara.

**Galdera bakarra**

Galdera bakarrari erantzungo diote herritarrek; honako honi: *Aretxabaletako udalerrian, zein uste duzu dela hondakinak selektiboki biltzeko sistemarik egokiena?* Proposatutako sistemak bi dira eta bakoitzeko boto-orri bana izango dute aukeratu eta kartazalean sartzeko; bata atez atekoarentzat (gaur egungo bilketa sistema) eta bestea bosgarren edukiontziarentzat (edukiontzien bidez gaikako bilketa, organikoarenak eta errefusarenak txipa izanik).

DATUA

**792**

BOTO

Astebete izan dute herritarrek aurretik bozkatzeko eta atzo eguerdira bitartean 792 lagunek zuten botoa emanda.

**%80tik gora jasotzea**

Udalean ordezkaritza duten alderdi guztien artean adostu dituzte galdeketaren nondik norakoak, ondorioz, ez da sortu galdeketa egin duten beste herrietan, Bergaran eta Eskoriatzan, izandako zalapartarik.

Etxerik etxe banatutako argibide-orri bidez jaso dute informazioa herritarrek, eta helburua zein den zehaztu diete Udal ordezkariek, edozein sistema izanda ere irabazlea: selektiboki %80tik gora biltzea. Hori bai, gutxienez %70 sailkatu beharko da; emaitza horiek lortu ezean neurriak hartuko direla bilketa hobetzeko jakinarazi dute.

Era berean, Udalak botoa ematera gonbidatu ditu aretxabaletarrak, eta zera esan du: "Guztion artean erabakitako sistema da udalerri osoan ezarriko duguna".

# Irabaziko ordezkaria ere izango da Udal Gobernu batzordeko kide aurrerantzean

Luis Mariano Gomez pozik agertu da gainerako alderdietako kideekin batera egongo delako

**M.A.** | ARETXABALETA

Udalbatzak astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran, Unai Elkoro alkateak jakinarazi zuen Irabazik ere izango duela lekua Udal Gobernu batzordean. Agintaldia hasi zutenetik, EAJko hiru kide, PSE-EEkoa eta EH Bilduko bat elkartzen dira, eta, orain, Luis Mariano Gomez zinegotzia ere egongo da. Botorik ez du izango hark batzordean, baina ahotsa bai.

Pozik azaldu zen Gomez emandako aukerarekin: "Oso pozik gaude, hasieratik eskatu genuelako hori; izan ere, Irabazi kanpoan geratu zen eta lehenengo osoko bilkuran bertan egin genuen eskaera. Azkenean, alkateak erabaki du Irabazik ere parte har dezakeela, eta eskertzen diogu gurekin ere kontatu izana".

**Olatz Bengoa, bake epaile**

Bestalde, idazkariak jakinarazi zuen bake epaile izateko deialdira lagun bakarra aurkeztu dela: oraingo bake epailearen ordezko Olatz Bengoa aretxabaletarra, hain zuzen ere. Udalbatzako kideek ez zuten eragozpenik ikusi haren izendapena proposatzeko Euskadiko Auzitegi Nagusiari, eta aho batez onartu zuten. Hala, datozen lau urteotan izango da Aretxabaletako bake epaile Bengoa, eta ordezko kargua hutsik geratuko da, ez delako beste inor aurkeztu.

Eskoriatzako Udalarekin hitzarmena sinatzea ere aho batez onartu zuten udalbatzako kideek, datozen bi urteotan Eskola Agenda 21i dagokion lana egiten jarrai dezan horrek Aretxabaletako ikastetxeetan.

## Lexuri Doyague arrasatearraren kartela gertu dago Aratusteak iragartzeko aretxabaletarrei

Herri bazkarirako txartelak astelehenean jarriko dituzte salgai Kultura Saileko bulegoan

**M.A.** | ARETXABALETA

Kultura Sailak izendatutako epaimahaiak aukeratu du Aratusteak iragarriko dituen kartela. Lexuri Doyague arrasatearrak egindakoa da, koloretsua eta alaia. Guztira hiru kartel aurkeztu dituzte eta Doyaguerena izango da aretxabaletarrei Aratusteak iragarriko diena. Trukean 200 euro jaso ditu hark.



**2016ko kartela.** | LEXURI DOYAGUE

**Aratuste-domekako bazkaria**

Bestetik, astelehenean, hilak 25, jarriko dituzte salgai Aratuste-domekako bazkarirako txartelak. Orain arte legez, kuadrillaka hartu behar dira txartelok Kultura Sailaren bulegoan (Arkupeko bigarren solairuan), eta ordutegia da 09:00etatik 14:30era. Helduen bazkariaren prezioa 16 euro da, eta menua honako hau: paella berezia; txerri-masailak saltsan; goxua; eta kafea eta infusioak. Umeen menuak, ostera, 12 euroko prezioa du, eta honako hau izango dute: makarroiak tomatearekin eta gaztarekin; hanburgesak saltsan patatekin; eta izozkia. Azken urteotan legez, Ibarra kiroldegian izango da herri bazkaria.

Eta, hori iritsi bitartean, kuadrillek mozorroak eta muntaiak gertatzen jarraitzen dute. Dagoeneko hamar kuadrilla elkartzen dira Azbe lantegia izandako eraikinean, eta, besteren batek gura izanez gero, Arkupeko harreran eskatu behar du hango giltza. Horretarako, arduradun bat izendatu behar du kuadrillak, arauak onartu eta 20 euroko fidantza ordaindu.

## Psikomotrizitatearen gaineko hitzaldia dago Kuku Mikun

*Haur txikien psikomotrizitatea. Mugitzeko askatasunean hazi* hitzaldia antolatu du Kuku Miku elkarteak. Fisioterapeuta pediatriko eta psikomotrizista Maier Etxebarria aretxabaletarrak emango ditu argibideak, eta elkarteko kideek jakinarazi dute batez ere hamazortzi hilabete arteko umeak dituzten gurasoei eta aitaita-amamei zuzendutako saioa dela. Datorren martitzenean izango da hori, urtarrilak 26, 18:00etan, Kuku Mikuren egoitzan.

## OHARRAK

**IPUIN KONTAKETA LIBURUTEGIAN**

Dorleta Kortazar ipuin kontalari eskoriatzarrak *Zu eta Ni* saioa eskainiko die neska-mutikoei bihar, zapatua, 11:30ean, liburutegian.

**'EL PUENTE DE LOS ESPÍAS' FILMA**

Helduek *El puente de los espías* (AEB, 2015, 150 minutu) filma izango dute gaur, egubakoitza (22:00), eta astelehenean (16:00). Umeendako zinemarik ez da izango aste bukaeran.

# Aretxabaletako frontenis txapelketa hirugarren urtez egingo dute aurten

## Urtarrilaren 30etik martxoaren 6ra bitartean izango da, zapatuetan eta domeketan, Iturrigorri frontoian

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Aurten hiru urte beteko ditu UDAk antolatzen duen emakumezkoen frontenis txapelketak. Arrakastatsua izan da aurreko bi edizioetan, eta aurten ere parte-hartze handia espero dute antolatzaileek. Izen-ematea astelehenetik –urtarrilaren 25a– aurrera egin ahal izango da eta txapelketa urtarrilaren 30etik martxoaren 6ra bitartean jokatuko da, zapatuetan eta domeketan, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan. Parte hartu nahi duenak hamar euro ordaindu beharko ditu, bikoteko, lehen partiduan.

Txapelketa honen helburua emakumeak eta kirolak batzea dela azaldu du Agurtzane Elkoro UDAko presidenteak, eta aurreko urteetan izandako arrakasta mantendu edo handitu gura dutela. "Aretxabaletan emakumeak batzen dituen kirol nagusia da frontenisa, eta, iaz hamasei bikotek parte hartuta, aurten hogei bikotera heltzea ondo legoke".

**Sari bikainak irabazleentzat**

Finala martxoaren 6an jokatuko da, emakumeen egunari keinua eginez. Bestalde, sari bikainak izango dira: lehen bikoteak bertako produktuz osatutako saskia eta 100 euroko bonua jasoko ditu; bigarrenak, aldiz, 100 euroko bonua jasoko du; eta parte-hartzaile guztiek kamiseta bana jasoko dute oroigarri gisa.

Izena eman nahi duenak *emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com* helbidera idatzi behar du.



Iaz jokatutako frontenis txapelketako momentu bat. | UDA

**OIHANA MATA** | ANTOLATZAILEA

### "Partaidetza handitzea da asmoa"



MIRARI ALTUBE

Oihana Mata aretxabaletarrak frontenis txapelketa antolatzeko ardura izaten du urtero.

**Aurten hiru urte beteko ditu txapelketak; izen-emate ugari egon dira?**

Dagoeneko 11 bikotek eman dute izena, eta partaidetza handitzea da gure asmoa, giro handiagoa egon dadin.

**Ba al da berritasunik aurten?**

Iazko sistema berbera izango du txapelketak. Hori bai, kamisetak atera ditugu partaide guztientzat.

**Finala Emakumeen Egunaren bueltan egingo duzue; zer dela eta?**

Martxoaren 5ean eta 6an izango dira Emakumeen Eguneko ekintza gehienak herrian, eta, horregatik, finala aste bukaera horretan egitea pentsatu dugu.

**Frontenisak eta emakumeek lotura handia dute herrian?**

Bai; emakume talde bat dago herrian, ea txapelketa noiz egingo dugun galdetzen, eta horrek asko laguntzen du.

NIRE USTEZ



YERA SANCHEZ

## Aretxabaletako Krokodiloa

Badira hilabete batzuk Aretxabaletan krokodilo bat agertu zela. Narrasti berdea isil-isilik heldu zen herrira eta bertan laster aurkitu zuen bere txokoa; hain zuzen ere, herriko horma zuri bat, Durana kaleak eta Basabe bideak bat egiten duten gurutzagunean dagoena.

Ordutik hortxe dago, goxo-goxo etzanda eta 7 metro luze. Egia esateko, xarma berezia ematen dio eraikin ertz horri; hau da, pintura galduta duen pareta erdi pitzatu horri. Zera, hormaren erliebearekin bat egiten du, krokodiloek nolabait ere kamuflatzeko izan ohi duten gaitasunak eraginda edo...

Nondik etorri den ez dakigu, baina gustura dago gurean, zalantzarik ez dago. Gogoan dut lehenengoz ikusi nuen hura, sekulako poza hartu nuen; liluratu egin ninduen zeharo. Halatan, lau haizetara zabaldu nuen lagunen artean nire aurkikuntza. Ordea, berehala jakin nuenez, ordurako herritar gehienek bazuten krokodiloaren berri, eta oso pozik zeuden gainera bizilagun berriarekin.

Esanak esan, nik ez dakit Debagoieneko beste herrietan baduzuen horrelako lagun berezirik, ez dakit gurea kasu isolatua den, eta ez dakit zergatik eta zertara etorri den gurea Aretxabaletara, baina gera dadila luzarorako. Izenik jartzen ez diogun artean, "Krokodilo" esango diot: Ongi etorri, Krokodilo!

**"Zera, hormaren erliebearekin bat egiten du"**

## Irakurketa klubean izena emateko epea astelehena arte

**M.A.** | ARETXABALETA

Irakurketa kluba antolatu dute haur liburutegian 3 eta 5 urte arteko neska-mutikoendako eta horien gurasoendako. *Bularretik mintzora* egitasmoaren barruan dago eta hiru saio egingo dituzte (17:00etan): urtarrilaren 26an, otsailaren 16an eta martxoaren 15an. Izena aurrez eman behar da haur liburutegian, eta, horretarako, epea luzatu egin dute astelehena arte. Interesatuak hara joan daitezke, telefonoz deitu (943 08 10 01) edo mezu bat bidali helbide elektronikora: *haurliburutegia@aretxabaleta.net*.

**Dinamizatzailearekin saioa**

Gurasoak eta haurrak liburutegira elkarrekin joateko helburuarekin antolatu dute irakurketa kluba, eta Galtzagorri elkarteko dinamizatzaile batek zuzendutako irakurketa saioak egingo dituzte. Hori horrela, honako asmo hauek zehaztu dituzte *Bularretik mintzora* egitasmoko kideek: irakurketa sustatu; kalitatezko euskal bibliografia ezagutu; gurasoen (hezitzaile) eta haurren arteko irakurketa giroa sortu; gurasoak (hezitzaileak) ozenki irakurtzen trebatu; eta haurrek giro lasaian gozatzera bideratu.





MIRARI ALTUBE

## Herriko neska-mutiko guztiek astindu dituzte danborrak

Danbor hotsez bete dira egunotan herriko bazterrak; izan ere, 2 eta 8 urte arteko neska-mutiko gehienek astindu dituzte horiek San Sebastianen omenez. Arizmendi Ikastolako Basabeazpikoak martitzen goizean elkartu ziren eta Kurtzebarri eskolakoak eguazten arratsaldean; Pausoka haur eskolakoek ere ez zuten hutsik egin. Eguraldia lagun, gustura jarraitu zieten Sarriegiren doinuei guztiek, eta gurasoak eta aitaita-amamak pozik elkartu ziren haien inguruan.

## Erretiratuak Tolosako Inauterietara doaz

**M.A.** | ARETXABALETA

Aurten ere joango dira Basotxo erretiratuen elkarteko kideak Tolosako Inauterietara; otsailaren 9an izango da, Inauteri-martitzena. 10:00etan irtengo dira Azbe lantegi alboko geltokitik, eta, goiza Tolosan pasatu ondoren, Urnietako Oianume sagardotegian bazkalduko dute. Izena emateko Basotxoko bulegotik pasatu beharra dago (11:00-12:00); prezioa da 36 euro bazkideendako eta 46 euro gainerakoendako. Basotxoko kideek jakinarazi dute bigarren autobusa betetzen dabiltzala.

# Domekan erabakiko da zein bikote den mus txapelduna

## Arin jatetxean 16:30ean jokatuko da Antzuolako txapelketako finala

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Oso balorazio positiboa egin du Antzuolako mus txapelketako antolatzaile Jesus Kortabarria *Kaxeta*-k: "38 bikotek parte hartu dute aurten txapelketan, eta oso pozik gaude, jende asko gerturatu delako musean jokatzera. Giro eta parte-hartze bikaina izan dugu eta finalean ere giro berbera izatea espero dugu". Herriko mus txapelketako finala 16:30ean Arin jatetxean jokatuko da domekan. Eta irabazleak Euskal Herriko mus txapelketan lehiatuko dira, hain justu ere.



Ongietorri jatetxean jokatu zen zapatuan kanporaketetako bat. | IMANOL SORIANO

### Finaleko bikoteak

Zortzi bikotek neurtuko dute euren jokorako abilezia domeka arratsaldean Arin jatetxean. Txarli-Supi, Ibai-Julian, Beko-Asier, Gotzon-Xabi, Serafin-Anselmo, Ibon-Kepa, Kepi -Txini eta Andoni-Mikel dira finalistak.

### Euskal Herriko txapelketa

Herriko finala irabazten duen bikoteak Euskal Herriko txapelketa izango du erronka.

Final nagusia, aldiz, Urdiñarben, Zuberoan, jokatuko da martxoaren 5ean. Eta zazpi herrialdetako finalak otsailaren 20an jokatuko dituzte herrietan sailkatu diren ordezkariek.

# Legegintzaldia "motza eta gogorra" izango dela sumatu du Olabarriak

MIRARI A. / MAIDER. A | ANTZUOLA

Madrilgo Gorteetan zazpi legegintzalditan parlamentari izan den Emilio Olabarriak hitzaldia eskaini zuen Olaranen. EAJko kideek gonbidatuta, hauteskundeen ostean geratu den egoeraren berri ematera etorri zen.

Hogeita hamarren bat lagun elkartu ziren Antzuolako Olaran etxean abenduko hauteskundeek sortutako egoerak Euskadin izango duen eraginaren berri jasotzeko. Horretarako, Madrilgo Gorteak ondo baino hobeto ezagutzen dituen Emilio Olabarria parlamentari ohia gonbidatu zuten. Haren esanetan, oso zaila da jakitea zer etorriko den, estatuko erakundeetan gertatuko denaren baitan dagoelako. Dena den, aurreratu du inbestidurarik egonez gero eta Rajoy izendatuz gero presidente, legegintzaldi "motza eta gogorra" izango dela, "oposizioak gogor egingo" diolako: "Nire susmoa da legegintzaldia, eratzen bada, behintzat, izango dela oso motza, oso gogorra Parlamentuko eztabaidei dagokienez, eta berriro ere Euskadiren interesak baztertuta geratuko direla eta bigarren leku batean". Udazkenean hauteskunde autonomikoak izango dira; Madrilgo egoerak ez duela zertan baldintzatuko hemengoa uste du.



Olabarria, hitzaldikoan. | M.A.

# Oñatiko Ikusi Makusi antzerki taldeak emanaldia egingo du

M. A. | ANTZUOLA

*Hospital o manicomio?* antzezlanak barre algara ederrak eragingo ditu publikoaren artean. Ikusi Makusi Oñatiko erretiratuen taldearen azken lana urtarrilaren 26an, Torresoroan, 18:00etan izango da ikusgai, Landatxopek antolatuta.

### Sinopsia

Gizona bisitatzera ospitalera joan eta gizona falta! Horrela abiatzen da Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteko antzerki taldearen antzezlana. Ospitale batean kokatuta dagoen antzerki pieza da. Ebakuntza-gelan gertatutako mediku akatsak eraginda, gaixo baten familiak ebakuntza horren ardura duten medikuak epaitegietara eraman nahi ditu. Eztabaida, gaizki ulertu eta nahaspila dezenteren ondoren, gaia konponduko da. Horrek batzuen poza eta beste batzuen desengainua sortuko du.

### Internet ikastaroa

Landatxope elkarteak Internet ikastaroa antolatu du otsailerako. Izena urtarrilaren 30era arte eman daiteke. Hamahiru lagunendako lekua bakarrik dago eta bazkideek izango dute izena emateko garaian lehentasuna.




MAIDER ARREGI

# Galdutako gauzen txokoa

"Zerbait galdu duenak udaletxean eduki dezake zain", azaldu dute udaletxeko bulegoko langileek. Izan ere, etxeko zein autoko giltzak, umeen patineteak, txupeteak, erlojuak... daude zintzilik udaletxeko bulegoko mostradore alboan jarritako kortxozko panel handi batean. "Denbora batez edukiko ditugu, baina gero kendu egingo ditugu".

## Beñardo Kortabarria izango da Antzuolako udal ordezkaria Jakionen aurrerantzean

Martitzen iluntzean egin zen ohiko osoko bilkura Antzuolan. Bertan, aho batez onartu zen Beñardo Kortabarria izango dela udal ordezkaria Jakionen. Bestalde, Markel Azkargorta hirigintzako administraria liberatua egongo denez, Arrasateko lan-poltsatik Eider Zabala kontratatzeko erabakia hartu zuten, Azkargorta lanera itzuli bitartean ordezko lanak egin ditzan.

## 'Antzuolan' udal aldizkariaren bigarren zenbakia kalean da urtarrilaren 15a ezkero

Aldizkariaren helburua da Udaleko informazioa herritarrei jakinaraztea. "Udalean egiten ari garenaren berri ematea da asmoa; baita egon daitezkeen asmoak edo arazoen berri ematea ere", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak. *Pdf* formatuan, modu ibiltarian banatuko da *Antzuolan* aldizkaria herritarren eskura. Herriko aldizkaria hilero argitaratuko da.

## Otsailean estreinatuko den 'La Traviata' opera lana ikustera joateko autobuserako izena eman daiteke

Donostiako Kursaalen estreinatuko da otsailaren 21ean *La Traviata* opera lana. Bertara joateko autobusa izango da eta izena otsailaren 16a baino lehen eman behar da udaletxean edo *kultura@antzuola.eus* helbidera mezua idatzita. Kursaaleko webgunean daude sarrerak salgai. Valen Moñux (Antzuolako Hirigintza teknikaria) da operako eszena zuzendaria.

## Urtarrilaren 26an batuko dira baserrietako plastikoak ekarpen-gune ondoan, arratsaldez

Siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen dena, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen dena eta berotegiko plastiko zuria batuko da; ez dira sokak batuko. Hauxe egutegia: otsailak 23, martxoak 22, maiatzak 24, uztailak 26, irailak 27, azaroak 22 eta abenduak 27.

## OHARRAK

**ODOL ATERATZEA**
Hilaren 28an, eguena, odola ateratzeko aukera izango da, 17:00etan, Olaranen.

**ELIKAGAIEN BILKETA**
Saharara bidaltzeko elikagaiak batuko dira urtarrilaren 23ra arte Eroskin, Aixan eta Amaian.

# Aratusteetako bazkarira joateko sarrerak salgai

M.A. | ANTZUOLA

Otsailaren 7an ospatuko dute antzuolarrek Aratuste-domeka. Ohiturari eutsiz, dantzariak goizean hasiko dira kaleak alaitzen, Tximinoa, Hartza eta Hezitzailea lagun dituztela. Herriko Plazako dantzarien saioaren ostean, 14:30ean herri bazkaria izango da pilotalekuan eta bi menu egongo dira aukeran. Txartelak udaletxean eta liburutegian daude salgai. Bazkalostean Irulitza txarangaren saioa izango da –bazkaria antolatzeko boluntarioak, izena ematen duten hamar herritarretik bi izango dira–.

Bestalde, Oinarinek herritarrak dantza egitera animatu gura ditu. Hala, martitzenetan 20:30etik 21:30era egingo dituzte entseguak sorgin dantza eta Luzaideko makil dantza ikasteko.



Herritarren entsegua. | I.I.S.

# Axtrokiko ontziak bueltatzeko eskaera

Bolibar auzoan aurkitu zituzten Kristo aurreko VII–VIII. mendeetako urrezko bi altxorrak, eta Eskoriatzako Udalak berreskuratzeko ahalegina egingo du

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

1972an, Bolibar auzoan dagoen Axtroki harkaitzaren oinean, urrezko bi ontzi aurkitu zituzten lur-jausi baten ondorioz. Errepidea garbitzen ari ziren langileek aurkitu zituzten ontziak. Orduan, Bolibarko On Cruz Abarrategi apaizari eman zizkioten, eta hark, Aranzadi Natur Zientzia Elkarteari. Ondoren, Donostiako San Telmo museora eraman zituzten. Han urtebete egon ondoren, Madrilgo Arkeologia Museo Nazionalera eraman zituzten, eta ordutik hona han daude. Udalak, orain, ontziak Euskal Herrira bueltatzeko eskaera egingo dio Eusko Jaurlaritzari.

Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarretaren esanetan: "Hasiera batean, helburua izango litzateke San Telmo museora berriz ekartzea, baina San Telmokoekin hitz egiten ari gara, aldika Eskoriatzan ere izan ditzagun. Eskoriatzan epe luzerako izatea ez da erraza; izan ere, Ibarraundi museoaren segurtasun neurriak handitu egin beharko lirateke…".



Axtrokiko urrezko ontziak. | IBARRAUNDI MUSEOA

**Turismoa erakartzeko**

Noizean behin urrezko ontziak herrian izanda, eta Atxorrotxeko indusketekin batera, turismoari begira puntu erakargarria dela uste dute alkateak eta Ibarraundiko teknikariek.

Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzari egingo zaio eskaera, eta gero Madrilgo museoarekin hitz egin beharko dute ontziak berreskuratzeko.

**Ontzi bereziak**

Brontze Aroaren amaiera aldera egindakoak dira urrezko ontziak, eta, uste denez, ontzi hauek zeremonia erlijioso edo erritualetan erabiltzen ziren. Alkatearen esanetan: "Bide luzea izango da, eta gu prozesuarekin hasiko gara. Era berean, aldaketa bat espero dugu, Eskoriatzakoa dena Eskoriatzara bueltatzeko, edo, gutxienez, Euskal Herrira ekartzeko.



AMAIA TXINTXURRETA

## Danborradaz gozatzen

Luis Ezeiza herri eskolako gaztetxoek San Sebastian eguna ospatu zuten eguaztenean. 200 ume inguru batu ziren eskola aurreko patioan, eta gustura aritu ziren danborrari jotzen. Amaitzeko, txokolate-jana egin zuten indarrak berreskuratzeko.

## Eskoriatza areto futbol taldeak lehen postuan doan Otxatarbe taldearen aurka jokatuko du zapatuan

Eskoriatza areto futbol taldea Otxatarberen aurka lehiatuko da zapatuan, Txurdinaga kiroldegian, 18:00etan. Bilbotarrak 34 punturekin liderrak dira sailkapenean, eta eskoriatzarrak, berriz, 19 punturekin zortzigarren postuan daude. Aurreko jardunaldian, Eskoriatzak 8-0 irabazi zion Scalibur taldeari, baina Otxatarbe taldekoak ere ez ziren makal ibili; izan ere, 1-13 irabazi zioten Elorrio Buskantza taldeari. Gauzak horrela, lehia bizia izango dute biek aste bukaera honetan.




ARIZMENDI IKASTOLA

## Konfiantzaren pedagogia azalduz

Arizmendi Ikastolak azken urteotan hezkuntza eraldaketan egiten diharduen lana jasotzen duen *Konfiantzaren pedagogia* izeneko liburuak arrakasta izan du Eskoriatzan. Liburuaren aurkezpena Zaldibarren izan zen, eguaztenean, eta Amaia Antero Ikastolako Berrikuntza Pedagogikoko zuzendariak eman zituen azalpenak, besteak beste.

## Euskal Herriko VIII. mus txapelketari zapatuan emango diote hasiera, Eskoriatzan

Euskal Herriko VIII. mus txapelketako lehen kanporaketa Eskoriatzako Inkernu tabernan jokatuko da zapatu honetan, 16:00etan. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dute parte-hartzaileek, eta izen-ematea eta ordainketa egunean bertan egin beharko da. Fase hau irabazten duen bikotea hurrengo fasera pasako da. Ondoren, zazpi herrialdetako finalak otsailaren 20an egingo dira eta final nagusia, aldiz, Urdiñarben, Zuberoan, jokatuko da martxoaren 5ean.



*Nick Maritxu, Nick Bartolo* antzerkiaren momentu bat. | VICTORIAEGUNIA.COM

## 'Nick Maritxu, Nick Bartolo' antzerki komikoa, dantzaz betea

I.B | ESKORIATZA

Glu Glu Produkzioen *Nick Maritxu, Nick Bartolo* lana domekan, urtarrilaren 24an, izango da Zaldibar antzokian, lau eurotan, 19:00etan. Galder Perezek idatzi eta zuzendutako antzerkia Ylenia Baglietto eta Ugaitz Alegria aktoreek taularatuko dute. Dantzaz eta umorez betetako emanaldia izango da.

Bi gaztek Internet bidezko txat batean topo egingo dute Maritxu eta Bartolo ezizenekin. Denbora batez Internetez komunikatzen egon ondoren, elkartzea erabakiko dute. Opera bateko biltegi zahar batean pasako dute gaua, bertan aurkitutako elementu guztiez baliatuta bikotea jolasean arituko da. Bartolok kantuz iturria munduan zehar aurkitu nahi duen bitartean, Maritxuk sexuarekin gozatzeko asmoa izango du.

**Umorezko maitasun istorioa**

Ezustekoz beteriko antzerki honetan, *Maritxu nora zoaz* kanta ospetsua abiapuntu, umorezko maitasun eta erotismo istorioa kontatuko da.

Erokeriak itsututa begien aurrean aurkitzen den horrek ikusten uzten ez duela kontatzeaz gain, helduek batzuetan jolasaren zentzua ez galtzearen beharraz ohartuko du ikuslea.

## Urdelardero egunean herriko plazan dantza egiteko ikastaroa

Haur eta gurasoei zuzendutako dantza ikastaro laburra izango da datozen bi domeketan, urtarrilaren 24an eta 31n. Joseba Iñurrategi pilotalekuan batuko dira, 18:00etan, eta dantzak dakizkiten guraso batzuek gidatuko dituzte dantzak ikasi nahi dituzten guraso eta haurrak. Ikastaro honen helburua da Urdelardero egunean, otsailaren 4an, egiten den txokolate-janaren ostean plaza dantzaz betetzea, hain zuzen ere, herrian giro handiagoa egon dadin.

## Asteburuan grafitien munduan murgilduko dira gaztelekuan

Aste bukaeran *brainstorming* bat egingo dute gaztelekuan, lokal barruko zein kanpoko pareta margotzeko. Ideia bilketa egingo dute zer margotu daitekeen, leloren bat jarriko duten edo ez… pentsatzeko. Hori egin ondoren, grafitietan aditua den pertsona bat ekarriko dute, eta pentsatutako ideiak azalduko diote berari, zirriborroak egin ditzan. Honekin batera, Udalari baimena eskatuko diote batez ere kanpoko paretan zer egin nahi duten adierazteko.




Zapatuan egin zuten aurkezpena, Trebiñun; talde guztietako ordezkariak izan ziren han. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Kuadrilla artekoa hasteko prest daude bertsolariak

*Elexpuru ta 4* eta *Ezjatzu gustaubiher* izango dira Aramaioko bi taldeak

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

Bihar, zapatua, ekingo diote Arabako bertso kuadrilla artekoari. Lehenengo topaketa Izarran izango da: 12:00etan Izarrako Frontoia tabernan hasita egingo dute saioa. Aramaioko bi taldeak, Murgiakoa, Legutiokoa eta Urkabustaizkoa izango dira bertsotan.

**Atleta onenen moduan**

Bertsotloia izango dute lehenengo ekitaldia. Izarrako taberna bakoitzean atleta onenen moduan egin beharko dute bertsotan taldeetako ordezkariek: 100 metro oztopo, 200 metro lauak, maratoia... Ondoren, bazkaltzera joango dira Behekoiturri elkartera –izen-ematea itxita dago–. Bazkalondoren, talde guztien artean bertso erronkak egin beharko dituzte, 16:30ean hasita.

**"Lehiaketatik gutxi du"**

Aramaiok bi talde izango ditu kuadrilla artekoan: *Elexpuru ta 4* eta *Ezjatzu gustaubiher*. "Topaketa hauen bitartez bertsolaritza herrikoia bultzatu nahi dugu; lehiaketatik gutxi du eta herrikoitik asko", dio Xabi Igoa Aramaioko bertsolariak.

Bi urtean behin egiten dute kuadrilla artekoa; helburua da txapelketa nagusira aurkezten ez diren bertsolariek plazetan abesteko aukera izatea. Biharko erronkaz, Igoak dio harrotasuna izango dutela jokoan eta "sari batzuk" banatuko dituztela.

Erronkak kuadrillako egingo dituzte, eta azkeneko erronkan –martxoaren 12an, Argantzunen–talde guztiek parte hartuko dute –14 talde–.

**ARAMAIOKO TALDEAK**

| Elexpuru ta 4: | Ezjatzu gustaubiher: |
|---|---|
| Xabi Igoa | Maria Izaga |
| Andere Arriolabengoa | Sabin Aranburu |
| Manex Agirre | Peru Abarrategi |
| Iker Agirre | Paula Amilburu |
| Iker Elexpuru | |

# Saharako bizimodua eta literatura izango dute berbagai gaur eskolan

*Ir a kurrin kurrin* saioa egingo dute iluntzean; *Smara* liburuaren gainean jardungo dute

**A.E.** | ARAMAIO

Eskolak antolatuta, *Ir a kurrin kurrin* saioa egingo dute gaur, egubakoitza. Sahara izango dute ardatz gaurko saioan.

San Martin eskolarendako ekitaldi garrantzitsua izaten da *Ir a kurrin kurrin* saioa; hala, "pozik" daude, gaur gauerako 70 bat lagunek izena eman dutelako, "inoiz baino gehiago". Esperientzia "polita eta interesgarria" izaten da literaturaren inguruan eskolan egiten dutena.

**Afari sahararra**

20:00etarako egin dute hitzordua eskolan bertan. Ormaiztegitik etorritako sahararren bisita izango dute; euren eskutik, Saharako kanpalekuetan nola bizi diren jakingo dute. Ondoren, afaria egingo dute: irakasleek eta gurasoek osatutako batzordeak prestatuko du afaria.

Afaldu ondoren, *Smara* liburuaren gainean jardungo dute. "Dagoeneko irakurri dute liburua. Eskatu duguna da bakoitzak aukera dezala liburuaren pasarte bat", dio Mari Karmen Garrido irakasleak. "Zazpi taldetan banatuko gara; eta aukeratutako pasarteen gainean jardungo dugu", dio. Modu horretan, guztien iritziek berdin balio dutela erakutsi gura dute, besteak beste. "Pertsona batek daukan ikuspuntuak gure ikuspuntua aberastu dezake", gaineratu du Garridok.

# Gorbeialdeko sareko ginkana egingo dute

Otsailaren 12ra arte eman daiteke izena lehiaketan; bost proba egingo dituzte

**A.E.** | ARAMAIO

Nerabeei zuzendutako ginkana egingo dute Gorbeialdean. Proba samur eta dibertigarrien bitartez sare sozialetan eta Interneten euskara erabiltzeko aukerak ezagutaraztea da helburua.

**Izena eman**

Otsailaren 12ra arte egongo da izena emateko aukera. Mezu bat bidali beharko da *go.ginkana@gmail.com* helbidera ondorengo datuekin: izen-abizenak, taldean aurkeztuz gero taldearen izena, adina, kontaktua eta ikastetxearen izena.

**Bost proba izango dira**

Probak izango dira: otsailaren 12ra arte lehenengoa; otsailaren 15ean; otsailaren 22an, otsailaren 29an; eta martxoaren 7an.

Sari banaketa martxoaren 18an izango da. Irabazleak 600 euroko bonua jasoko du.



ARANTZAZU EZKIBEL

# San Sebastian eguna ospatu dute Sastiñan

Sastiñan, edo San Sebastian ermitan, San Sebastian eguna ospatu zuten eguaztenean. Urtero moduan, meza esan zuen parrokoak; Sastiñan meza esaten duten urteko egun bakarra izaten da San Sebastian eguna. Ermitako kaperatik santuaren irudia atera zuten eta horma nagusian jarri zuten mezak iraun zuen bitartean. Ondoren, bere lekura eraman zuten irudia. Kuadrilla polita batu zen eguaztenean Sastiñan.

## Santa eskean irteteko lehenengo entseguan hogeita hamar bat lagun elkartu ziren kultura etxean

Lehenengo entseguan hogeita hamar bat lagun elkartu ziren; hala ere, antolatzaileek azaldu dute lehenengora ez joateak ez duela esan nahi hurrengora joan ezin denik. Herritarrak animatu nahi dituzte entseguetan parte hartu eta santa eske herrikoian parte hartzera. Datorren eguenean, urtarrilaren 28an, azkeneko entsegua egingo dute, 19:00etan, kultura etxean. Egunean bertan bi taldetan banatuta ibiltzen dira auzoetan koplak abestu eta bertsoak botatzen.

## Baso zerbitzua herritarrei hurbiltzeko asmoz, jendaurreko laguntza emango dute Udalean bertan

Arabako Basogintza Elkarteak jendaurreko zerbitzua eskainiko die baso-jabeei Aramaioko Udalean urte osoan zehar, ondorengo egunetan: otsailaren 18an, martxoaren 17an, apirilaren 14an, maiatzaren 12an, ekainaren 16an, uztailaren 14an, irailaren 15ean, urriaren 13an, azaroaren 17an eta abenduaren 22an. Ordutegia izango da: 9:15etik 15:00etara –uztailean eta irailean, 9:15etik 14:00etara–. Argibide gehiago gura izanez gero deitu 686 13 18 00 telefono zenbakira.

ELGETA

# Gu Geu Elgeta: "Tamalgarria da kafe antzokiaren egoera"

Udal Gobernuak ukatu egin du oposizioak leporatutako pasibotasuna

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gu Geu Elgeta Plataformak uste du Espaloia kafe antzokiaren egoerak irtenbide bat behar duela. "Bada garaia Bilduren Udal Gobernuak Espaloia kafe antzokiaren egoera tamalgarriari aurre egin eta premiazko irtenbide egoki bat eman diezaion (...) Okerrena arazoa dagoenean uztea dela uste baitugu". Oposizioak dio egungo eskaintza kulturala ez dela batere ona, eta kezka agertu du "maizterraren kontratuzko betekizun mailarekin; arduradun nagusi gisa Udalak bere erantzukizuna bete behar du". Gai honetan pasibotasuna leporatu dio oposizioak Bilduren Udal Gobernuari.

**Inplikatuen erantzunak**

"Espaloia kafe antzokia ez dago egoera onean, begi bistakoa da", esan dute Udal Gobernutik. "Elgetako Udala jarraipen zorrotza egiten ari da gai honen inguruan. Txosten juridikoak eta ekonomikoak baditugu eta maizterrari bere kontratuzko betebeharren egoeraren berri emateko ere eskatu zaio, erantzukizun zibileko aseguruen egoera kasu". Gauzak presaka egitea ez dela ona adierazi dute udal arduradunek. "Elgetako Udalak badu esperientzia horretan". Eta Gu Geu Elgetari eskatu diote Udalaren jarduna oztopatu beharrean lanean hasi eta behar den lekuan proposamenak eta ekarpenak egiteko. "Edozein aitzakia darabilte Udal Gobernuari kritika hutsala egiteko", adierazi dute.

Kafe antzokian diharduen Batirtze Arantzabalek, aldiz, kafe bat hartzera gonbidatu ditu Gu Geu Elgeta plataformakoak. "Ez dira ikuskizun bakar batera ere etorri. Lehen eskutik emango diet aretoko kudeaketaren berri".

## Elgetako hamar neska-mutiko izango dira aurten Goienaren Kantari saioan

L.Z. | ELGETA

Debagoieneko mila gaztetxok hartuko dute parte, aurten, Kantari ikuskizunean, tartean Elgetako hamar neska-mutikok. Bosna laguneko bi taldek eman dute izena Elgetatik. Tximeletak izeneko taldean ariko dira Alazne Lozano, Ehari Barquero, Janire Lopez, Maia Erostarbe eta Uxue Martin. Pirritx eta Porrotx pailazoen *Iritsi da eguna* abestuko dute. Bigarren taldea osatzen dute Xabi Delgadok, Jon Irizarrek, Eider Ramosek, Nerea Canelok eta Olatz Irazabalek. Gatibu taldearen *Euritan dantzan* prestatuko dute. Taldeek otsailaren 20an egingo dute entsegua eta otsailaren 27an grabatuko dute ikuskizuna Bergarako Zabalotegin.

## Errekreazioan parte hartzeko dei berezia herriko emakumeei

Apirilaren 24rako iragarri dute fronteko errekreazioa, eta protagonismo berezia emango zaio, aurten, emakumeen erresistentziari. Errekreazioan parte hartzeko dei egin dute. Interesatuek udaletxean, Elgetako tabernetan zein *turismo@elgeta.net* e-postan eman behar dute izena.

## Tute eta briska txapeldun berriak Xalbadorpen

Elgetako erretiratuek egin dituzte urteroko tute eta briska txapelketak. Briskan, Jesusa Iturricastillo eta Asun Arruabarrena dira txapeldunak. Tutean, berriz, Benedikta Bergaretxe eta Pedro Mari Ubera. Bi bikote horiek Debagoien mailako txapelketa jokatuko dute martxoan.



L.Z.

## Umeek danborrada Nobleendako

Aurten ere bat egin dute Elgetako eta Uberako San Sebastian Kofradiako Nobleek eta Elgetako Herri Eskolako neska-mutikoek urtarrilaren 20an. Gogoz jo zuten danborra eskola umeek, eta gustura entzun Nobleek.

## Bost eguneko bonuak atera dituzte ludotekan

L.Z. | ELGETA

Zerbitzua bost egun solteetan erabiltzeko aukera emango duten bonuak atera ditu Udalak. Ludoteka zerbitzuaren prezioa 15 euro da eta zaintza zerbitzuarena, berriz, 45 euro.

Interesatuek ordainketa egin eta udaletxean jasoko duten eskaera orria bete behar dute. Nahikoa da zerbitzua zein egunetan erabiliko den 24 orduko tartearekin jakinaraztea.

## OHARRAK

**IPUINEN ORDUA GAUR**
Liburutegian, 17:25ean, ipuin kontalari saioa umeendako.

**MENTALISMO IKUSKIZUNA**
Gaur, 22:30ean, Toni Bright mentalista Espaloian.

**BISITA LUBAKIETARA**
Hilaren 31n eta otsailaren 7an. Izena emateko: 943 79 64 63.

**KANTSATZEKE TALDEA**
Bazkide zein federatu txartela ateratzeko aukera, martitzenean, 19:00etatik 20:00etara, kultura etxean.

**PLASTIKO BILKETA**
Landa inguruko plastiko bilketa zerbitzua, hilaren 26an, Mankomunitatearen eskutik. Eskatu egin behar da: 943 76 25 47.

LEINTZ GATZAGA



Behera etorri den malda hesiz inguratuta, martitzenean. | UBANE MADERA

# Menditik datorren urak eragin lezake lur-jausia

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Joan den asteko euriekin arrakalak azaldu ziren, eta astebururuko eurien ondoren malda behera etorri da erdigunerako 23 aparkaleku lortzeko egokituta zegoen esparruan. Orain, hesiz inguratuta dago lur-jausia, arriskuak saiheste aldera. Eta ikusteko dago zein konponbide egon daitekeen. "Gipuzkoako Urak enpresakoak bertan izan dira eta esan dute ur-harguneek ez dutela zerikusirik gertatutakoarekin; zerikusia izan lezake, ordea, bertan agertu den iturburu batek, mendiko urak bertatik pasatzen direlako. Dena den, jausitako lur guztia erretiratu eta ingurua sakon aztertu arte ezin da jakin zein den egoera erreala ", jakinarazi du Eneka Zankada alkateak.

Uztailean bukatu zituen Zubieder enpresak aparkalekuaren lehen faseko obrak.

LEINTZ GATZAGA

## Eskolakoak San Sebastian erritmora

Eskolan landutako sukaldari jantzia soinean jarri, danborrak gerrira lotu eta plazan batutako gurasoen eta amamen aurrean harro asko astindu zituzten atabalak eskolako bost neska-mutikok, San Sebastian doinuen erritmora, martitzenean.



UBANE MADERA

LEINTZ GATZAGA

## Astelehenean bueltatu ziren Begiñarrura

Susto handia izan zuten Begiñarrun aurreko domekan, teilatuan sua piztu zen eta. Kalte pertsonalik ez zuen eragin eta suhiltzaileek lortu zuten sua gehiago ez zabaltzea. Ura, baina, barruraino sartu zitzaien. Dena den, astelehenean bueltatu ziren bertakoak.



MAITE TXINTXURRETA

# KIROLA

ATLETISMOA

**Yeray Varela** | Aloña Mendiko atleta

# "Seriotasunez entrenatzea gustatzen zait, baina badakit atletismotik deskonektatzen"

▸ Hogeita zortzi urterekin inoizko denboraldi hasiera onena egiten dabil oñatiarra

▸ Aloña Mendi taldearekin Espainiako Txapelketarako sailkatzea du helburu

XABIER URZELAI | ARRASATE

Edonork ez du arineketan kilometroa 2.48ra egiteko gaitasunik –3.000 metrotan–, eta, abiadura horretan ibilita, Yeray Varelak abenduan lortu zuen marka pertsonala (8.24) pista estalian: "Aire librean hiru segundo azkarrago ibili izan naiz, pista estaliko kurba itxia delako, eta hor abiadura galtzen delako". Serio dabil aurten, eta entrenamenduetako emaitzek hori berresten dute. Laster iritsiko dira egutegiko lasterketa nagusiak, baina, atletismotik harago, badaki bizitzari zukua ateratzen.

**Gabon inguruan erakutsi duzu sasoi puntu onean zaudela.**

Bai, gustura nabil eta motibatuta. Inoizko emaitzarik onenak batzen nabil, fintzeko lanean ibili gara, arinago korrika egiteko, eta bide onean goaz.

**Dagoeneko hainbat herri lasterketa irabazi dituzu.**

Denboraldia hasi baino ez da egin, eta orain arte San Silvestrean lortutako garaipen bikoitzak egin dit ilusio handien. Abenduaren 31n Azpeitian izan nintzen goizean, eta arratsaldean Oñatin. Dagoeneko ohitura bilakatu da egun berean bi lasterketa egitea, entrenamendu modura erabiltzen dut, eta polita da.

**Donostian, berriz, Erregeetako Uliako nazioarteko lasterketan euskaldun onena izan zinen, eta sailkapen orokorrean 8. postuan sailkatu.**

Prestakuntza aurrera doa, eta igartzen da hori. Gustura ibili nintzen Donostian, hor maila handiko atleten ondoan lehiatu ahal izan nintzen eta aurrean ibili ahal izan ginen –Hassan El Oubaddi izan zen gizonezkoetan onena–. Baina aurreko horiek koska bat gorago daude.

**Gabon aurretik pista estalian marka berria lortu izanak ere erakusten du bide onean zaudela.**

Hiru segundo ondu nuen lehenagotik nuen marka (8.24). Aire librean hiru segundo azkarrago ibili izan naiz, pista estaliko kurba itxia delako, eta hor abiadura galtzen delako. Aire librean, berriz, haizea eta halakoak kontran izaten dira, baina egun aproposa egiten badu, kanpoan emaitza hobeak lortzen dira, pistako zuzena luzeagoa delako, eta kurba irekiagoa.




Yeray Varela, iazko Oñatiko Herri Lasterketan. | IMANOL SORIANO

**Aloña Mendiko hainbat taldekide ibiltzen zarete elkarrekin, eta Zumarragako beste atleta batzuekin batera osatzen duzue taldea.**

Zumarragan entrenatzen gara, entrenatzailea bera ere hangoa delako. Talde moduan ze lasterketatan egon gura dugun zehazten dugu, eta hortik aurrera bakoitzak erabakitzen du non lehiatu gura duen.

**Aspaldiko aldarrikapena da Oñatin entrenatzeko lekua izatea.**

Gugatik balitz, munduko pista onena jarriko genuke herrian, baina kirol jarduera asko egiten dira Oñatin; oraingoz, zain jarraitu beharko dugu.

**Tarteka, kanpora ere joaten zarete lehiatzera.**

Eta entrenatzaileak ere horixe gomendatzen digu, gainera. Hemen ia denok elkar ezagutzen dugu, 20-25 lagun batzen gara lasterketetan, eta kanpora joaten garenean erreferentzia horiek galdu egiten dira. Ondo dago beste atleta batzuekin lehiatzea. Burgosera, Madrilera edota Salamancara joan eta non zauden ikustea.

> **"Atletismoari ondo pasatzen jarraitzea eskatzen diot, ez gehiago"**

**Laster datoz hitzordu handiak.**

Bai, Euskadiko Txapelketa izango da hurrengo hitzordua, eta Aloña Mendikook taldekako sailkapena lortu gura dugu Espainiakora sailkatzeko. Eta ondoren asfaltoa prestatzen hasiko gara, hor ere Espainiako Txapelketan egoteko asmoz.

**Zer-nolako atleta zara? Entrenatzaileak eskatutako guztia %100 betetzen duen horietakoa?**

Orain bai, adinarekin lasaitu ere egiten zara eta gaztetan buruan dituzun txoriak alde batera uzten dituzu. Emaitza onak jaso gura badituzu, gogor entrenatu behar da, eta ez du balio etxeko lanak erdizka egiten ibiltzeak.

**Hogeita zortzi urterekin, zer eskatzen diozu atletismoari?**

Garbi daukat atletismoak ez didala jaten emango, baina oso pertsona lehiakorra naiz, bai atletismoan eta baita bizitzaren beste arloetan ere, oso zorrotza naiz nire buruarekin. Horregatik, atletismoari eskatzen diodan gauza bakarra da ondo pasatzen jarraitzea, eta posible den neurrian markak hobetzen joatea.

**Daukazun adina –28 urte– aproposa da egiten dituzun distantzietarako?**

Bai, oraindik bai. 35 urtetik aurrera hasten da atleta abiadura galtzen, eta *txispa* galtzen dela ikusterakoan jendeak distantzia luzeagoko probak aukeratzen ditu. Oraingoz, ez zait halakorik pasatu, eta 3.000, 5.000 edota 10.000 metroko probekin jarraituko dut gozatzen.

**Distantzia luzeek erakartzen zaituzte? Asko dira maratoia egitera animatzen direnak.**

Badakizu zer gertatzen den? Egiten dudan hori ondo egitea gustatzen zaidala, eta 5.000 edo 10.000 metroko lasterketa bat ondo prestatzeko kilometro mordoa egiten badut entrenatzen, pentsatu ere ez dut gura zer egin beharko nukeen maratoia ondo prestatzeko. Baina bai, etorkizunean egingo dut maratoiren bat.

> **"Txispa' galdu dudala ikustean probatuko ditut distantzia luzeak"**

**Badatoz, besteak beste, Lasartekoa moduko lur gaineko krosak. Lokatz artean ibiltzeko gogoz egoten dira asko.**

Bada, ez da nire kasua. Sufritu egiten dut halakoetan, eta amorratuta ibiltzen naiz. Daukadan gorpuzkeragatik, eta korrika egiteko moduagatik, moteldu egiten nau lur gainean ibiltzeak, eta ez dut gozatzen.

**Egia da aurrean ibiltzen diren gainontzeko atletak argalak izaten direla, fin-finak. Zu, kontrara, gihartsua zara.**

Entrenatzaileak esaten dit guztien aita ematen dudala. [Barre] Mediku kontroletara joaten naizenean gainontzeko atletek harriduraz begiratzen didate, "nora dator tipo hau?", baina gero, egindako denborak ikusi eta iritzia aldatzen dute. [Barre] Sarritan esaten didate ea zergatik ez ditudan 200 metroko lasterketak egiten.

**Aurrera begira, beste kirol jardueraren batek erakartzen zaitu? Triatloiek, esaterako?**

Ez pentsa, atletismo-zalea naiz ni. Triatloiak erabat baztertuta ditut, igerian *pakete* hutsa naizelako [Barre] eta bizikleta inoiz ez dudalako ukitu ere egin; burua apurtuko nuke. Akaso, duatloi bat *katxondeoan* egingo nuke, probatzearren, baina triatloiak baztertuta daude. [Barre]

**Sare sozialetan zu apur bat jarraituta, bistan dago atletismoaz harago ere badakizula bizitzaz gozatzen.**

Ez naiz atletismorako bizi, garbi daukat hori. Baina azken urteotan seriotasun handiagoarekin nabil; urteek ematen dute patxada hori. Entrenamenduetan, esaterako, oso serioa naiz, ia ez dut berbarik egiten. Eta aurreikusitako guztia betetzen ahalegintzen naiz, bestela ez naiz-eta gustura geratzen. Hori bai, lagunekin oso gustura ibiltzen naiz, eta neurria galdu barik zapatuetan buelta bat ematea atsegin dut. Eta atletismoko denboraldia amaitzen dudanean... Hor ez dut tarteko biderik, erabat baztertzen dut atletismoa.

ZIKLISMOA


Mikel Aristi, taldeko maillot berriarekin. | M.A.

# Argentinan egin du Mikel Aristik debuta Marseillako taldearekin

Bi urtez Euskadirekin afizionatuetan lehiatu ostean profesional mailara bueltatu da bergararra

XABIER URZELAI | BERGARA

Gutxi batzuek lehenengoan egiten dute salto. Gehiengoak inoiz ez, eta badira profesionaletara pasa, zorteak bizkarra eman eta amorerik eman barik tematuta lanean jarraitzen dutenak. Tarteka, oso tarteka, saria izaten da horiendako, talentua dutenendako, eta sari horren lehenengo alea jasotzen dabil egunotan Mikel Aristi bergararra.

Delko Marseille Provence KTM taldearekin Argentinan hasi du urtea Aristik, Nairo Quintana (Movistar), Peter Sagan (Tinkoff Team), Vincenzo Nibali (Astana) eta maila horretako ziklisten kontra indarrak neurtzen, San Luisko Tourrean.

**Hasiera txukuna**

Eta bergararrak hasiera txukuna egin du. Lehenengo etapan, astelehenean, taldekako erlojupekoan Marseillako taldea zazpigarrena izan zen, Etixx-Quick Step taldearengandik –irabazleak– 58 segundora.

Bigarren etapa, ostera, esprintean erabaki zuten; munduko txapeldun Peter Saganen (Tinkoff), Elia Vivianiren (Italia) eta Fernando Gabiria (Etixx-Quik Step) gaztearen artean lehia polita izan zen, eta ezustekoa emanda Gabiria nagusitu zen. Aristi ere aurreldeko borrokan sartu zen, 22. helmugaratuta. Hirugarren etapan, baina, erorikoa izan, eta Koning irabazlearengandik 13 minutura sartu zen helmugan. Ikusteko dago bergararra zelan moldatzen den domekara arte, orduan amaituko dute-eta San Luisko Tourra, 119 kilometroko etaparekin.

**Irizar eta Lizarralde ere gertu**

Aristi da Debagoieneko ziklisten artean dagoeneko martxan jarri den lehena, eta beste bi ordezkariak ere, Eneko Lizarralde (Euskadi-Murias) eta Markel Irizar (Trek-Segafredo), aurki hasiko dira.

Jon Odriozolaren mutilek Levanteko epeltasuna aprobetxatu dute azken asteotan denboraldi hasiera ondo prestatzeko, eta Mallorcan hasiko dute urtea, urtarrilaren 28tik 31ra bitartean egingo duten Challengean. Mallorcan estreinatuko du Markel Irizarrek 2016a; udaberriko klasikoetan Cancellararen ondoan egotea egokituko zaio oraingoan ere, eta lasterketa-erritmoa hartzen joateko ordua da. Ondoren, Andaluziako Itzulia egingo du –garaipena lortu zuen 2011n–, Tirreno-Adriatikoa eta klasiko nagusiak iritsiko dira, Flandriako Tourra eta Paris-Roubaix.

ATLETISMOA


Miren Josune Bikuña, aste barruan, Oñatin entrenatzen. | JOSU BILBAO

# Josune Bikuña: "Triatloiak probatu gura ditut aurten"

Kirolprobak liga irabazi du Oñatiko korrikalariak

X.U. | OÑATI

Iaz Kirolprobak ligako podiumeko hirugarren postura igo zen, baina aurten txapela jantziko du Josune Bikuña oñatiarrak; puntuagarriak ziren 12 herri lasterketetan erakutsitako erregulartasunak saria izan du oraingoan: "Egia esan, ez dut lasterketa bakarra ere irabazi [Barre], ni baino atleta azkarragoak daudelako. Baina proba guztietan egon naiz, denetan batu ditut puntuak eta erregulartasun horri esker lortu dut lehenengo postuan amaitzea. Egia esan, ez nuen halakorik espero", adierazi dio Oñatikoak GOIENAri aste barruan.

Bikuñak argitu du herri mailako probak izan direla denak, amateur mailako kirolariekin: "Baina aurrean ibiltzen diren horiek, nahiz eta amateurrak izan, korrikalari onak izaten dira; horregatik, oso pozik nago lortutakoarekin". Hain zuzen, amari eskaini gura izan dio txapela: "Bera delako gehien animatzen nauena eta lasterketa guztietara ni ikustera etortzen dena".

**Triatloiak probatzera**

Abixaran taldeko atletak beste erronka bat du 2016ra begira: "Herri lasterketa batzuetan parte hartuko dut, baina triatloia probatzea da buruan daukadana". Zumaiako triatloian izan du orain arteko esperientzia bakarra, eta, maila popularrean izan bazen ere, irabazi egin zuen: "Maila popularra zen, eta distantzia txikian. Batez ere igeriketan lan handia egin behar dut oraindik, baina Antxintxika taldean izena eman dut eta ilusioz nabil, poliki-poliki hastea da asmoa".

ATLETISMOA

## Sergio Gartzia oñatiarra bigarren Bolunburuko krosean

Eibarko lasterketak ibarreko korrikalari asko batu zituen, eta gizonezkoen mailan Aloña Mendiko Sergio Gartziak lan aparta egin zuen, bigarren sailkatuta. Arrasate Kanpanzar taldeko Martin Berrizbeitia zortzigarrena izan zen eta Tasio Gomez, bederatzigarren.

MENDI LASTERKETA

## Arrasate-Udalatx lasterketarako izen-ematea, ia beteta

Eguazten iluntzean bost lagunendako baino ez zegoen tokia apirilaren 10ean egingo duten Arrasate-Udalatx lasterketaren bigarren ediziorako. Antolatzaileek 300 lagunendako tokia gorde dute, eta 295 atletak eman dute izena.

ERRUGBIA

## Lider dagoen ART Arrasatek Zaisa Txingudi hartuko du

Joan den astean Arrasateko mutilek errepaso galanta eman zioten azken sailkatu Amurriori (0-53), eta oraingo zapatuan etxean jokatuko dute Igor Isasiren mutilek (16:00). Biharko kontrarioa gogorragoa izango da, hirugarren dagoen Zaisa Txingudi.

ATLETISMOA

# Realeko atletek irabazi zuten Euskadikoa, taldeka

X.U. | ARRASATE

Joan den zapatuan egin zituzten Anoetako pista estalian Euskadiko taldekako atletismo txapelketak, eta gizonezkoetan Reala izan zen onena –zortzi talde lehiatu ziren guztira–.

Garaipen hartan Arrasateko atletek zeresan handia izan zuten: pertika saltoan Istar dapenak (Real Sociedad) irabazi zuen (4,85eko markarekin) eta Jonathan Perez (Real Sociedad) hirugarrena izan zen (4,75). Salto hirukoitzean, berriz, urrea Arrasatera ekarri zuen talde bereko Iñigo Uribarrenek (15,13).

**Emakumezkoetan ere ondo**

Eta emakumezkoen kategorian ere Arrasateko pertika -jauzilariak izan ziren protagonista. Bidasoa taldeko Malen Ruiz de Azua arrasatearra izan zen onena (4,05) eta Atletico San Sebastian taldeko Maialen Axpe bigarren sailkatu zen (4,00). Taldeka, berriz, zortzi talderen artean Atletico San Sebastian taldeak irabazi zuen eta Bidasoa bigarren sailkatu zen.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
Cultural Durango-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Tabira.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Antzuola-Ikasberri
Zapatua. 16:00. Estala.
Aretxabaleta-Zestoa
Domeka. 16:30. Ibarra.
Tolosa-Bergara
Zapatua. 15:30. Usabal.
Lagun Onak-Mondra
Zapatua. 17:30. Garmendipe.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Arizmendi-Ostadar
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Mondra-Beti Gazte
Domekan. 12:00. Mojategi.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Eibar
Zapatua. 17:30. Mojategi.
Intxurre-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Elorri.
Bergara-Zarautz
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Aloña Mendi-Tolosa
Zapatua. 17:30. Azkoagain.

**OHOREZKO KADETEAK**
Tolosa-Bergara
Zapatua. 12:45. Usabal.
Urki-Aloña Mendi
Zapatua. 13:30. Unbe.
Lagun Onak-Arrasate
Zapatua. 11:30. Garmendipe.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Otxartabe-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Txurdinaga
UDA-Zalditxo de Araia
Zapatua. Zehaztu barik. Ibarra.

**LEHENENGO MAILA**
Mondrate-The Next Zerbezeria
Domeka. 11:30. Musakola.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Eskoriatza-Idiazabal
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

**GIPUZKOAKO GAZTEAK**
Laskorain-Mondrate
Zapatua. 09:00. Usabal.

**ESKUBALOIA**

**EUSKAL LIGAKO SENIORRAK**
Laubide-Izarraitz Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Bikuña.
Deusto Loyola-Ford Mugarri
Domeka. 12:15. Jesuitas.

**EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.**
Usurbil-Aloña Mendi
Domeka. 10:30. Oiardo.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Bergara-Zuauto
Zehaztu barik.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
MU-Lehioak Zarautz
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**BIGARREN MAILA**
Natra Oñati-Paules Skoda
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**GIZONEZKO SENIORRAK**
MU-Santo Tomas Lizeoa
Zapatua. 16:00. Musakola.
Bergara-Alde Zaharra
Domeka. 17:30. Labegaraieta.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Ordizia-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Majori.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK, 2. MAILA**
ART-Zaisa Txingudi
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**PILOTA**

**OÑATI**
**Egubakoitza, 18:45ean hasita:**
Aloña Mendi1-Olalde (Infantilak).
Aloña Mendi 2-Gure Txeru (kad).
Aloña Mendi1-Legazpi (gazteak).
**Zapatua, 18:00ean hasita:**
Aloña Mendi2-Bergara2 (alebin).

**ARRASATE**
**Egubakoitza, 19:00etan hasita**
Arrasate1-Aretxabaleta2 (infant).
Arrasate4-Zumaia2 (infantilak).
Arrasate-Tolosa (infantilak).
Arrasate-Pagazpe (kadeteak).
**Zapatua, 18:30ean hasita**
Arrasate5-Lapke (Infantilak)
Arrasate2-Legazpi2 (infantilak)
Arrasate3-Aretxabaleta1 (Infant).

**BERGARA**
**Egubakoitza, 19:15ean hasita**
Bergara 1-Ataun (alebinak).
Bergara-Alde Zaharra (gazteak).
**Zapatua, 12:30ean hasita**
Bergara-Lagunak (seniorrak).

**ARETXABALETA**
**Egubakoitza, 19:30ean hasita**
Aretxabaleta 3-Zumaia (alebin.)
Aretxabaleta-Txapagain (kadet.)

# BERGARA CHEF

BERGARA CHEF
SUKALDARITZAKO LEHIAKETA-PROGRAMA




1. saria: Beñat Abio eta Ariane Nafarrate
2. saria: Jose Mari Larrañaga eta Patxi Berraondo




Ikusleen saria:
Ignacio Etxabarri eta Hibai Kareaga

## Goienaren izenean, eskerrik asko Bergara Chef lehiaketa posible egin duzuen guztioi!

- Bedelkar
- Bergara bizi
- Bergarako Udala,
- Ecenarro
- Elay
- Industrias Fegar
- Grupo TTT
- Lacor
- Embalan3
- Cauchos Mujika
- Industrias Azkoin
- Lazpiur
- Lasa jatetxea
- Urbieta
- Servimasa
- Belmek
- Manso Hermanos
- Azpeitxi jatetxea
- Basque Culinary Center
- Pol-pol taberna
- Larrañaga gozotegia
- Ogiberri okindegia
- Konde Panaderokua okindegia
- Kabutzia arrandegia
- Leturia harategia
- Zare fruta denda
- Antia harategia
- Mujika burdindegia
- Gisasola burdindegia
- Kresala arrandegia
- Imaz harategia
- Itxas Eder arrandegia
- Retolaza harategia
- Urcelay harategia
- Gorla elkartea
- Pertxa elkartea
- Madura elkartea
- Oilagorra elkartea
- Lasai toki elkartea
- Sagarpe elkartea
- Maritxu Barrena
- Jose Mari Perez
- Koldo Lasa
- Jon Andoni Olabarria "Budy"
- Inazio Beldarrain "Azpeitxi"
- Azoka:
  -Ikuz garbitegia,
  -Mertxe Oilaskoak-Urdaitegia
  -Bixain harategia
  -Lamitxoa arrandegia
  -Izotz jaki izoztuak
  -Arantxa barazki denda

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena"

# KULTURA

# Musikari ezagunak entzuteko aukera izango da Amaia Udal Antzokian

- Muguruza anaietako bi, Albert Pla, Raul Fernandez eta Ken 7 izango dira Arrasaten
- Ekitaldi guztietarako sarrerak salgai daude leihatilan eta 'Arrasate.eus' atarian

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Loquillo, Bebe, Dayna Kurtz, La Oreja de Van Gogh, Joe Henry, Benito Lertxundi, Ruper Ordorika... musikari ezagun asko izan dira Amaia antzokian.

Musika estilo askotako proposamen ezagunak ekartzeko apustuarekin jarraitzen du Arrasate Udaleko Kultura Sailak: domekan, Jabier Muguruzak *Tonetti anaiak* lana aurkeztuko du; martxoaren 13an, Fermin Muguruza, Albert Pla eta Raul Fernandez *Refree* musikariek *Guerra* musikala eskainiko dute; eta apirilaren 16an, Ken 7ren *Phoenicoperus* bira ekarriko dute. Ekitaldi guztietarako sarrerak eskuragarri daude leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian.

**Hirietako eskaintza herrietan**
Proiektu handiak garestiak izaten dira, eta alde horretatik mugatuta daudela dio Karmelo Alberdik, Kultura teknikariak: "Noizean behin horrelako proiektuak gurera ekartzea beharrezkoa dela uste dugu, eskaintza hori hiriburuetara ez dadin mugatu. Marjina txikia izaten dugu prezioa adosteko. Ordaindutako dirua, gehienetan, sarreren salmentan berreskuratzen dugun arren, diru hori ez da zuzenenean Kultura Saileko aurrekontura itzultzen. Eragin zuzena du, beraz, urte osorako dugun aurrekontuan. Orain artekoek harrera ona izan dutenez, apustua egiten jarraituko dugu".

**730 toki erabilgarri**
Handia eta oso akustika onekoa da Amaia antzokia. "Areto erosoa da; oso ezaugarri onak ditu, ekipamendu teknikoa, langile kopurua eta bestelakoak kontuan hartuta. Beti dago hobetzerik, baina, orokorrean, oso iritzi onak jaso ditugu taldeen eta ikusleen aldetik. Kontzertu batzuk *hall*-ean programatzen ditugu, joko duen taldearen musika estiloarendako aproposagoa delako, batzuetan, eta aretoa handiegia geratzen delako, beste batzuetan. *Hall*-eko baldintzak aretokoak besteko onak ez diren arren, giro berezia sortzen da kontzertuetan".



Albert Pla, Fermin Muguruza eta Raul Fernandez *Refree*. | ARRASATEKO UDALA

## 'Guerra' musikala martxoaren 13an

Musika, antzerkia eta ikus-entzunezkoak bildu eta nahasten ditu Albert Plak, Fermin Muguruzak eta Raul Fernandez *Refree*-k datorren hilean Amaia antzokira ekarriko duten ikuskizunak. Gerrari buruzko hausnarketa proposatzen du hirukoteak. Zuzenean abesteaz gainera, antzeztu ere egiten dute Plak eta Muguruzak, Fernandezek jarritako musikaren gainean. Hogei eurotan daude sarrerak salgai.



JABIER MUGURUZA

JABIER MUGURUZA | MUSIKARIA

## "Puntako jazz musikariekin Kataluniako auditorium baten zuzenean grabatu nuen"

*Tonetti anaiak*, argitaratu berri duen hamalaugarren lana, aurkeztuko du Jabier Muguruzak Amaia antzokian.

**Izenburu bitxia aukeratu duzu.**
Gure belaunaldikoentzako oso ezagunak izan ziren herriz herri zebiltzan pailazo horiek. Pertsonalki ezagutzeko aukera izan nuen geroago. Handik gutxira horietako batek bere buruaz beste egin zuen. Sekulako kolpea izan zen. Pailazoei omenaldia egin baino gehiago, pailazoen irudia erabilita eguneroko bizitzan egin beharreko borrokaz jardun dut. Kanpora begira itxura ona eman behar duzu, baina zure barruan dauden sentimenduak bestelakoak izaten dira askotan.

**Bilduman jasotako gainontzeko kantuek badute ezer umoretik?**
Ari naiz saiatzen azken urteotan, bereziki, umoreari leihotxo bat irekitzen, mundu ikuskeran beharrezkoa ikusten dut eta. Kantautore moduan egin dudan hamalau urteko ibilbidean, kantu guztien artean puzzle handi bat osatzen saiatu naiz. Puzzle horretan eguneroko istorioak daude.

**Gerardo Markuleta poeta oñatiarrak kantu baten hitzak egin ditu.**
Halaxe da, bai; sarritan aukeratu izan ditut haren idatziak. Oraingoan, *Lurraren izenak* kantuaren hitzak dira harenak. Hainbat toponimoren inguruan idatzitako testua da eta Oñatiko hainbat toki ere aipatzen ditu.

**Zelako musikarekin jantzi dituzu istorio berri horiek?**
Aurreko lanen pop-jazz ukituko bide intimismotik jarraitzen dut. Kasu honetan, Kataluniako auditorium baten grabatu dugu, zuzenean, puntako jazz musikariekin. Uste dut lortu dugula bilatzen nuen sonoritate konkretu hori. Oso kontent nago alde horretatik.

> " Pop-jazz ukitu intimistekin eguneroko istorioak batu ditut lan berrian"

**Kantuan zu zeu, eta, nola ez, eskusoinua lagun duzula.**
Hainbat instrumentu jotzen ditut, baina nire betiko instrumentua, haurtzarotik, eskusoinua da. Diskoaren arabera presentzia handiagoa edo txikiagoa du; baina beti dut ondoan.

**Diskoa grabatzeko izan dituzun musikariekin zatoz Arrasatera.**
Kataluniatik etorriko dira David Gomez (bateria) eta Ignasi Gonzalez (kontrabaxua), eta azken urteetan alboan izan dudan Mikel Azpirozekin (pianoa) osatuko dut laukotea. Luxu handia da niretzat, eta ikusleentzako ere bai, nire ustez, formatu handian aurkeztea diskoa. Emanaldi gehienak Azpirozekin bakarrik egiten ditut. Arrasateko Udalari eskertu egin gura diot egin duen apustua.

**Kantu berriez gainera, izango da zaharragoetarako tokirik?**
Badaude kantu batzuk derrigorrez abestu behar direnak, aspaldiko zaleak mindu egiten dira-eta bestela. Norberarentzako ere gogor samarra izaten da batzuetan kantu zaharrak errepertoriotik erretiratzea.

**Kolaborazio asko egin izan dituzu musikariekin eta idazleekin.**
Bestelako ekintza asko egin izan ditut. Bernardo Atxagak eta Gerardo Markuletak egin izan dituzten errezitaldi askotan izan naiz musika jotzen.

**Zu zeu ere idazlea zara.**
Idatzi ere egiten duen musikaria naizela diot nik. Nire buruari idazle etiketa jartzea errespetua ematen dit. Orain dela urte pare bat helduentzako ipuin liburu bat argitaratu nuen; aurrez haur literaturako zazpi liburu idatzita nituen.

**Radio Euskadin ere jarduten duzu.**
Oso gustuko dudan medioa da irratia. Etxean beti dago irratia piztuta.



Etxekopar, Etxaluz, Barandiaran eta Lipus daude taularen gainean. | ARTEDRAMA

# 'Etxekoak': maitasun istorioa ala paperak garaile?

## Lipusen bizipenak oinarri dituen antzezlana etzi Oñatin ikusgai

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | OÑATI

Maiteminduta dauden bi pertsona elkarrekin egoteko duten ezintasuna kontatzen du Ander Lipusek zuzendu duen *Etxekoak* lanak.

Bost urtetan elkarrekin lan egin barik egon ostean, Jon Gerediaga idazlearen eta lagunaren atea jo zuen Lipusek, azalean bizi izan duen istorioa idazteko eskatuaz. Maika Etxekopar, Kristiane Etxaluz eta Javier Barandiaran aktoreak aukeratu zituen, gero, pertsonaiei bizia emateko.

**Burokraziarekin borrokan**

Afrikan egonaldia egin ostean etxera itzuli da Maddi neska euskalduna. Mamadou afrikarra maite du eta Euskal Herrira ekarri gura du. Familiakoek laguntzeko prestutasuna erakutsi diote hasieratik. Ahalegin horretan gogor egingo dute guztiek lan Administrazioak eskatutako paper guztiak lortzeko. Urteetako esfortzuak, baina, fruituak baino gehiago, nekea eta familiako kideen arteko tirabirak sortuko ditu. "Burokraziaren aurrean familiaren eromen prozesua transmititu gura izan dugu. Askotariko publikoarentzako antzezlan irekia da. Erraz ikustekoa", dio Javier Barandiaran aktoreak. Gaurko *Puntua* aldizkarian irakur daiteke erreportaje zabalagoa.

**Oñatin eta Arrasaten ikusgai**

Santa Ana antzokian egingo dute etzi, domeka, 19:30ean. Sarrerak hamar eurotan eskura daitezke leihatilan eta *on-line, Bibe.me* atarian. Otsailaren 21ean, berriz, Arrasateko Amaia antzokira eroango dute. *Arrasate.eus* atarian eta antzokian eros daitezke sarrerak. Horiek ere, hamar eurotan.

### ESANAK

**"Nire bizipenekin hezurtutako istorioa, behar nituen hitz poetikoekin jantzi du Jon Gerediagak"**

ANDER LIPUS | ZUZENDARIA

**"Istorio gordina eta erreala da. Askotariko publikoarentzako aproposa. Erraz ikusi eta ulertzekoa da"**

JAVIER BARANDIARAN | AKTOREA

# Migrazioari buruzko bost film labur emango dituzte Zaldibar antzokian

**A. A.** | ESKORIATZA

Jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin kalitatezko zinea eskaintzea du helburu Filmazpit programak. Helduentzako film ez komertzialak eta ikuspuntu sozialetik interesa izan dezaketenak edo eztabaidarako bide eman dezaketen filmak batzen ditu.

Eskoriatzako Udalak bat egin du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako programarekin; hori horrela, Zaldibar antzokian hilero egingo dituzte Filmazpit saioak.

**Migrazioari buruz lehena**

Urtarrilaren 27an, eguaztena, 19:30ean erakutsiko dute lehenengo sorta. Hainbat arrazoirengatik beste herrialde batera joan behar izan dutenen istorioak jasoko dituzte. Nazioarteko jaialdietan saritutako lanak dira horiek guztiak. Sarrera dohainik da.

### Eguaztenean erakutsiko dituzten filmak

Jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin emango dituzte filmak.

**AÏSSA**
**Frantzia, 2013**
**Hizkuntza:** Frantsesa.

**Sinopsia:** Frantzian egoera irregularrean bizi den Kongoko emakume gazte baten istorioaren kontakizuna da.

**BAHAR IM WUNDERLAND**
**Alemania, 2013**
**Hizkuntza:** Alemana, persiera eta ingelesa.

**Sinopsia:** Siriatik ihes egin eta Alemaniara iritsi diren Bahar neskatoa eta haren aita dira protagonistak.

**EINSPRUCH VI**
**Suitza, 2012**
**Hizkuntza:** Alemana eta ingelesa.

**Sinopsia:** Deportazio baten oinarritutako istorioa da, Suitzan asiloa eskatu duen gazte baten ikuspuntutik kontatuta.

**RÉTENTION**
**Frantzia, 2013**
**Hizkuntza:** Frantsesa.

**Sinopsia:** Etorkinak atxikitzeko zentro bateko abokatuak Ukrainako gizon bat kanporatua izan ez dadin egiten duen lana erakusten du.

**SE TAIRE**
**Frantzia, 2012**
**Hizkuntza:** Frantsesa.

**Sinopsia:** Enpresa bateko bulegoak garbitzen dituen Souleymane paperik gabeko etorkinak gaindiezineko egoerari aurre egin beharko dio.



# 3, 2, 1... aurrera! Badator Kantari lehen grabaketekin

## Zapatuan eta domekan 16:00etatik aurrera hamar saioren zuzenekoak grabatuko dituzte Aretxabaletan

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE

Asteburuan Aretxabaletako Arkupe kultura etxean Eskoriatzako eta Aretxabaletako parte-hartzaileekin Kantari saioko lehen grabaketak egingo dituzte. Guztira, 233 gaztetxo izango dira asteburuan eta ordu erdi iraungo duten hamar saio grabatuko dituzte.

Amaia Txintxurreta aurkezleak azaldu du gogotsu eta urduri dagoela. "Haurrak urduri daude eta ni neu ere pixka bat urduri nagoela aitortu behar dut. Hala ere, asteburuan lehen entseguak egin ditugu gaztetxoekin Aretxabaletan eta Eskoriatzan eta egia esan, entseguen ostean lasaitu gara denok. Izan ere, badabiltza ikasten eta gogoz daude gaztetxoak. Gero, zuzeneko grabaketa egunean sabeleko urduritasunak etorriko dira, ziur!".


Eskoriatzan asteburuan egindako entseguaren unea. | IMANOL SORIANO

Zuzenean izango balira bezala grabatzen dituzte saioak, segidan. Hala, parte-hartzaileendako ere errazagoa dela dio Goienako aurkezleak. Ikuskizunean Amaia Txintxurretaren laguntza izango dute gaztetxoek; beraz, lasai egoteko eskatu die. Eta dio gura duten moduan jantzita joan behar dutela grabaketetara: "Aretxabaletako entseguetan, jantziko dutenaren aurrerapena ikusteko aukera izango dugu: Gatiburen *Euritan dantzan* kantua abestuko dutenek aterkia erabiliko dute, *Iñaki* abestuko dutenek ileordea ekarri zuten, *Haizea* abestiarendako zapiak ekarri zituztenak ere izan ziren, eta beste batzuk koloretako betaurrekoak jantzita ere ikusi ditugu". Osagarriak eramatea bakoitzaren erabakia, beraz, baina helburu nagusia ondo pasatzea dela azpimarratu gura izan du Kantariko gidariak.

Txintxurretak gaineratu du bertaratzen diren guztiekin batera gozatu nahi dutela ikuskizunekin, eta gurasoak eta lagunak animatzeko gogoz joan daitezela esan du, parte-hartzaileendako hori oso motibagarria delako.

### Hurrengo grabazioak

Mila haurrek hartuko dute parte Kantariren bosgarren edizioan. Aretxabaletako Arkupeko grabazioen ostean etorriko dira Oñatiko gaztelekukoa otsailaren 13an eta 14an; Bergarako Zabalotegikoa otsailaren 27an eta 28an –Elgetako, Bergarako eta Antzuolako haurrekin–; eta Arrasateko Amaia antzokiko grabaketa apirilaren 9an eta 10ean –Arrasateko eta Aramaioko parte hartzaileekin–.

Vene Herrero | Antzerkian aditua eta idazlea

# "Iraganaren eta orainaren arteko zubia izan zen Jose Estruch"

## *José Estruch: el teatro como nexo identitario* liburua idatzi du Vene Herrero arrasatearrak

**MAITE TXINTXURRETA** | ARRASATE

Jose Estruch Alacanteko antzerki zuzendariari buruzko liburua kalean dago jada.

**Nola erabaki zenuen *José Estruch: el teatro como nexo identitario* liburua idaztea?**

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean *Antzerkiaren historia eta teoria* amaitzean, zuzendari horri buruzko tesia egin nuen; bertatik sortu zen liburua.

**Nor zen Estruch eta zer nabarmenduko zenuke?**

Erbesteko antzerkia deritzonaren parte zen. Gerra zibilean erbesteratua, Frantziako kontzentrazio esparru batean izan zen, eta ondoren Ingalaterrara iritsi zen. Han, Gernikako bonbardaketaren ondotik ihesi joandako ume euskaldunak zaindu zituen, eta eurekin antzezlanak egiten hasi zen. Hamar urte geroago, Uruguaira joan eta antzerki zuzendari profesional egin zen, Movimiento Independiente deritzonaren erreferente bilakatu zen. Espainiara itzultzean, "sekulako kontzientzia eta espiritu krisia" izan zuen bertako antzerki panoramarekin topo egitean. Irakaskuntzan hasi zen, antzerkia berrituko zuten pertsonen formazioan. Iraganaren eta orainaren arteko zubia izan zen.


Vene Herrero. | AITZIBER ARANBURUZABALA

**Nolako liburua da? Zein motatako irakurleei zuzendua?**

Nondik gatozen, iragan kulturala nolakoa izan den eta Europan kultura arloan aldaketak posible egin zituztenak nortzuk ziren jakiteko interesa duen ororentzat egokia dela uste dut.

**Zein da liburuaren helburua?**

Erbestean galdutako hainbat izen garrantzitsurekin dugun zorraren zatitxo bat kitatzea.

**Beste proiekturik esku artean?**

Bai; erbesteari buruzko ikerkuntzan jarraitzen dut, eta, aldi berean, Lope de Ruedaren *Pasosen* edizio komentatua prestatzen dihardut. Bestalde, Estruchek kontzentrazio esparrutik bere aitari zuzendutako epistola liburua ere argitara atera nahi dut.



IMANOL SORIANO

# Belaunaldi ezberdinak gaztetxean

Urteari hasiera emateko Txorbela otxoteak kontzertua eskaini zuen gaztetxean. "Belaunaldi horren ezberdina izanik, kuriosoa izan zen; baina gonbidapena jaso genuenean baiezkoa eman genuen. Esperientzia oso polita izan zen, gainera, gutako asko ez gara–eta inoiz gaztetxe batean izan", azaldu du Tomas Aspek, Txorbelako kideak. 2016rako agenda beteta dauka otxote arrasatearrak eta Aste Santuan Galizian barrena bira hasiko dute. Disko bat grabatzeko asmoa ere badutela kontatu du Aspek.

# Beira taldearen bertso musikatuez gozatu ahal izango dute gaur gauean oñatiarrek

**M.T.** | OÑATI

Bertso musikatuak egiten dituen Beira izeneko taldea Oñatiko gaztelekuan izango da gaur gauean, VII. Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketako gonbidatu. Boskotearekin batera Maider Arregi bertsolari oñatiarra ere arituko da oholtza gainean.

22:30ean hasiko da kontzertua eta sarrerak bost eurotan izango dira salgai.

### Aurkezpen bira

Taldeak *Margotu berria* izeneko diskoa kaleratu berri du, euren bigarren lana, hain zuzen, eta hori aurkeztuko dute gaur Oñatin. Hain zuzen, aurkezpen birako lehen kontzertua izango da Gaztelekukoa.

Euren diskoetan bildutako bertso musikatuez gain, baina, argitaratu gabeko hainbat abesti ere joko ditu zuzenekoan boskoteak.


Oiartzunen sortutako taldea da Beira. | BEIRA TALDEA

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### 102. EROSI

**Baserria.** Baserri bat erosiko nuke. Baita errentan hartu ere. Eraikitzeko modulo lursaila ere hartuko nuke. Bergara inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 53 53 52

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Baserria ematen da errentan, San Blas auzoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 70 79 54

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

**Arrasate.** 3 edo 2 logelako etxebizitza errentan hartuko genuke Arrasate erdialdean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 34 29 60

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada, erdigunean hobeto. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 21 91 32

**Arrasate.** Logela bateko apartamentu baten bila nabil. Erdigunean. 400 euro ordaintzeko gertu. Pertsona bakarra. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 99 42 03

**Baserria errentan.** Baserri bila gabiltza Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 28 99 06

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean, ahal bada Matxiategin edo San Lorentzon. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 76 32 72 (Ainhoa)

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan, 2 logela eta berokuntzarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 82 45 52

**Bergara.** Hiru pertsonarendako modua etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa ondo legoke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

### 105. ETXEAK OSATU

**Logela errentan Oñatin.** Logela ematen da errentan erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 29 49

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Lokala ematen da errentan alde zaharrean, Artekale 5ean. Bi solairukoa, guztira 150 metro koadro ditu. Errenta ekonomikoa. Negozioa jartzeko edo 18 urtetik gorako partikularrendako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 00 71 46

## 4. LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Bergara.** Emakumea lanerako gertu, pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko edo bestelakoetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 49 94 96 edo 688 85 44 78

**Arrasate, Aretxabaleta edo Bergara.** Emakumea gertu goizetan lan egiteko: nagusiak zaindu edo kalera laguntzen, etxeko lanak egiten, lisatzen edota aldi baterako zaintza lanak egiten. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 39 38 13

**Arrasate.** 48 urteko emakume euskalduna, etxez etxeko zerbitzuko laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 71 50 14 (Maribel)

**Arrasate.** 57 urteko emakume euskalduna gertu orduka edo egun osoz lan egiteko: pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abarrean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89 edo 688 66 66 91

**Arrasate.** Nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

**Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

**Arrasate.** Nagusiak zaintzen eta garbiketak lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

**Bergara edo Arrasate.** Esperientziadun neska gertu goizetan nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Bergara.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak egun osoz zaintzeko. Euskalduna eta urte askotako esperientzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 65 30 62 (Arantzazu)

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan formazioa daukan gizona orduka lan egiteko prest. Goizetan edo gauetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 13 26 76

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 94 31 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxe, atari eta abarrak garbitzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo gaixoak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 37 74 21

**Debagoiena.** Emakumea gertu zaintza lanak egiteko: etxean bertan bizi izaten, egunez eta baita gauak egiten ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 98 20 91

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen neska gertu nagusiak zaintzeko. Orduka edo baita gauez ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua daukan mutil euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 69 98 13 edo 943 79 63 97

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila zaintza lanetarako gertu. Etxeko lanak egiten eta bertako jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 43 08 54

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Autoa daukat. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 59 39 87

**Debagoiena.** Etxeko eta baserriko lanetan, nagusiak zaintzen zein denetariko garbiketak egiten lan egingo nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 608 49 89 95 (Judith)

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaindu edo etxeko mantenu zein garbiketak egiteko. Ordutegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: banaketak, garbiketak edo bestelakoak. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Gizona zaintza lanak egiteko gertu. Autoa daukat eta ordutegi arazorik ez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 09 55 46

**Debagoiena.** Iturgintzan lan egingo nuke. Gertu nago beste lan mota bat egiteko ere. Euskara eta frantsesa dakizkit. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 28 21 52

**Debagoiena.** Laguntza behar duten pertsonak zaintzen esperientzia handia duen neska ikasketaduna, gertu nagusi eta umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako. Erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hiru urteko esperientzia daukat eta agiriak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 25 95 46

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Umeak zaintzen, garbiketak egiten edo sukaldari laguntzaile ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 85 64

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 45 97 18

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 90 51 50 (Argeli)

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin eta abarretarako gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 44 70 38

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, jardun osoz zein orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiei laguntzen, umeak zaintzen, tailerrean, lantegiak garbitzen zein bestelako lanetan aritu izan naiz. Ordutegi aldetik arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 85 48 45

**Debagoiena.** Neska gertu goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655 15 36 59

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo gaixoan zaintzeko. Eskarmentu handia dut eta geriatria titulua. Bestela, etxeetan orduka zein jardun osoz ere lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Esperientzia daukat zerbitzari moduan. Garbiketan edo tailerretan ere aritzeko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 09 37 90 (Eva)

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Bizileku-baimena daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 44 46 49

**Debagoiena.** Neska zaintza lanetan aritzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 57 73 13

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen edo etxeko garbiketak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 71 25 07

**Neska gaztea haurrak zaintzeko.** Neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Orduak eta egunak hitz egin behar dira. Udan ere lanerako prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 42 85 11

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Ingelesa.** Ingeles eskolak jasoko nituzke Bergaran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 36 68 02

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrasate.** 2.400 metro koadroko eraikigarria ez den lursaila salgai Makatzena auzoan. 15 metro koadroko zementuzko etxola eta komuna dauka. Ureztatze sistema dauka, frutadun eta basoko zuhaitzekin. Hesidun lursaila eta autoa sartzeko sarbidearekin. 60.000 euro. Interesatuok deitu 608 66 86 81 zenbakira edo idatzi mezua joxanaupatu@yahoo.es helbidera.

**Logelako altzariak.** Pertsona bakarrarendako logela handi bat janzteko altzariak salgai. Avatar etxekoak, kalitate oso onekoak. Idazmahaia, bi armairu handi, ohe indibiduala eta ohe gehigarria, kaxoi-altzaria eta apalak. Interesatuok ikustea komeni da. Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 72 25 24 (Julen)

**Ohe artikulatua.** Ospitaletan erabiltzen direnen moduko ohe artikulatua salgai. Mugimendu aukera guztiekin. Elektrikoa. Ohea egurrezko da. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 699 64 29 84 edo 945 44 51 83

### 802. EROSI

**Borda.** Borda erosiko nuke Bergara inguruan. Iristeko bide egokiarekin eta ura badago, hobeto. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 36 68 02

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000 €. Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. 130.000 €. Garajea aukeran.
- Madura, 65 m², 4 logela, 2 balkoi. 110.000 €. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m² 4 log, 320.000 € PREZIO JAITSIERA. Terraza, igogailua, patioa.
- Irizar, 93 m², 2 logela, 2 balkoi. Erdialdean. 180.000 € PREZIO JAITSIERA.
- Ibargarai, 105 m² 4 logela, balkoia. 420.000 €. Garajea aukeran.
- Artekale, 83 m², 3 logela, trastelekua eta igogailua. 155.000 €. AUKERA ONA.
- Ernai, 52 m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000 €.
- San Lorenzo, 85 m², 3 logela, garajea eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde, 74 m²+30 m² ganbara. Duplexa egiteko aukera. 170.000 €.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000 €. NEGOZIAGARRIA.
- Koldo Eleizalde, 87 m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztuta. 210.000 €.
- Burdiñate, 93 m² 3 logela, igogailua. 210.000 €. PREZIO JAITSIERA. Garajea aukeran.
- Masterreka, 72 m², duplexa. 150.000 €. ESTREINATZEKO. AUKERA ONA.
- Simon Arrieta, 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta, 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Zubieta, 125 m², terraza eta 2 orturekin. 2 etxe egiteko aukera 192.000 €.
- San Pedro, 90 m², 4 logela. 95.000 €. AUKERA ONA.
- Zabalotegi, 80 m², 2 logela, berriztuta. 156.263 €.
- Zabalotegi, 62 m², 3 logela. Berrizteko. 80.000 €.
- Artekale, 108 m², 3 logela. 120.000 €. OSO OSO NEGOZIAGARRIA.
- San Antonio, 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000 €. AUKERA ONA.
- Zubiaurre, 81 m², 2 logela, trastelekua. 73.000 €. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000 € PREZIO JEITSIERA. AUKERA ONA.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza, 60 m², 2 logela, erabat berriztuta. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Baserria, 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000 €.
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu, 85m² 3 logela. Igogailua. Berriztuta. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000 €. AUKERA BIKAINA.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa, 57 m². 2 logela. Oso ondo. 97.000 €.
- Errekalde, 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000 €. Garajea aukeran.

**ELGETA:**
- Gudarien Bidea, 75 m², berrizteko. 72.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m²garajea + 90 m² lursaila.

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Julian Aiastui Elortza**
Urtarrilaren 28an, 93 urte. Zorionak, Txantxi, bihotz-bihotzez familia osoaren partetik. Ondo-ondo ospatu eta jarraitu orain arte bezain irribarretsu.



ARRASATE
**Jon Laiseka Leturia**
Urtarrilaren 27an, 9 urte. Zorionak, maitia! Segi beti bezain alai eta ederto pasatu zure egunean! Noa, gurasoak, familia osoa, Naroa, Ximun, Hur,Libe, Garazi, Enaitz eta Libe.



BERGARA
**Irati Iriondo Igarza**
Urtarrilaren 27an, 11 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Alaine Da Silva Moreno**
Urtarrilaren 26an, 2 urte. Zorionak, *prexioxa*! Espero dogu egun berezixa izatia zuretzat. Jarraitu holako *salada* eta alaia izaten! Pilo bat maite zaitxugu; batez ere, Kenarrek.



BERGARA
**Jokin Dorado**
Urtarrilaren 25ean, 11 urte. Zorionak, maitia. 11 urte; ze azkar pasatu diren. Ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu handi bat eta 11 belarri tirakada. Familiaren partetik.



BERGARA
**Ainhoa Carazo Iturriaga**
Urtarrilaren 23an, 41 urte. Familiaren partetik, egun zoriontsua izan dezazula!



ARRASATE
**Luken Ormaetxea Artola**
Urtarrilaren 23an, 10 urte! Zorionak, laztana! Zure aldean Urrezko Baloiak hutsa balio du!



OÑATI
**Asier Nogueiras Guzman**
Urtarrilaren 23an, 8 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu zure egunian eta urte askotarako. Muxu handi bat familixaren eta bereziki Anderren partetik.



ESKORIATZA
**Ibai Apraiz**
Urtarrilaren 22an, 8 urte. Zorionak, Ibai! Etxeko guztien partetik. Patxo potolo-potolo bat.



MUTRIKU
**Oihan Iriondo Lasaga**
Urtarrilaren 22an, 6 urte. Zorionak, gizontxo! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta patxo asko etxekoen eta, batez ere, moñoñaren partetik! Maite zaitugu.



BERGARA
**Mara Fernandez Tamayo**
Urtarrilaren 22an, 6 urte. Mara, zorionak amatxoren eta aitatxoren partetik!



ESKORIATZA
**Aimar Ortiz Esnaola**
Urtarrilaren 21ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasa dezazula opa dizugu familia guztiak; bereziki aitatxok, amatxok eta Anerrek. Asko maite zaitugu.



ANTZUOLA
**Ekhi Irizar Martinez**
Urtarrilaren 21ean, urtebete. Zorionak, maitxia! Urte zoragarri bat pasatu dogu zure onduan. Ez galdu alaitasun hori. Patxo handi bat aitatxoren eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Balendin eta Leire Letona**
Balendinek urtarrilaren 21ean, 41 urte eta Leirek 23n, 2 urtetxo. Zorionak, bikote, etxeko danon partetik. Patxo handi bana.



ARETXABALETA
**Hilario Bartolome eta Amets Esnal**
Aitaita Hilariok urtarrilaren 20an, 68 urte eta Ametsek urtarrilaren 21ean, 2 urte. Zorionak, bikote!



BERGARA
**Olatz Basterra Fernandez de Jauregi**
Urtarrilaren 20an. Hemezortzi pasata, Nola zera bizi? Hara hona juergetan, Eritmoa ezin jeitsi, Neguan guante ta udan Polen eta guzti. Zorionak, Moñi!



ARRASATE
**Eider eta Goiatz Fernandez Bellido**
Urtarrilaren 20an, 4 urte. Zorionak, printzesak! Heldu da eguna! Ondo pasatu eguna! Muxu potolo asko!



OÑATI
**Egoi Ibabe Kerexeta**
Urtarrilaren 19an, urtebete. Zorionak, pototo, etxeko danon eta, batez be, Unairen partetik!



ANTZUOLA
**Uxue eta Eñaut San Sebastian**
Zorionak, bikote! Uxuek urtarrilaren 19an, 7 urte eta Eñautek urtarrilaren 21ean, 5 urte. Muxu handi bana etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Axel Anduaga Cortes**
Urtarrilaren 19an, 2 urte. Zorionak, txikitxo! Bi urtetxo jada; ze handi ein zaren! Ondo-ondo ospatuko dogu eguna, *kaiño*. Muxutxu asko, familixako danon partetik! Mua!



BERGARA
**Olatz Gallastegi**
Urtarrilaren 19an, 12 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Musu handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Maria Galan**
Urtarrilaren 18an, 11 urte. Zorionak, *guapa*! Ze handi jada! Txokolatezko muxu pila bat familiaren eta, batez be, Izarren, Ekaitzen, Oierren, Eleneren eta Ametsen partetik.



ARRASATE
**Eider Kortabarria Aranzabal**
Urtarrilaren 18an, 8 urte. Zorionak, bihotza! Zortzi urte jada gure bizitza alaitu zenuenez gero. Segi irribarre polit horrekin! Asko maite zaitugu!



ARRASATE
**Hodei Zabala Miguelez**
Urtarrilaren 18an, 6 urte. Zorionak etxeko danon partetik!



OÑATI
**Ane Samaniego Uribarren**
Urtarrilaren 17an, 6 urte. Zorionak, pixpirintxo! Kiloka zorion zure amatxoren, aitatxoren, Beñaten, Laiaren, tia Iduren, tio Mikelen, amama Adoren eta aittonaren partetik.



OÑATI
**Naroa Tome Caballero**
Urtarrilaren 17an, 13 urte. Zorionak, txapelduna! Kiloka zorion eta besarkada goxo bat zure urtebetetze egunean, Aneren, Jonen eta Jaioneren partetik.



ARETXABALETA
**Josu eta Malen Antxia**
Urtarrilaren 17an, 9 urte. Zorionak, bikote. Ondo ospatu eta pasatu zuen urtebetetzea. Musu handi bat, etxekoen partetik.



BERGARA
**June Arando Salaberria**
Urtarrilaren 16an, 12 urte. Zorionak, June, eta eskerrik asko 12 urte hauengatik. Jaso patxo potolo-potolo bat etxeko guztion eta bereziki Malenen, Uxueren eta Aneren partetik.



OÑATI
**Haizea eta Aner Lizarralde**
Urtarrilaren 16an, 2 urte. Zorionak, Haizea eta Aner! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna! Muxu handi bana, etxeko danen partetik! Mua!



ARRASATE
**Jone Rodriguez Corral**
Urtarrilaren 15ean, 19 urte. Gurasoen eta ahizpa Nagoreren partetik, zorionak, Jone!



BERGARA
**Irati Gallastegi Akizu**
Urtarrilaren 13an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARRASATE
**Irati Zaitegi Manzanas**
Urtarrilaren 13an, 9 urte. Zorionak, Irati! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Alaitzen partetik.



OÑATI
**Nerea Uriarte**
Urtarrilaren 13an, 20 urte. Zorionak, Nerea! Eguna ondo fan izana espero dogu! Zure gelakide kuttunen partetik, patxo handi bat!



ARRASATE
**Irati Etxeberria Guillaumes**
Urtarrilaren 13an, 6 urte. Zorionak, Irati! Muxu handi-handi bat danon partetik!



ANTZUOLA
**Aiur Rodriguez Jauregi**
Urtarrilaren 10ean, 2 urte. Zorionak, maitia, aitaren, amaren, Xubanen, Danelen eta amama eta aititaren partetik. Baita Azpeitxiko familiaren partetik ere.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# ASTEA GOIENAN


GOIENA

## Osoko bilkurak osorik ikusgai telebistan

Astelehenean Bergaran izango den osoko bilkura eskainiko da osorik Goiena telebistan martitzenean, hilak 26. Eta egubakoitzean, berriz, Oñatin eguenean egingo den osoko bilkura ikusgai izango da, herriko kontuen berri gertutik jarraitu ahal izateko.
**'Osoko bilkura: Bergara'**
Martitzena, 22:00



GOIENA

## Etxeko txikienendako 'Korapilo' saioa

Maddi aurkezleak aurreko asteburuan elurra zapaldu zuen, eta horren aitzakian egindako saioa ekarriko du zapatuan. Mari Kalanbrek, bestetik, esperimentuak egingo ditu saioan eta Arrasateko Peru gaztetxoa izango du laguntzaile.
**'Korapilo'**
Zapatuan, 10:00

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 22
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** EKT
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Zaindu zaitez
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Lurrean bizi
**17:30** Ikusi irratia
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Muga barik
**19:30** EKT
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### ZAPATUA, 23
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Astea iruditan
**12:05** Geure altxorrak
**12:30** Muga barik
**13:00** Elkarrizketa: Mikel irizar
**14:15** Zorion Agurrak
**14:20** Onein
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Lurrean bizi
**16:35** Platopic
**17:00** Korapilo
**17:30** Kantari
**18:00** Platopic
**18:30** Amaia DJ
**19:00** Debagoiena zuzenean
**20:00** Astea iruditan
**20:05** Muga barik
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Lurrean bizi
**21:30** Geure altxorrak
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:05** Elkarrizketa: Mikel irizar
**00:20** Amaia DJ
**00:50** Debagoiena zuzenean
**01:50** Astea iruditan

### DOMEKA, 24
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Platopic
**11:20** Zorion Agurrak
**11:30** Mahai-ingurua: Euskara hedabideetan
**12:30** Debagoiena zuzenean
**13:30** Astea iruditan
**13:35** Hurbilean
**14:00** Elkarrizketa: Mikel irizar
**15:45** Lurrean bizi
**16:00** Zorion Agurrak
**16:05** Amaia DJ
**16:30** Korapilo
**17:00** Kantari
**17:30** Platopic
**18:00** Zaindu zaitez
**18:30** Mahai-ingurua: Euskara hedabideetan
**19:30** Debagoiena zuzenean
**20:25** Astea iruditan
**20:30** Lurrean bizi
**21:00** EKT
**21:30** Debagoiena zuzenean
**21:55** Astea iruditan
**22:00** Zaindu zaitez
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:30** Geure altxorrak
**00:00** Hurbilean
**00:30** Muga barik

### ASTELEHENA, 25
**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Kantari
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Hurbilean
**17:30** Ur eta lur
**18:00** Lurrean bizi
**18:30** Berriak
**19:00** Zaindu zaitez
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Harmailatik

### MARTITZENA, 26
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Ikusi irratia
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Hurbilean
**17:30** Geure altxorrak
**18:00** Platopic
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Kantari
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Osoko bilkura: Bergara
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Harmailatik
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak
**01:30** Osoko bilkura: Bergara

### EGUAZTENA, 27
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Osoko bilkura: Bergara
**13:30** Korapilo
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Osoko bilkura: Bergara
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**18:00** Harmailatik
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Osoko bilkura: Bergara
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Hurbilean
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Osoko bilkura: Bergara
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

### EGUENA, 28
**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Lurrean bizi
**13:00** Mahai-ingurua: Euskara hedabideetan
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Zaindu zaitez
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Mahai-ingurua: Euskara hedabideetan
**18:00** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Kantari
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Mahai-ingurua: Euskara hedabideetan
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Elkarrizketa: Mikel irizar
**01:15** Debagoiena zuzenean
**01:45** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### 'Barbantxo' haur antzerkirako sarrerak zozketatuko dira

Hilaren 30ean Amaia antzokian izango da Logela Multimedia taldea Barbantxo antzerkiarekin, eta bertara joateko sarrerak zozketatuko dira hurrengo egubakoitzeko zozketan. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora, edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera. Zorte on!

### Sonic Trash taldea entzuteko sarrerak zozketan eguenean

*Kooltur Ostegunak* egitasmoaren barruan, eguenean Sonic Trash taldeak eskainiko du kontzertua Arrasateko gaztetxean eta bertara joateko sarrerak zozketatuko dira egueneko zozketan. *Latigo* diskoa aurkeztuko dute; rocka, punka, indie-rocka eta popa landuko dituzte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 22** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Zapatua, 23** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Domeka, 24** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Astelehena, 25** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **Martitzena, 26** | M.FCA. AZKOAGA | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| **Eguaztena, 27** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguena, 28** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 22** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Zapatua, 23** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Domeka, 24** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Astelehena, 25** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Martitzena, 26** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguaztena, 27** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguena, 28** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 22** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Zapatua, 23** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 24** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 25** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 26** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 27** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 28** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



Max. 13º
Min. 3º

**ZAPATUA, 23**
Hodeiak ugaritu eta baliteke euri pixka bat egitea. Hegoaldeko haizeak joko du eta tenperaturak gora egingo du egunez.



Max. 14º
Min. 4º

**DOMEKA, 24**
Domekan hegoaldeko haizeak jarraituko du eta tenperatura pixka bat gehiago igo daiteke. Hodeitza izango da.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### LANA

**Diseinatzaileen lan-poltsa Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan.** Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak diseinatzaile gazteekin harremana izan nahi du 2016an sortuko diren lanak antolatzeko. Lan-poltsa bat osatuko da izena eman eta aukeratzen diren diseinatzaileekin, eta urtean zehar, beharren arabera, lanak banatuko dira ekintza bakoitzeko aurrekontu zehatzak adostuz. Baloratuko da: 18-30 urte bitarteko gaztea izatea edo pertsona gaztez osaturiko enpresa izatea; bai gaztelaniaz bai euskaraz lan egiteko gaitasuna eta EGKren kidea den entitate batean egotea edo plataformarekin loturaren bat izatea. Proiektuak aztertuko dira eta pertsona guztiei jakinaraziko zaie aukeratuak izan diren edo ez. Epea: hilak 29. *komunika@egk.org.*

### BEKAK

**2016. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko 3 beka.** Emakunde. Baldintzak: ikerlana EAEn egitea, hizkera ez sexistan idatzita egotea, aurrez beste erakunde publiko edo pribaturen baten beka berdin edo antzekorik jaso gabeak izatea. Kontaktua: Emakunde, Manuel Iradier 36, Gasteiz. Bekan izena emateko azken eguna izango da: otsailak 10.

### LEHIAKETAK

**Hegazkin bidaia.** Eusko Jaurlaritza. Auzolandegiak programako kartel garaileen egileak joan-etorriko hegazkin bidaia bat irabaziko du Hego Amerikako herrialde batera. Epea: otsailak 11.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

OROIGARRIA

## Bixente Errasti Villar



2016ko urtarrilaren 17an hil zen, 61 urte zituela.

*Azkarregi iritsi da agurra.*
*Baserri eta kaleak betetzen zenituen zure bizipozarekin.*
*Orain, zure bidea jarraituko dugu eta irribarre egitean*
*zure omenez beteko ditugu txoko guztiak.*
*Hartu atseden, tio Bixente, zauden lekuan zaudela,*
*muxu eta besarkada bero bat!*

**Zure ilobak.**
**Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 22an.**

OROIGARRIA

## Migel Inza Goikoetxea

2016ko urtarrilaren 18an hil zen, Valladoliden.

*Angiozartik Gaztelara*
*eredu apala izan zara*
*bizitzaren nondik nora*
*besarkatuz, zatoz berriz gora*
*Jakobeneko altzora.*

**Bergaran (Angiozar), 2016ko urtarrilaren 22an.**

## HILDAKOAK

**Bizente Larrea Zubia.** Oñatin, urtarrilaren 13an. 81 urte.
**Rikardo Txintxurreta Nazabal.** Oñatin, urtarrilaren 13an. 94 urte.
**Sebastian Barriocanal Barriocanal.** Arrasaten, urtarrilaren 14an. 92 urte.
**Rikardo Ibabe Elortza.** Oñatin, urtarrilaren 14an. 91 urte.
**Maria de Blas Diez.** Bergaran, urtarrilaren 15ean. 80 urte.
**Maria Rico Navarro.** Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 96 urte.
**Felix Fuentes Galindo.** Arrasaten, urtarrilaren 16an. 77 urte.
**Bixente Errasti Villar.** Arrasaten, urtarrilaren 17an. 61 urte.
**Esteban Galdos Aiastui.** Oñatin, urtarrilaren 17an. 88 urte.
**Migel Inza Goikoetxea.** Valladoliden, urtarrilaren 18an.
**Alberto Sanz Hoya.** Arrasaten, urtarrilaren 20an. 81 urte.
**Maria Jesus Elortza Izagirre.** Arrasaten, urtarrilaren 20an. 59 urte.

ESKER ONA

## Rikardo Ibabe Elorza



2016ko urtarrilaren 14an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Oñatin, 2016ko urtarrilaren 22an.**

URTEURRENA

## Vidal Garcia Delgado



2015eko urtarrilaren 21ean hil zen, 79 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 23an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2016ko urtarrilaren 22an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*



**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo eskelak@goiena.eus

Eskelaren prezioa: 140 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako, 125 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

# ZINEMA

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**Truman**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Aviones de papel**
Domeka: 17:00.

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**Los odiosos ocho**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Olentzero eta Amilaren sekretua**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## EIBAR

### COLISEO

**Sufragistas**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La quinta ola**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**45 años**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### ANTZOKIA

**La quinta ola**
Zapatua; 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Koko, dragoi txikia**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## GASTEIZ

### BOULEVARD

**La quinta ola**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 19:10, 20:10, 22:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Alvin y las ardillas**
Egubakoitzetik eguenera: 17:55, 20:00.
Zapatua eta domeka: 16:00, 17:00.

**La gran apuesta**
Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Los odiosos ocho**
Egubakoitza, domeka, eta astelehenetik eguenera: 17:30, 18:30, 20:45, 21:45.
Zapatua: 15:30, 17:15, 18:45, 20:30, 22:00, 23:45.

**Star Wars**
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:45.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Star Wars 3D**
Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera, eguaztena izan ezik: 21:30.

**Palmeras en la nieve**
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 22:00.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**La chica danesa**
Egubakoitzetik eguenera: 17:55, 20:15, 22:35.
Zapatua eta domeka: 15:35.

**El puente de los espias**
Zapatua: 22:30.
Egubakoitza, domeka eta astelehenetik eguenera: 22:00.

**Ocho apellidos catalanes**
Egubakoitzetik eguenera, eguaztena izan ezik: 17:40, 19:50.
Eguaztena: 21:30.

**Steve Jobs**
Egubakoitzetik eguenera: 22:00.
Zapatua: 00:30.

**Joy**
Egubakoitzetik eguenera, eguaztena izan ezik: 20:00, 22:30.
Eguaztena: 22:30.

**Padres por desigual**
Zapatua eta domeka: 15:45.

**Carlitos y Snoopy**
Egubakoitzetik domekara: 17:45.

**El viaje de Arlo**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Sufragistas**
Astelehenetik eguenera: 17:45.

### FLORIDA

**La chica danesa**
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**Sufragistas**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:10.

**La juventud**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehetik eguenera: 17:30, 20:00.

**El hijo de Saul**
Egubakoitzetik domekara: 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

**Ocho apellidos catalanes**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

**El viaje de Arlo**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Los odiosos ocho**
Egubakoitzetik domekara: 16:50, 19:20.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**La quinta ola**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00.

**Palmeras en la nieve**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Joy**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La gran apuesta**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00. 16:45, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**El puente de los espias**
Egubakoitzetik domekara 16:45:
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Alvin y las ardillas**
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Hotel Transilvania 2**
Zapatua eta domeka: 12:00.

## KRITIKA

# Gertakizun itogarriak

**EL HIJO DE SAUL** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Laszlo Nemes
**Herrialdea:** Xxxx.
**Aktoreak:** Urs Rench, Levente Molnár,Géza Röhrig.

Kontu handia izan behar du, zineman, holokaustoa jorratu nahi duenak. Batek baino gehiagok esan du naziek sortutako kontzentrazio-esparruetan burututako ekintza beldurgarriak iruditan jartzea ez dela posible. Horrela, eztabaida ugari izan dira: batzuetan, gehiegi erakusten delako, eta hori arinkeriaz aritzea eta jasandako infernu hori ikuskizun bihurtzea dela diotelako; eta beste batzuetan, emandako tratamendua bigunegia delako eta ez duelako islatzen behar den bezala halako lekuetan gertatutakoa.

Hori dena kontuan izanik, Laszo Nemesek oso proposamen arriskutsua eta gogorra ekarri digu. Saul Auschwitz kontzentrazio-gune bateko *sonderkomando* bat da. Hau da, judua izanik, nazientzako lan egin behar du: jendea gas-ganbaran sartu behar du, horien arropak bildu, gorpu guztiak jaso eta sarraskiaren arrastoak garbitu, gorpuak errausketa-labeetan sartu eta gero, errautsak batu eta errekara eraman bertan botatzeko. Hori da euren bizitza, behin eta berriz. Hala, bizitzeko denbora luzeagoa zuten. Agian, ihes egiteko aukera izango zuten edo kanpoko gudariak helduko ziren handik ateratzeko. Zuzendariak eguneroko bizitza islatzen digu. 1:37ko formatua erabiltzen du: kamera denbora guztian mugimenduan Saulen pauso guztiak jarraituz. Planoak iraupen handikoak dira eta planoaren sakontasuna oso murriztua: Saul ondo enfokatuta ikusten dugu, baina bere ingurunean gertatzen dena lausotuta ageri da. Antzeman dezakegu gertatzen den guztia soinuarekin lagunduta. Soinuak irudiak bezain garrantzitsuak dira, eta, horrela, plano itxiekin, kameraren etengabeko mugimenduarekin, soinu boteretsuarekin eta gauza lausotuekin, ikuslearengan itomen sentsazioa sortzen du. Oso film interesgarria da, baina itogarria.

ANTONIO ZABALA

# NON-ZER

URTARRILA 22
URTARRILA 28

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**OÑATI La Otra bakarlaria**
*Pa'fuera y pa'dentro* diskoa aurkeztuko du feminista eta militante errebeldea den bakarlariak. Sarrerak, hiru euro.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**ARRASATE Taupada, Alter Ego eta Nekrobabies taldeak**
UZ Invasion jaialdia egingo dute Urretxuko, Zumarragako eta Legazpiko taldeek. Doako emanaldia izango da.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI Beira taldea**
Jon Maia bertsolariaren taldeak diskoa aurkezteko bira hasiko du. Sarrerak, bost euro.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

**ARRASATE Mara**
Bakarlariaren kontzertua.
Gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 22:30ean.

**OÑATI El Exterminio de la Raza del Mono, Las Tuercas eta Oldarkort**
Punk doinuak protagonista.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 21:00etan.

**OÑATI Josu Bergara**
*Kanta txikien indarra* delako diskoa aurkeztuko du, Dani Gonzalezen eta Nerea Alberdiren laguntzarekin.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:00etan.

**BERGARA Mariatxen Urkia eta Jose Luis Frantsezena**
Organoa lagun dutela egingo dute emanaldia. Sarrerekin batutako dirua Stoltz-Freres organoa konpontzeko erabiliko dute. Sarrerak, bost euro.
Etzi, domeka, Santa Marinan, 19:00etan.

## GAZTELEKUAK

**ANTZUOLA Afaria**
Elkarrekin afalduko dute.
Gaur, egubakoitza, gazte txokoan, 18:00etan.

**ARRASATE Gore tailerra**
Aratusteetako beldurrezko mozorroendako makillaje ikastaroa egingo dute aste bukaeran.
Aipatutako egunetan, erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

**ESKORIATZA Grafiti tailerra**
Marraztu gura dena pentsatu eta lehen zirriborroa egingo dute aste bukaeran.
Aipatutako egunetan, gaztelekuan, 17:00etan.

**ARETXABALETA Mahai-jolasak**
Askotariko mahai-jolasak erabiliko dituzte.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:00etan.

**BERGARA Mahai-jokoak**
*Jungle Speed* eta *Kaleidos* jokoak estreinatuko dituzte.
Bihar, zapatua, Xabaloten, 17:30ean.

**ARETXABALETA Zinema emanaldia**
Akziozko pelikula ikusiko dute.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 17:00etan.

**ANTZUOLA Proposamenak**
Gazteek iradokizunak egiteko aukera izango dute.
Etzi, domeka, gazte txokoan, 17:00etan.

**BERGARA Zinema**
Gazteek erabakiko dute zein pelikula ikusi.
Etzi, domeka, Xabaloten, 17:30ean.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Egurrezko tailak**
Eskoba makilarekin, pagoaren zati batekin eta intxaurrondo baten egur pusketarekin egindako tailak ikusgai.
Urtarrilaren 24ra arte, Aroztegin.

**ARRASATE 'Udazkena Debagoienean'**
Arrasateko Artgazki Elkarteak deitutako lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa eta salmenta. Batutako dirua, Aspanogi elkartearendako izango da.
Urtarrilaren 31ra arte, Kulturaten.

**OÑATI Gurutze Mujikaren lanak**
Oihal gainean egindako 25 olio-lan ipini ditu Aretxabaletan bizi den margolariak.
Domekara arte, kultura etxean.

**ARRASATE 'Paisaia astronomikoak'**
Suxe Santin argazkilari arrasatearrak argazki erakusketa ipini du. Leku publikoetan dauden eraikin erraldoiak eta "astronomikoak" ditu oinarri.
Urtarrilaren bukaera arte, Kajoi tabernan.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**




Aretxabaletako Udalari esker
Juan Muñoz bakarrizketariaren ikuskizunerako sarrerak ditugu.
**Aretxabaletan. Zaraia aretoan.**
**Urtarrilaren 29an, 20:00etan**

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO: (URTARRILAREN 27A BAINO LEHEN)
**E-posta:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA JuanMuñoz [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba



Arrasateko Udalari esker
'Barbantxo' antzezlana ikusteko sarrerak ditugu.
**Arrasaten, Amaia Antzokian**
**Urtarrilaren 30ean, 17:00etan**

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO: (URTARRILAREN 27A BAINO LEHEN)
**E-posta:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Barbantxo [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba



Oñatiko Udalari esker
Anari abeslariaren kontzerturako sarrerak ditugu.
**Oñatin, Gaztelekuan.**
**Urtarrilaren 29an, 22:00etan**

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO: (URTARRILAREN 27A BAINO LEHEN)
**E-posta:** kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA Anari [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus
goienakluba

Bixente Barandiaranen lanak, eta burdinak Arrasaten izandako eragina hizpide dituen erakusketa iraunkorra.
Harresi aretoan ikusgai.

**ELGETA Mendiko ilustrazioak**
Karmelo Oñateren lanak.
Otsailaren 10era arte, Espaloian. 19:00etan.

## ANTZERKIA

**ESKORIATZA 'Nick Maritxu, Nick Bartolo' antzerkia**
Ylenia Baglieto eta Ugaitz Alegria aktoreekin. Maritxu eta Bartolo ezizenekin gazte bik txatean topo egingo dute. Denbora batez Internet bidez komunikatzen egon eta gero zita egitea erabakiko dute.
Etzi, domeka, Zaldibaren, 17:00etan.

**OÑATI 'Etxekoak' antzezlana**
Huts Teatroa taldearen antzezlana. Txiroa, beltza eta afrikarra da Maddiren mutil-laguna. Egoera horrek etxean sortzen dituen aurreiritzien kontra egin beharko du. Ander Lipus, Maika Etxekopar, Javier Barandiaran eta Kristiane Etxaluz oholtza gainean. Sarrerak, hamar euro. Aurrez *Bibe.me* helbidean.
Etzi, domeka, Santa Anan, 19:30ean.

## LITERATURA

**OÑATI Apatxiren ipuin kontaketa**
*Txikitxoen jardunaldiak* egitarauaren barruan.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

**ELGETA Ipuinen ordua**
3 urtetik gorako neska-mutikoendako ipuin kontaketa saioa.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

**ARAMAIO 'Ir a kurrin kurrin' saioa**
Afari sahararra izango dute eta ondoren *Smara* liburuaren gainean jardungo dute.
Gaur, egubakoitza, San Martin eskolan, 20:00etan.

**ARETXABALETA 'Zu eta ni'**
Dorleta Kortazarren saioa.
Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.


GOIENA

**ARRASATE Jabier Muguruzak disko berria aurkeztuko du**
*Tonetti anaiak* da kantautorearen hamalaugarren lanaren izena. Muguruzak berak idatzitako testuak dira nagusi eta horiek jazz ukituarekin jantzi ditu. Diskoaren grabazioa Mikel Azpiroz pianistak zuzendu du. Sarrerak, hamar euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.


WWW.LATRIBUNADEALBACETE.ES

**ELGETA Toni Bright mentalista**
Ikusleen pentsamenduak irakurri, objektuak burmuinarekin mugitu eta espirituekin kontaktatu. Horiek dira mentalismo ikuskizunaren oinarriak. Emanaldi dinamikoa, atsegingarria, harrigarria eta dibertigarria izango dela dio Brigthek. Sarrerak, Pol-Pol tabernan hamabi eurotan eta leihatilan, hamaseitan.
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

**ARRASATE 'Mundutik Arrasatera'**
Bibliotekak, Gizarte zerbitzuak eta Ekin Emakumeak Taldeak azaroan martxan ipinitako egitasmoaren bigarren saioa. Oraingoan Venezuelako ipuinak izango dira protagonista Marisol Abreureki eta Vanesa Gonzalezekin. Bost urtetik gorako umeendako ipuinak kontatuko dituzte, euskaraz eta gazteleraz
Urtarrilaren 26an, Kulturaten, 18:00etan.

## OSPAKIZUNA

**OÑATI Ekitaldia Elkar Hezin**
Bi ekintza: 7-12 urte artekoendako *Zigortzaileak* filma; eta 2-6 artekoendako *Espektakulus clown* ikuskizuna Irazan taldearekin. Ostean, txokolate-jana.
Bihar, zapatua, Lehen Hezkuntzako eraikinean, 17:00etan.

## BERTSOLARITZA

**OÑATI Bertso-paper lehiaketako sari banaketa**
Jon Martin bertsolaria egongo da zazpigarren txapelketako sariak banatzen. Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleek parte hartu dute.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI 'Banatzea, galera. Banaketa eskolaratzean'**
Haurdun daudenendako eta 0 eta urtebeteko haurren gurasoendako berbaldia.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

**OÑATI Yolanda Arrieta**
2015ean, gazte literatura arloko, Euskadi literatura saria irabazi zuen *Argiaren alaba* lanarekin. Liburua aurkeztu eta solasaldia egingo du.
Urtarrilaren 28an, euskaltegian, 18:00etan.

## OHARRA

**ANTZUOLA Loteria kobratzeko**
Landatxopen saldutako 94.010 zenbakiaren partizipazioek bost euroko saria jaso dute. Sarituek erretiratuen egoitzan kobratu beharko dute dirua urtarrilaren 25ean.
Landatxopen, aipatutako egunean.

## IKASTAROAK

**ARRASATE Mandalak nola margotu**
Harrietan mandalak margotzen eta marrazten ikasteko aukera otsailaren 13an eta 20an, 8 urtetik gorakoendako. Informazio: 943-04 84 46 edo 628 67 35 50 telefonoetan edo *olgeta@olgeta.eus* helbidean.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARETXABALETA Irakurketa kluba**
3 eta 5 urte arteko haurrendako eta horien gurasoendako kluba sortu gura dute. Hiru saio egingo dituzte: urtarrilaren 26an, otsailaren 16an eta martxoaren 15ean. Izen-ematea, liburutegian.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

**ARRASATE Biodantza ikastaroa**
Mentxu Arjonillak emango du ikastaroa martitzenetan, 18:30ean. Izena emateko: 626 66 12 92.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARETXABALETA Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu eskolak martitzenetan (17:30 eta 20:00) eta eguenetan (17:30). Interesatuek 616 96 57 95 telefonora deitu beharko dute.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**ARRASATE Yoga ikastaroa**
Encarna Mendezek emango ditu nagusiendako eskolak astelehenetan eta eguaztenetan (16:45). Izena emateko edo informazioa eskatzeko 616 96 57 95 telefonora deitu behar da.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

**OÑATI Elurrari buruzko ikastaroa**
Elurraren egoera aztertu eta dituen arriskuak aztertzen ditu *Nivologia* delakoak. Bi orduko ikastaroa egingo dute Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik, otsailaren 5ean eta 6an. Gainera, Gabarditon saio praktikoa egingo dute. Izen-ematea eta informazioa Aloñaren egoitzan.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

## UMEAK

**BERGARA Aurpegia margotzeko tailerra**
Euren aurpegia nola margotu ikasiko dute neska-mutikoek. Ostean, txokolate-jana.
Gaur, egubakoitza, Oxirondon, 18:00etan.

**ARETXABALETA Kantariren grabaketak**
Eskoriatzako eta Aretxabaletako umeek euren koreografiak egingo dituzte Amaia Txintxurretaren laguntzarekin. Bosgarren Kantariko lehen grabaketak.
Bihar, zapatua, Arkupen, 16:00etan.

**ARRASATE Ate irekiak hiru ludoteketan**
Okendon eta Usaetxen pizzak egingo dituzte eta Santa Marinan, taloak.
Urtarrilaren 28an, ludoteketan, 17:00etan.

goienagida
2016
DEBAGOIENEKO MERKATARITZA GIDA





LASTER JASOKO DUZU
DEBAGOIENEKO GIDA OSATUENA!
Eskerrik asko bertan parte hartu duzuen bezero guztiei!

ARRASATE ARETXABALETA
ESKORIATZA LEINTZ GATZAGA
ARAMAIO OÑATI BERGARA
ANTZUOLA ELGETA

Sarean, mugikorretan, tabletetan eta paperean

WWW.GOIENA.EUS/GIDA

**Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!**



Leintz Gatzagako Soran jatetxeko almendra gainerrea izozkiarekin.

**puntua**

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07*

goienakluba



BUKATZEKO

# Kaxa erotiko pertsonalizatuak

▶ LEINN graduko azken kurtsoko ikasle talde batek sortutako proiektua da, Enpresagintza Fakultatean

▶ Eskuburdinak, emakumeendako bibragailua eta txokolatezko krema ditu San Valentin kaxak

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Oñatiko Enpresagintza Fakultateko LEINN graduko azken kurtsoko ikasle talde batek kaxa erotiko berezia osatu du San Valentin egunerako. Jostailu erotikoez gain, kaxa eskatu gura duen bikotean oinarritutako testu erotikoa ere badu. Maite de Jesus eskoriatzarra eta Ainara Gonzalez bergararra dira talde horretako kideetako bi. "Neskendako Tupersex bilera baten geundela, sexuari buruz berba egiten hasi eta merkatuan dauden produktuak aipatzen bukatu genuen. Aukera asko daude, baina pertsonalizazio puntua falta zaie guztiei. Ukitu berezi hori emate aldera sortu dugu kaxa erotikoa", esan dute.

Eta zeintzuk dira pertsonalizazio puntu hori lortzeko ematen dituzten aukerak? Bada, bikotekide bakoitzak aukeratzen ditu gura dituen jostailu erotikoak, eta, horiek erabili aurretik, biek ala biek, protagonistak diren istorio erotikoa irakurri beharko dute. Hori ere pertsonalizatu egiten dute, bikoteak emandako datuen eta ezaugarrien arabera. "Erotismoa eta pertsonalizazioa bateratzea lortu dugu. Aukera ezberdinak izan ditugu, eta, hainbat aldaketaren ostean, San Valentin egunerako kaxa berezia sortu dugu", dio Gonzalezek.



Maite de Jesus kaxarekin. | MIREIA BIKUÑA

### Fantasia erotikoak

Otsailaren 14rako kaxa erotikoak hiru elementu ditu: eskuburdinak, emakumeendako bibragailua eta gorputzean emateko txokolatezko krema; eta bikotearen arteko une goxo hori apaintzeko petalo gorriak.



'Moment' kaxa. | M.B.



San Valentin kaxa. | M.B.

Hortik abiatuta, bezeroek gura dituzten aldaketak egin ditzakete. "Kaxaren pertsonalizazio puntua bezeroek aukeratzen dute", esan du De Jesusek.

Bikotearen ezaugarriak eta euren fantasia erotikoak kontuan hartuta sortzen dute kaxa barruan doan kontakizuna.

### Salmenta Internetez

Kaxa erotikoa sortu ostean, salmentarekin hasi dira eta sare sozialetan euren produktuak zabaltzen hasi dira. Facebooken sartuta *Eróticamente correcto* da bilatu beharrekoa. "Kaxak bidali ditugu dagoeneko Bartzelona eta Madril aldera. Oso gustura jaso dituzte", aipatu dute.

AZKEN BERBA

**IDOIA ETXEBERRIA**



## Barrutik

Barrutik ala kanpotik bizi. Aldea egoten da.

Urte dezente daramatzat Donostian bizitzen. Igaro berri dena urteko egunik onena da donostiar askorentzat: San Sebastian eguna. Hunkitu egiten dira. Danbor hotsek oilo-ipurdia jartzen diete. Sebastianen martxak malkotan jartzen ditu. Eta ni harrituta, begira.

Lata ederra iruditzen zitzaidan. 24 orduz danborra jotzen. Ez zidaten lorik egiten uzten. Isildu behingoz, aspergarriok! Parrandara atera beste erremediorik ez nuen izaten. Eta tabernetan ere danbor doinu berak. Behin eta berriz. Astunak! Atera beste trago bat. Leher eginda iristeko etxera. Elefante maratoi batek ere ez iratzartzeko moduan. Eta hurrengo egunean lanera. Kauen Sebastian.

Beti esaten nuen: ez da posible. Honek barrutik bizita desberdina izan behar du. Derrigor. Egunen batean probatu behar dut. Eta aurten izan da. Jai hartu dut lanean. Bai, danborrada batean hartu dut parte. 60 emakume ginen. Makilak hautsi beharrean denok. Oso giro ederra sortu zen. Disfrutatu egin nuen. Malkorik ez, baina uneren batean emozionatu ere egin nintzen. Aupa Sebastian.

Barrutik ala kanpotik bizi. Alde ederra dago. Zuritik beltzerakoa, batzuetan.

Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?



Esan baietz betiko

RPS: 741/13

Rosa Sarabia doktorea

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

PronoKal metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko

– Kontrol mediku zorrotza
– Pisu galtze handia – Gose gabezia

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA
BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA

Medikuntza estetikoa eta kirurgia plastikoa

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.